ASTELEHENEKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-12-09
ASTELEHENA
433. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Antzuolak irabazi du derbia

3 eta 1, Aloña baino gehiago izanda | 22



Antzuolarra baloiarekin. | IMANOL SORIANO

Gozoki ehiza San Nikolas egunez Arrasaten, auzoetan eta plazan | 12



Entrenatzaile titulua gurean euskaraz atera daiteke | 2



Santamasetako pilota txapelketa, azken txanpan dagoeneko | 25

## Lehen aldiz emakumea, lehen aldiz txinatarra

Hanzhi Wang izan da Arrasateko Nazioarteko Lehiaketako irabazlea; bigarren saria ere Txinara joan da, eta Serbiara hirugarrena | 29




Aurtengo irabazlea, azken pieza jotzen.

JOSETXO ARANTZABAL



Aurtengo Azoka. | IÑAKO GURRUTXAGA

## Kulturaren plazan presente, beste behin, Debagoiena

Guneek erantzun beroa izan dute aurten ere Durangoko Azokan, eta gune horietan izan dute bailarako sortzaileek euren lan berrienak erakusteko aukera. Aurkeztutako lan berri kopuruari dagokionez, hori bai, izan dira aurtengoa baino urte oparoagoak Debagoienarentzat. | 30

## SINADURAK


IÑIGO MURGIONDO | 8


JULEN IRIONDO | 8


GAIZKA ERAÑA | 14


AMAIA MADINA | 18


JOKIN MERINO | 19


OIHAN VEGA | 37


XABIER ZUBIZARRETA | 40

## Espainiako bandera txiki-txikia jarri dute Oñatiko udaletxean

Legeak behartuta jarritako ikurra nekez ikusten da kaletik | 4

## Urtarrilean abiaraziko dute Bergaran hondakin bilketa berria

Alde zaharreko bilketa puntuak zehaztu dituzte | 16

Eskaintza berezia, Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker

Egin zaitez Goiena Klubeko bazkide eta irabazi iPad bat

2013ko abenduaren 31ra arte bazkide egiten direnen artean zozketatuko dugu iPada



ARRASATEKO HIPERMERKATUA
EROSKI zurekin

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO:
943 25 05 05

goienakluba

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

# Entrenatzaile titulua euskaraz atera daiteke Debagoienean

▸ Euskara hutsean ematen den lehenengo aldia da

▸ Kirola Euskaraz proiektuaren barruan dago



Mondrako bi entrenatzaile –ezkerrekoa, Iker Uribarren–, infantil mailako jokalariekin. |

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Debagoiena berriz ere aitzindaria da euskararen normalizazioari dagokionez. Izan ere, urria ezkero, Arrasaten ematen da futbol entrenatzaile titulua lortzeko euskarazko formazioa, lehenengo aldiz Euskal Herrian. 30 lagun inguru dabiltza astero bi egunetan, astelehenetan eta zapatuetan eskola horiek jasotzen, Mondraren instalazioetan, Mojategin. Kirola Euskaraz proiektuaren barruan bete den helburu bat izan da titulazio hori Arrasatera ekartzea, eta %100ean euskaraz, gainera. Debagoieneko Mankomunitatearen, udalen eta kirol kluben, batez ere Mondraren laguntzari esker lortu dute.

Mondrak zuzendaritzaren batzar-gela uzten die eskolak jaso ditzaten, eta, eskola praktikoak egin behar dituztenean, errugbi edo futbol zelaian egin ahal izango dituzte.

Kirola Euskaraz programako arduradunek diote bi gauza lortzen direla ikasketa horiek Debagoienera ekartzearekin: "Beti gu izaten gara Debagoienetik irten behar izaten dugunok, eta gure buruari galdetu genion ea zergatik ez ginen ahalegintzen oraingoan ikasketa horiek gurera ekartzen; eta gainera, euskaraz. Horrela, zeharka, Debagoieneko futbola euskalduntzea lortzen dugu".

> **DATUA**
>
> **30**
>
> IKASLE
>
> Debagoieneko eta Debabarreneko 30 bat ikasle daude Arrasaten.

### Hiru maila, hiru titulu

Eskolak Kirolenek ematen ditu, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren mende dagoen Kirol Irakaskuntzaren Ikastetxe Publikoa. Irakasleak, gai didaktikoak eta materiala Kirolenek ipini ditu, eta berak moldatu du materiala euskarara. "Kirolenek ere lan handia egin du", esaten dute Kirola Euskaraz-eko arduradunek.

Entrenatzaile titulua lortzeko ikasketa horiek hiru maila dituzte, eta ez da derrigorrezkoa hirurak egitea. Orain, lehenengo mailako ikasketak ematen dituzte Arrasaten. Kurtso hori gainditzen dutenek dagoeneko lortzen dute titulu bat, eta gazte maila arteko taldeak entrena ditzakete. Bigarren mailako ikasketak egiten dituztenek futboleko 3. mailara arteko –3. mailakoak kanpo– taldeak entrena ditzakete; esaterako, gaur egungo Aretxabaleta edo Mondra taldeak entrenatu ahal izango lituzkete. Azkenik, 3. kurtsoa edo maila gainditzen dutenak futboleko 1. mailako taldeen entrenatzaile izan daitezke.

### Orain arte, Durangon

Debagoiendarrak dira ikasle gehienak, baina badaude hiru soraluzetar, bi azpeitiar eta eibartar bat; debagoiendarren artean, gehienak arrasatearrak eta bergararrak dira. Bestalde, ikasle guztiak datoz futbol mundutik, baina, horren barruan, barietate dezente dago: "Futbola utzi berri dutenak, futbolean dabiltzan gazteak, klubetako jendea klubetarako formatzen dabilena... denetarik dago". Adin aldetik, 20 eta 40 urte artekoak dira.

Iker Uribarren da ikasleetako bat. Arrasatearra da, Athletic-eko harrobitik etorria eta Mondran umeen entrenatzaile. Horrez gain, Kirol Irakasle ikasketak egin ditu eta TAFYD (Ekintza Fisikoetako eta Kiroletako Teknikaria izenaren gaztelaniazko siglak) ikasten dabil. Helburuez galdetuta, hauxe dio: "Orain Mondran nabil, infantilak entrenatzen; ikusi nuen guk entrenatzaileengandik ikasi duguna erakusten diegula umeei, eta formazio bat jasotzea erabaki nuen, neuk entrenatzeko. Ez diot nire buruari aparteko helbururik ipini; oraingoz, gustura nabil".

> **ESANAK**
>
> **"Behingoz, ikasketak gurera ekartzea pentsatu genuen"**
>
> KIROLA EUSKARAZ
>
> **"Infantilak entrenatzen ditut, eta formakuntza jaso nahi nuen"**
>
> IKER URIBARREN | IKASLEA
>
> **"Etxetik gertu ikasteko aukera ikusi nuen; gainera, euskaraz"**
>
> ERIK BADILLO | IKASLEA

Entrenatzaile ikasketak Debagoienera ekartzeak haiek eskualdera moldatzea ekarri du: "Oso giro ona sortzen da ikasgelan; denok gara ingurukoak, eta debateak sortzen dira, izan ere, Kirolenekoen ikuspegia eta gurea beti ez dira berdinak". Alde horretatik, eskolak "oso aberatsak" dira.

Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak ere naturaltasunez erabiltzen dituzte; hala, ikasleek Interneteko topagune edo plataforma bat daukate, ariketak igotzeko, eta irakaslea e-mailez jar daiteke eurekin kontaktuan.

Erik Badillo 29 urteko aretxabaletarra da eta Aretxabaletako Eskua hezkuntza eta kirol proiektuko –Errespetua Sustatzeko Kiro-




LEIRE KORTABARRIA

la Ulertuz Aretxabaletan– bultzatzaileetako bat da. Bera ere ikaslea da. Honakoa diosku: "Orain arte, hemendik gertuen Durangon ikasteko aukera zegoen entrenatzaile titulua ateratzeko. Hau Arrasaten izanda, aukera ikusi nuen etxetik gertu ikasteko, eta, gainera, euskaraz bazen, askoz hobeto. Nik Irakasle ikasketak egiten ditut eta arlo asko antzekoak dira, eta Irakasle ikasketak euskaraz egiten ditudanez, erraztasun handiagoa daukat".

Erikek komentatzen duenez, bere motibazioa hauxe izan zen: "Futbol munduan nabil eta beti dago zer ikasi; gainera, Federazioak titulazio hori eskatzen du. Hortaz, nire lehenengo helburua lehenengo maila egitea da". Gero "ikusiko" du Erikek jarraitu edo ez. Ikasketa horiek gainerako zereginekin batera ondo eroatea da beste gakoetako bat.

Ikasketak Debagoienera ekartzeak askoz erosoago egin ditu ikasleendako, izan ere, askoz gertuago egoteaz gain, Durangoko ordutegiak "ez ziren oso egokiak" bertako ikasleendako. Arrasateko eskolen kasuan, denen artean adostu dituzte egunak eta ordutegiak.

**Tituludun entrenatzaileak**

Kirola Euskaraz-eko ordezkariek azpimarratzen dute Debagoieneko klub guztiek lagundu dutela, baina, bereziki, Mondrak. Klubeko presidenteak, Ander Garaik, honakoa dio: "Proiektua aurkeztu ziguten eta, Arrasaten eta inguruan titulu hori emateko beharra zegoela ikusita, laguntzea erabaki genuen. Izan ere, gauza bat da laguntza gisa entrenatzea, eta beste bat, umeen progresioa jarraitzeko-eta, tituludun entrenatzaileak izatea". Garairen esanetan, Mondrako zuzendaritzak "harrera ona" egin zion proposamenari, eta baita jokalariek eta entrenatzaileek ere, azken horiek "titulua nahi" zutelako.

Dena euskaraz izateari ere garrantzi handia ematen dio Mondrako presidenteak: "Lehenengo aldiz ematen dira ikasketa horiek euskaraz, eta kontua da bailara honetan, futbolean, euskara oso gutxi erabiltzen zela; entrenatzaileetatik hasita, ez zen bultzatzen euskara modu normalean erabiltzea; orduan, horregatik ere oso aukera interesgarria iruditu zitzaigun".

Eskua edo Kirola Euskaraz bezalako ekimenak asko laguntzen dabiltza kirola euskalduntzen; izan ere, arduradunek dioten moduan, "futbola oraindik oso erdalduna da", eta "entrenatzaileek euskaraz egiten badute, umeek ere euskaraz egingo dute".


Hiru ume, Arantzabalekin eta Lopez Rekarterekin. | GOIENA

## Futbolari txikien euskal topagunea

2012ko azaroan aurkeztu zuten Kirola Euskaraz, euskal kirolari integrala sortzeko eta kirola euskalduntzeko. Gaztetxoendako hainbat ekintza antolatu izan dituzte. Besteak beste, iaz, 500 ume batu ziren Ipintzan eta Agustin Arantzabal eta Aitor Lopez Rekarte ezagutzeko aukera izan zuten. Arrasate, Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko klubetako ehunka umeri eragiten die programak; aurten, 2002 eta 2004 artean jaiotakoak dabiltza.



# Eskualdeko herri-eskolak Arrasaten, "jai-egun arrotzei" bizkarra emateko

"LOMCE legearen gainetik eredu propiorako alternatibak" bilatu zituzten

USOA AGIRRE | ARRASATE

Abenduaren 6an, Espainiako Konstituzioaren egunean, Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako zenbait gazte batu ziren Arrasateko gaztetxean Ikasle Abertzaleek eta Ernai gazte antolakundeak antolatutako herri-eskoletan parte hartzeko.

Amaia Etxabe, herri-eskolen antolatzaileak zera adierazi zuen: "Abenduaren 6a Konstituzioaren eguna da eta argi daukagu euskal herritarrok ez daukagula ospatzeko ezer. Konstituzioak jartzen dizkigun mugen gainetik gure eredua eta sinesten dugun Euskal Herri hori eraikitzen hasi behar dugu gaurtik, eta horretarako elkartu gara Arrasaten Debagoieneko herri-eskoletan".


Debagoieneko zenbait gazte, Arrasateko gaztetxean. | IMANOL SORIANO

### LOMCE legea aztergai

LOMCE legeak zer dakarren aztertu zuten klase ikuspegitik, nazio ikuspegitik eta ikuspegi feministatik. "Inposaketa horren aurrean zer eredu proposatzen dugun galdetu dugu. Nazio identitatearen eta hezkuntza hezkidetzaren aldeko apustua egiten dugu", zioen Etxabek.

# Venezuelan atxilo zegoen Asier Guridi oñatiarra, aske

Asilo politikoa lortu eta Espainiara ez estraditatzeko lanean ari dira abokatuak

J. IRIONDO/ U. AGIRRE | OÑATI

Espainiak egina du Asier Guridiren kontrako estradizio eskaria, ETAko kidea izatea egotzita, besteak beste. Venezuelak eta Espainiak badute estradizioetarako hitzarmena, baina hitzarmen horretan bada klausula bat estradizioa eragozten duena "arrazoi politikoak" tartean badaude, eta hori argudiatzen dute abokatuek, Espainiaratu ez dezaten eskatzeko. Guridi herrialde hartan "militantzia politikoagatik" dagoela erakusteko hainbat dokumentazio bidali dute Euskal Herritik. Hala baieztatu diote Goienari haren gertukoek.

Guridi irailaren 20an atxilotu zuten Venezuelan. Nortasun faltsuarekin bizi zen herrialde hartan, eta orain asilo politikoa eta venezuelar naziotasuna lortzeko lanean dihardute. Venezuelan emaztea eta semea ditu oñatiarrak, eta horiekiko bere lotura erregularizatu nahian ere badihardute.

### Gose greban egon da

Guridik 15 eguneko gose greba ere egin zuen bere atxilo-aldian, preso zegoela zituen bizi-baldintzengatik kexu. Haren gertukoek adierazi dute berriki izan direla berarekin eta "ondo" dagoela.

# Espainiako bandera txiki-txikia udaletxearen aurrealdean

Legez zegoen behartuta Oñatiko Udala udaletxean Espainiako bandera jartzera eta, horretarako emandako epea agortuta —irailean bi hilabeteko epea eman zuen Euskadiko Auzitegi Nagusiak—, jarri dute. Hori bai, ia kaletik ez ikusteko moduko tamainakoa da udaletxe aurrealdearen goiko balkoian jarri duten bandera.



JULEN IRIONDO



IMANOL SORIANO

# Ordaindu plataformak mobilizazioekin jarraituko du

Fagor Etxetresnetako Erréktore Kontseiluko presidentearekin bilduko dira gaur, astelehena

USOA AGIRRE | ARRASATE

Azaroaren 21ean hasi eta Gabonak bitartean eguenero egingo dute elkarretaratzea Ordaindu plataformakoek Biteri plazan. Joan den eguenean ere halaxe egin zuten eta han bildutakoei adierazi zieten astelehenean batuko direla Fagor Etxetresnetako Erréktore Kontseiluko presidentearekin. Ordaindu da Etxetresnetako kapital sozialagatik eta borondatezko ekarpenengatik kaltetuak ordezkatzen dituen taldea.

### Bilera gehiago

Datozen egunetan Fagor Taldeko Kontseilu Orokorreko presidentearekin ere bilera egiteko asmoa dute, baita Kontsumobiderekin ere. Datorren astean, Mondragon Taldeko egoitza parera egingo diren giza-kateetan parte hartuko dute.



Ordaindu plataformako kideak eguenean Biterin egindako elkarretaratzean. | MONDRABERRI.COM

# Jardunaldi Gastronomikoak: ate irekiak Ausolanen

XV. Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen barruan zenbait ekintza izango dira asteon

USOA AGIRRE | ARRASATE

Urriaren 11n hasi ziren XV. Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoak eta abenduaren 30era bitartean zenbait ekintza izango dira oraindik ere. Gaur, astelehena, Ausolan kooperatiba barrutik ezagutzeko aukera izango da, bisita gidatua egingo baitute bertan 12:30ean hasita. Taldeentzako menuak prestatzen dituzte Ausolanen eta beraiek gertatutako jakiak jaten dituzte egunero hainbat ikastetxe, enpresa eta egoitzatan. Bisitaren ostean bazkaria egongo da.

Ausolaneko bisitan parte hartzeko izena eman beharra dago aurretik Debagoieneko Mankomunitatean, 943 79 64 63 telefonora deituta edo *turismo@debagoiena.net* e-posta helbidera idatzita.

### Haurrentzako tailerra

Abenduaren 11n, eguaztena, haurrentzako tailerra izango da Antzuolako Olaranen 18:00etan hasita. Bertan, Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak txikienek fruta eta barazki gehiago jan ditzaten tailerra egingo du, *Jolasten frutak eta barazkiak jan!* izenburupean. Hurrengo astean, berriz, Gabonei begirako tailerra egingo dute helduendako.



Elgetako Espaloian eginiko estreinaldian. | GORKA ETXABE

# Dolua ardatz duen 'Aulki hutsak' dokumentala estreinatu dute

Arteman Komunikazioak ekoitzitako lana Elgetan eman zuten lehenengoz

**ANE ETXEBERRIA** | DEBAGOIENA
Iñaki Peña medikuaren zuzendaritzapean Arteman Komunikazioak ekoiztutako lana estreinatu zuten joan den astean Elgetako Espaloian. Ekitaldi intimoa izan zen eta bertan izan ziren dokumentaleko protagonistak eta haien lagun eta senideak. Elgetako Espaloira joan zirenek, gainera, grabazioko esperientziak konpartitzeko aukera izan zuten: grabazio prozesua, finantzazioa, bitxikeriak... askotariko kontuak, horrenbestez.

Dokumentala doluaren prozesuari buruzkoa da, heriotzaz eta bizitzaz, beraz, esperientzia profesional eta bizipen pertsonalekin osatutakoa. Bada, zainketa aringarriak giza eskubide direla aldarrikatzen dute.

Mami korapilatsua irudi dotorez apainduta ageri da (hiria eta herria, mendia eta itsasoa, helduak eta umeak, emakumeak eta besteak, Euskal Herria eta India...). Bertsio originala euskarazkoa bada ere, egitasmo eleanitz horretan hizkuntza nagusiaren ondoan beste batzuei ere egin diete lekua (katalana, gaztelania eta, seguruenez, ingelesa ere bai).

Antzezleei dagokienez, bailarako lagun asko izan dira lanean: Arantzazu Ibarrondo (Oñati), Eider Otxoa (Aretxabaleta), Gema Tuñon, Iker Barandiaran (Aretxabaleta), Imanol Kerexeta, Imanol Miner, Izaskun Andonegi, Joxemai Izagirre, Julian Etxeberria, Julio Gomez, Koldo Martinez, Lori Thompson, Lourdes Zurbanobeaskoetxea, Marije Goikoetxea eta Mikel Ugalde.

**Dokumentalaren sinopsia**
Zer gertatzen da maite dugun hori hiltzen denean? Normala da sentitzen dudana? Noiz hasi behar dugu kezkatzen? Eta trabatzen bagara, nora jo? Kontzeptuetatik abiatuta, mina *(dolus),* haserrea, egun "perfektuak", itxaropena eta oroimena barne hartu dituzte. Musikari dagokionez, bertako doinuak entzuteko aukera ere badago, besteak beste, Ruper Ordorikak, Garik eta Gorka Urbizuk jarri baitituzte musika eta doinuak dokumentalean.

# Ekin Emakume Elkartea nazioarteko II. biltzarrean izango da

Deustuko Unibertsitateak Bilbon duen egoitzan izango da biltzarra abenduaren 11tik 13ra bitartean

**A.E** | ARRASATE
Abenduaren 11tik 13ra Deustuko Unibertsitatean egingo den nazioarteko II. biltzarrean hartuko du parte Ekin Emakumeak Elkarteak. Aurtengo biltzarrean, *Emakumeak ahalduntzea, gizartean esku hartzeko estrategia gisa* izenburupean, hainbat hitzaldi izango dira, eta bertan izango da Ekin taldea.

Biltzar horren helburua da emakumeen ahalduntzeari (banakakoa, taldekoa edo komunitatekoa) lotutako jakintzak eta esperientziak partekatzeko espazioa sortzea, beren arteko aniztasuna, testuinguruak eta egoerak kontuan hartuta.

Ahalduntzea "emakume bakoitzari edo emakume talde bakoitzari bizitzan dituen zapalketei aurre egiteko aukera ematen dioten ahalmenak eskuratzea eta berenganatzea" bezala ulertzen dute antolatzaileek. Halaber, gaineratzen dute, "pertsonek, taldeek eta komunitateek aldaketa prozesuan duten partaidetza gizartean esku hartzeko oinarrizko elementuetako bat dela, eta, horrela, ahalduntzea ezinbestekoa dela esku hartzean". Premisa hori oinarri hartuta, biltzar horrek azpimarratu nahi du zein garrantzitsua den emakumeak ahalduntzea, banakako, taldeko eta komunitateko esku hartzearen estrategia gisa, eta hori landuko dute hitzaldietan.

Hiru eguneko programazioan, hitzaldiak, mahai inguruak, tailerrak eta beste hainbat topaketa izango dira. Gainera, hizlariek hainbat esparrutan egiten dute lan, baina hitzaldi eta mahai inguru sorta guztietan emakumea izango dute hizpide. Nazioateko hizlariak izango dira biltzarrean eta nork bere esperientzia kontatzeko aukera izango du; askotariko ikuspegiak ezagutzeko aukera izango da, beraz.

**Ekin Emakume Elkartea**
1985. urtean sortu zuen elkartea emakume talde batek, "ume-umetatik pertsonaren nortasuna finkatzean emakumeak duen eragina kontuan hartuta". Euskalduntzea eta heziketa euskalduna ere bultzatzen dute, eta, hala, 1995a ezkero Ekin Emakumeak AED elkartea izenpean egiten dute lan, emakumezkoak eta euskara euren lanaren ardatz nagusiak izanda.

## Eraikuntza eta birziklapena ardatz biharko hitzaldian

**A.E** | ARRASATE
Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Eraikuntzako Heziketa zikloak antolatzen duen *Eraikuntza pil-pilean* hitzaldi sortaren barruan, sektore profesionalei eta enpresei zuzendutako hitzaldia antolatu dute biharko.

Hitzaldiaren izenburua *Eraikuntzan eta hirigintzan birziklatutako produktuak* da eta hizlari lanetan Goio Borge arituko da.

ZICLA enpresako ordezkaria da Borge eta berezikibide publikora, hiri-altzarietara eta eraikuntzara zuzendutako produktu eta sistema birziklatuak zeintzuk diren erakutsiko du. Hitzaldia profesionalei, arkitektura eta hirigintza estudioei, erakunde publikoei eta interesa duen edozeini zuzenduta dago.

ZICLA enpresak birziklatutako produktuen garapenean eta produktu-hondakinen tratamendu eta kudeaketa proiektuetan dihardu lanean.

**Izen-ematea**
Hitzaldia bihar martitzena, 11:30ean izango da. Izena emateko epea, aldiz, gaur amaitzen da eta interesatuta dauden guztiek *lanbide@arizmendi.ikastola.net* helbide elektronikora idatzi beharko dute, edo telefono hauetako batera deitu: 943 79 00 27 edo 943 71 20 25. Sarrera doan da, baina plaza mugatuekin.

## Endavant talde kataluaniarraren hitzaldia bihar

Endavant talde katalanak hitzaldia egingo du bihar arratsaldean Arrasateko Irati tabernan. Askapenak antolatu du hitzaldia eta 19:30etik aurrera Endavanteko bi kide arituko dira berbetan. Askapenaren *Europa astinduz* kanpainaren barruan dago martitzeko berbaldi hori.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

# Farmazia eredu berriaz jardun zuten 140 lagunek Garaian

## Mondragon Health-ek antolatu zuen; farmazia asistentzialaz hitz egin zen, pazientearendako seguruagoa eta eraginkorragoa izango dena

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Farmazialariaren lana, gaur egun, ez da lehengo berdina, eta aldatzen jarraitzen du. Adituen esanetan, farmazialari lanbidearen etorkizuneko gakoa farmazialariak dituen gaitasun guztiak garatzean dago. Farmazia asistentziala da hori, hau da, pazienteak behar dituen botikak errebisatu, modu pertsonalizatuan prestatzeko sistemak erabili eta produktua ahalik eta osasun-baldintza onenetan ematea.

Gai horretaz hitz egiteko batzartu ziren 140 profesional baino gehiago Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean, joan den martitzenean, Mondragon Health kooperatibak eta SEDISAk, Espainiako Osasun arloko Zuzendarien Elkarteak antolatutako *Asistentzia-farmazia eta pazienteen segurtasuna* izeneko jardunaldian. Mondragon Health pozik azaldu da: "Jardunaldia oso ondo joan da, parte-hartzea benetan zabala izan da eta oso pozik gaude". Sektoreko eragileen artean topaketa praktikoa egitea eta farmazia asistentzial eredu baten gaineko ideiak konpartitzea ziren jardunaldiko helburuak, eta Mondragon Health-ek betetzat jo ditu.



Osasun eta farmazia sektoreetako ordezkariak, Garaia Berrikuntza Gunean. | TU LANKIDE

Farmazia asistentzialaren ereduak pazienteendako segurtasun handiagoa eta tratamendu eraginkorragoak lortu nahi ditu. Horretarako produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzen dabil sektorea, tartean Mondragon Health. Kooperatibako ordezkariek hauxe esan dute: "Lortu da gaztion artean gai hauen inguruko informazioa, eguneraketa, gaur egungo egoera, etorkizuneko erronkak eta egiteke dagoena mahai gainean jartzea".

### Robotizazioa, etorkizuna

Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko Farmazia zuzendari Iñaki Betolatzak, Mondragon Health -eko arduradun Mikel Alvarezek eta Galdakaoko Ospitaleko gerente Jon Guajardok ireki zuten jardunaldia. *Fármacos y seguridad* hitzaldiaren ondoren, eraginkortasuna eta segurtasunaren eta, bestetik, automatizazioaren eta eraginkortasunaren gaineko mahai-inguruak egin zituzten. Besteak beste, Osakidetza, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoa, Santiago Ospitalea, GSR, Donostiako Onkologikoa eta beste erakunde batzuetako arduradunek parte hartu zuten.

Besteak beste, robotizazioaz hitz egin zuten. Farmazia gero eta sektore robotizatuagoa da eta, horri esker, eskaera jasotzeko itxoinaldia %59,5 txikitzen da, eta pazienteari botika emateakoan gerta daitezkeen akatsak %91,75 murrizten dira. Urte betean, Hego Euskal Herriko eta Espainiako farmazien robotizazio maila %32 hazi da.

Beste gai bat medikuntza pertsonalizatua da: gero eta gehiago erabiliko da eta terapia aurreratuetako botikak ohiko praktikan sartuko dira.

### Produktuak, ikusteko

Jardunaldia aprobetxatuta, Fagor Healthcare, Ulma Handling eta beste enpresa batzuek farmaziaren sektorerako dituzten berritasunak erakutsi zituzten.

---

## Ikasenpresaren lehen kongresua Miguel Altunan

Ikasenpresako enpresen lehenengo kongresua egin zuten astelehenean Bergarako Miguel Altunan. Ikasenpresa hezkuntza-programaren helburuen artean dago enpresaren mundua ikasgeletara hurbiltzea. Oraingoan, 32 kooperatibak hartu zuten parte, eta negozio plana egiten ikasi zuten ikasleek.




MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

---



Jon Montiel. | L.K

**Jon Montiel**
Glow kooperatibako kidea

## "Oñatiko 'blogtrip'-ak jakin-mina sortu zuen Interneten"

**L.K.** | OÑATI

Domekan Oñatin ekintza berritzaile bat izan zen, *blogtrip* bat; hainbat blogari etorri ziren Oñatira eta bere alde turistikoa promozionatu zuten.

**Zer da *blogtrip* bat eta zertarako balio du?**

Turismoa edo leku zehatz bat promozionatzeko beste modu bat da. Blogari batzuk gonbidatzean datza, eta eurekin egun bat pasatu, ekintzak eginez. Gero, blogetan eta sare sozialetan idazten dute horren gainean. Guk hiru blogari gonbidatu genituen: Ainara Gartzia azpeitiarra, Egoitz Goikoetxea mungiarra eta Miguel Loitxate eibartarra, emazte Laurarekin eta alabatxoarekin.

**Debagoienean lehenengo aldia izan da, baina formula erabilia da *blogtrip*-a.**

Orain hiru edo lau urte sortutako formula da eta leku askotan egin da, Costa Blancan aurtengo udan, eta orain dela bi aste Bizkaiko kosta ezagutzeko erabili zen.

**Goiz da, beharbada, datu zehatzak jakiteko, baina baduzue susmorik nola joan zen domekakoa?**

Blogari horiek jarraitzaile asko dituzte sarean, eta momentuan bertan, egunean sortu zen edukia jendea irakurtzen zegoen eta jakinmina sortu zen. *Oñatrip* erabili genuen traola gisa, eta mugikorrarekin ibili ginen egun osoa. Sarean sortu zen edukia eta mugimendua, eta hori zen, nolabait, gure helburua.

**Oñatiko Turismo eta Garapen agentziaren laguntzarekin egin duzue *blogtrip*-a; zer diote eurek?**

Oraindik ez dugu analisi sakonik egiteko astirik izan, baina eurekin berba egin dugu eta pozik daude. Aurretik ere asko lagundu digute eta konfiantza izan dute gugan; sortu duguna eurekin batera sortu dugu.

**Isabel Mulas** | Debagoieneko OSIko Errehabilitazio zerbitzuko medikua

# "%90ek izaten dute bizkarreko mina behin, gutxienez; gehienetan, postura txarrengatik"

- Bizkarraren Ikasgelan, bizkarreko mina arintzeko moduak ikasten dituzte pazienteek
- Bizkarreko mina ez da guztiz kentzen, baina posturaren higieneak asko laguntzen du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

OSIk, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak, Bizkarraren Ikasgelak emango ditu abenduaren 11n, Oñatiko kultur etxean, eta 16an, Arrasateko Kulturaten, 19:00etan. Iñaki Agirreurreta fisioterapeutak eta Isabel Mulas medikuak emango dute eta aurrez Errehabilitazio zerbitzuak horretarako egoki ikusi dituen pazienteek jasoko dituzte eskolak. Errehabilitazio zerbitzuko mediku Isabel Mulasen esanetan, "bizkarreko mina ez da osatzen, baina asko arindu daiteke".

**Zer erakusten duzue Bizkarraren Ikasgelan?**

Bizkarraren anatomiaren gaineko oinarrizko ikasgaiak ematen ditugu, eta zergatik ematen duen min azaltzen dugu. Ikasgai horietan oinarrituta, bizkarra norberak nola zaindu behar duen eta mina txikitzeko ariketak erakusten dizkiegu. Horrela, norbera osasuntsuago dago.

**Edozein joan daiteke Bizkarraren Ikasgelara?**

Ez; Errehabilitazioko mediku espezialistaren balorazioa pasa behar dute eta bestelako baldintza batzuk bete. Bizkarreko mina duten guztiendako ez da egokia Bizkarraren Ikasgela.

**Urtean zehar, zenbat bizkarreko min kasu ikusten dituzue?**

Urtero 300 lunbalgia kasu inguru izaten ditugu Errehabilitazio zerbitzuan, baina iaz 100 lunbalgia kasu bidali genituen Ikasgelara. Patologia degeneratiboa da lunbalgia, eta horrelako patologiak edo gaitzak dituzten guztiak ez dira egokiak Bizkarraren Ikasgelara joateko.

**Ze irizpide dituzue?**

Adibidez, bizkarreko min kronikoa eta ez gaiztoa izan behar da. Neoplasiak ere ez dira sartzen, ezta ebakuntzarekin tratatu behar diren gaitzak ere.

Adin muga bat ere badaukagu: gehienez ere 70 urte izan behar dute pazienteek. Horrek ez du esan nahi 70 urtetik gorakoek ezin dituztenik ariketak egin, baizik eta taldeko ariketa arautuak ezin dituela egin. Pazientearen jarrera ere baloratzen da: aurrerantzean ariketa-taula bat egiteko gertu ez badago, ez dugu Ikasgelara bidaltzen.

**Zenbatero egin beharko dituzte aurrerantzean ariketa horiek?**

Bizi osorako ariketak dira, eta astean egun baten edo bitan egingo ditu. Baina, ariketak egunero-egunero egitekoak ez diren arren, posturak zaintzea eguneroko lana, eta egunean 24 orduan egin beharreko lana da, esna zein lo gaudenean.

**Bizkarraren Ikasgelara joaten diren pazienteek gero, euren kontura, jarraitzen dute ariketak egiten?**

Gehienek, bai. Joan aurretik informatu egiten ditugu, zertara doazen azaltzen diegu; eta ikusi dugu ariketak hobeto hartzen dituztela Ikasgelan ikasita, gimnasiora bakarka datozenean baino; kontzientzia handiagoa hartzen dute, eta, bestetik, anatomia ikasgaiek interesa pizten dute, modu horretara norberak zer gertatzen zaion ulertzen duelako. Horrek denak mina arintzen die. Horrek ez du esan nahi mina kendu egingo zaienik, baina gutxienez ez dute hainbesteko mina izango eta, mina dutenean, zer egin jakingo dute. Horrela, medikuarengana ez dira horrenbestetan joan behar izango, eta botika gutxiago hartu beharko dute.

**Lunbalgiak aipatu dituzu; baina ze bestelako bizkarreko min daude?**

Zerbikaletako eta dortsaletako mina; baina, askogatik, lunbalgia kasuak dira gehiengoa.

**Zergatik sortzen da min hori?**

Kausa nagusia postura txarrak dira, izan ere, guregana datorren jende gazte askok ez du arazo degeneratiborik, baina bai postura txarrak edo etengabeko esfortzuak, eta horrek arazo organiko bat sortu dio: adibidez, disko-hernia sortu dio. Horrez gain, prozesu degeneratibo normala dago; behin eta berriz hartzen dugun postura txarrek bizkarreko mina sortzen dute. Postura horiek etengabe egiten ditugu, edozer gauza egiten dugula: adibidez, lanean zortzi orduan gaizki jesartzen bagara eta gero berriz etxeko sofan, bizkarra lesionatuko dugu eta min emango digu.

**Lehen arretako medikuarengana bizkarreko minarengatik doa jende asko, ezta?**

Bai; lehen arretako kontsulten %70 bizkarreko minak dira. Kalkulatzen da pertsonen %90ek bizkarreko mina izango dutela gutxienez bizitzan behin. Oso kopuru handia da. Argi dago heziketa oinarrizkoa dela, eta postura onak ikasteko programak eskolan eman beharko lirateke; arazo asko galaraziko lirateke horrela eginez gero.

**Hernia baino arazo larriagorik eragin ditzakete postura txarrek?**

Kanalaren estenosia ere sor daiteke. Hezur-muina doan kanala estutzea da estenosia. Horrek gorputz-adarretako nerbioei eragin diezaieke, eta ondorioz, zangoetan indarra galtzea, balioezintasuna... ekar dezake. Baina hori muturrekoa da. Hemendik urte batzuetara estenosi kasurik ez egotea espero dugu, patologia degeneratibo gutxiago egongo delako. Ikusiko ditugu oraindik kasuak, baina gutxiago, nire ustez.

**Gero eta ohitura hobeak ditugulako?**

Kontzientzia handiagoa dago orain. Enpresek hartzen dituzte askotan behar diren neurriak. Are gehiago, bizkarraren ikasgelak enpresetan sortu ziren, langilea hobeto egon zedin eta hobeto lan egin zezan. Oso gauza samurrak dira: mahaiak altuera egokira ipini, posturak zaindu... Hori zaintzearekin bakarrik, bizi-kalitatea hobetu egiten da.

**Bizkarreko mina duena sarri joaten da medikuarengana, ezta?**

Bai, eta Ikasgelarekin, maiztasun hori asko txikitzen da, pazienteak kontzientzia hartzen duelako eta, mina duenean, ez delako hainbeste beldurtzen, zer egin badakielako.

**Zelakoak dira, bada, ariketa horiek?**

Talde txikietan egiten dituzte, eta egiten dituzten bitartean egiten ditu zuzenketak fisioterapeutak, eta norberak etxean egiten ikasten dute. Ez dago zertan sasoian egon behar.

Bestalde, eurek ere dauzkaten zalantzak galdetzen dituzte, kontsultategian daudenean beharbada galdetzera ausartzen ez diren gauzak.

**Iaz parte hartu zuen jendeak, adibidez, hobera egin du?**

Gutxik ingresatu behar izan dute berriro. Nola zaindu badakite orain, eta hobeto daude. Galdeketa bat egin genien eta pozik daude.

**Ikasgelara ez doazenek ere ikas ditzakete ariketa horiek?**

Bai. Ikasgelara joateko egokia ez den jendeak ariketak eta postura egokiak ikas ditzake.

**Errehabilitazioaz eta ariketez gain, ze beste tratamentu dago gaur egun bizkarreko minetarako?**

Osakidetzak mediku-tratamentua ematen du, botikak, errehabilitazioa, infiltrazioak eta kirurgia.

**Eta bizkarreko min guztietarako dago tratamendua?**

Bai, baina asko ez dira osatzen. Horretan, berezia da bizkarra. Adibidez, belaunean mina duen bati belauneko hezurra kendu eta protesia ipin diezaiokegu; bizkarrezurra, ordea, ezin da ordezkatu. Beraz, hobetu egin daiteke, halako konponketak badaude, baina ez da guztiz osatzen.

Bestalde, edozeini gerta dakioke: 17 urteko pazienteak ditugu, eta 80 eta 90 urtekoak ere bai.

**Kirola egitea ona edo txarra da bizkarrerako?**

Kirol mota guztiak ez dira onak bizkarrerako, eta kirola egiteak bizkarra lesionatu dezake. Pazienteek galdetzen dute hori ere.

**Postura txarrez gain, beste zer edo zerk eragindako arazoak ikusten dituzue?**

Bai; neoplasia, infekzioa edo bestelako arazo larriren batek sortutako lunbalgiak eta zerbikalgiak etortzen zaizkigu. Horiek ez dira errehabilitaziorako pazienteak. Baina patologia degeneratiboak dira ohikoenak. Adinarekin okerrera egiten dute, prozesu degeneratiboak direlako. Ariketek eta ohitura onek hobeto sentitzen laguntzen diote pazienteari.




Isabel Mulas doktorea, kontsultategian, Arrasaten. | LEIRE KORTABARRIA

> **"Lunbalgiak dira ikusten ditugun kasu gehienak; iaz, 300 izan genituen"**

> **"Postura egunero 24 orduan zaindu behar dugu, eta bizi osoko lana da"**

> **"17 urteko eta 80 urteko pazienteak ditugu; edozeinek izan dezake arazoa"**

## ZABALIK



**IÑIGO MURGIONDO**
http://goiena.net/iritzia/

# Emaitza azkarrena edo onena

Egungo gizarte honek, guk askotan aurre egiten jakin gabe, guztia presaka egitera gonbidatzen gaitu: kotxea azkar gidatu, janaria prestatuta erosi, ariketa fisikoa egiten hasi berritan kilometroa korrika lau minutu azpitik egin…

Kirolean, pseudoprofesionalizazioa indar handia hartuta dago gure inguruan azken hamarkadan. Horrek ez du zertan txarra izan, kirolari horiek ariketa fisikoa egingo dutelako euren lan saioetan. Hala ere, aurretik aipatutako testuinguruko lan-saio horiek hein batean arriskutsuak izatera bideratuta daude, emaitzak aurreko egunean ikusi nahi ditugulako, eta ez aste, hilabete edo urte batzuen buruan.

Herrian mendi lasterketa antolatu dute; ez dut inoiz aldapetan antxintxika egin, baina parte hartu gura dudanez, eta gorantz oso azkar ezin naizenez joan, goitik beherako guztietan ahalik eta azkarren joango naiz. Eskalatzen hasi naiz eta teknikoki ez dut askorik menperatzen, baina urteak daramazkienak atzamar estentsioak egiten ditu eta izugarrizko nibela dauka; kopiatu egingo diot.

> **"Zentzua erabili behar dugu, beste gauza askotan edo guztietan bezala"**

Praktika horiek entrenamenduetako lan-kargak gure gaitasunen gainetik jartzera eraman gaitzakete, eta lesionatzea erraztu. Lesioak, betiere larritasunaren arabera, gure kirol praktika uztera eraman gaitzake, jarri dugun gogo eta denbora alferrik galduz.

Lesionatzeak edo min hartzeak ez du beti lana gaizki egiten duguna esan nahi, kontua da zentzua erabili behar dugula beste kontu askotan edo guztietan bezala.

Gogoan izan behar dugu telebistan agertzen diren kirolariak –berdin dit Mireia Belmonte edo Usain Bolt– ez direla gure eredu izan behar lan egiteko orduan, euren lan kargak beraientzako prestatuta baitaude eta ez guretzako.

Beraz, ariketa fisikoa egin eta entrenatu behar baduzu maila gorenera iristeko izan dadila.

## USTEAK USTE

**JULEN IRIONDO** | jiriondo@goiena.com

# Erabakitzeko eskubidea

Soziometroaren arduradun bati entzun nion PSE-EEren boto-emaileen %5 independentziaren aldeko direla. Honek erakutsi dezake ez dela ezinezko Gure Esku Dago ekimenak jorratu nahi duen bidea: jendartea, kolore bateko zein besteko, animatzea aldarrikatzera erabakitzeko eskubidea praktikara eraman ahal izatea. Ez independentziaren aldeko gehiengoa sortzea; independentzia nahi duten, Espainian jarraitu nahi duten… adierazi ahal izatea exijituko duena baizik, adierazitakoa errespetatua izan dadin. Eta esango nuke Estatua ari dela hori horrela izan dadin *laguntzen*: LOMCE, Guardia Zibilaren ikerketak irakaskuntzan, *tartalari*-en zigorra…

## KALE INKESTA

# Egin dituzu Gabonetako erosketak?



**ANE ZUAZUBISKAR**
ARRASATE

"Aurten apur bat berandu nabil. Momentuz opariak begiratzen egon naiz. Orain dela gutxi hasi naiz opariak egiten".



**GREGORIO ETXABE**
ARRASATE

"Oraindik ez dut ezer erosi. Krisiak ere eragiten du. Oparien kantitatea txikiagoa izango da, baina kalitatea zaintzen da".



**IMANOL ALDANONDO**
IDIAZABAL

"Oraindik urrun gelditzen da. Krisiak ez du gehiegi eragin. Tradizioarekin datorren zerbait da opariak ematea ".



**MAIDER DE VICENTE**
ARRASATE

"Gehienak erosi ditut. Falta direnak azkenengo unean erosiko ditut. Pertsona bakoitzak opari bana jasoko du".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Shannon Malloy: buru-moztea gainditu

**Ibon Larrazabal**
argia.com/blogak/ibon-larrazabal/

2007ko urtarrilean Shannon Malloy izeneko andereak auto istripu bat izan zuen eta bere autoaren aurrealdeko leihatilaren aurka buruarekin jo zuen. Ospitalera eraman zutenean, haren burua eta gorputz-enborra elkarrengandik bananduta zeudela ohartu ziren. Alegia, Malloyren garezurra eta bizkarrezurra guztiz banatuta zeuden, nahiz eta bizkarrezur-erraboila, azala eta beste organoak osorik egon.

[…] Hauxe da, izatez, urkatuei gertatzen zaiena: lepoan jasaten duten kolpeak bizkarrezur-erraboila puskatzen edo larriki kaltetzen du, bat-bateko heriotza eraginez gehienetan.

Shannon Malloy, miragarriki, ez zen hil eta ospitalean burua gorputz-enborrarekin berriro lotzen saiatu zitzaizkion. […]

Ebakuntzaren deskribapenak auto-tailer bateko konponketak dakartza gogora, baina beldurgarriena zera da: Malloyk berak kontatzen zuen, ebakuntza egiten zioten bitartean, burua alboetara irristatu zitzaiela sendagileei bost alditan, hau da, Malloy esnatuta zegoela denbora guztian! (Antzeko zerbait marrazki bizidunetan eta filmaren batean ikusi izana gogoratzen dut).

Lau hilabetez eraman zuen metalezko haloa Malloyk, garezurra bizkarrezurrarekin berriz lotu arte. Ondoren, ez zitzaion inolako elbarritasunik gelditu: lau gorputz adarren erabateko kontrola dauka eta ez dauka ibiltzeko zailtasunik.

Aztarna bakarrak, begi nerbioetan pairatutako kalteagatik begiak okertu zitzaizkiola, eta trakean jasandako kaltegatik irensteko zailtasunen bat dira.

Malloy tratatu zuten sendagileek honen kasua mirari bat izan zela aldarrikatu zuten, antzeko kasurik ez baitzen ezagutzen.

Baina, egia esan, urte bat beranduago, bederatzi urteko Jordan Taylor izeneko umeak barne lepo-mozte bat pairatu zuen ere, eta hiru hilabetetan guztiz sendatuta egon zen.

*http://abcnews.go.com/Health/story?id=6515671*

# Alderik baikorrena?

**Anjel Lertxundi Esnal**
berria.info/blogak/lertxundi/

Gramatika Batzordeak edukiz bete du Elhuyar hiztegiak *dimititu* aditzari emandako definizioa: "lanbide, kargu eta ardura norberaren borondatez uztea". Zuzendaritzak, aldiz, Arestik Tobera antzerkian aurreikusitakoa: "Zure kargutik dimititzen duzu, eta Buruzagitza Nagusiak onartu egiten dizu dimisioa".

Horiek dira posizioak.

Erretorika zerabilen jaun jakitunari erretolika irizten zion entzuleak. Komedia fikzioari dagokio; komeria, bizitzari. Historia irakasten ziguten, istorioak gustatzen zitzaizkigun. Filosofoa eta pilosopoa bereizten genituen. Zeremonien aurrean, zelemon egiten genuen. Harmonia zegoela ematen zuen lekuetan armonia ere ba ote zegoen begiratzen genuen. Sesioari bi adiera ematen ikasi genuen, jardun serioarena eta liskarrarena. Okasioari, berriz, zerbait egiteko aukerarena eta haserrearena. Gramatika Batzordearen lan itzela ez ahal da kalamatika huts geratuko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Julen Iriondo
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria


Ez zaitez galdu.
EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!
... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA
aretxarte
BEDELKAR
ibai-arte
txanda

# HERRIAK

ARRASATE

## Gabonetako erakusleiho apainduak, herria girotu eta bertan erosteko amu

▸ Ibarreko beste herri batzuetan moduan, Arrasaten ere hastear da erakusleiho lehiaketa

▸ 2012an saria jaso zuten hiru komertzioek aurten zer prestatu duten erakutsi digute

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Gabonetako klasiko dira dagoeneko gure herrietako komertzioen erakusleiho lehiaketak. Arrasaten Santamasen bueltan antolatzen da lehiaketa eta aurtengoa zapatu honetan jarriko da martxan.

Beraz, lehiaketan parte hartu gura duten dendariek izena eman beharko dute hilaren 13a baino lehen, Udaleko Kultura Sailean (943 25 20 20). Erakusteko epea abenduaren 14tik 20ra luzatuko da eta sari banaketa hilaren 20an egingo da, 18:00etan. Lehen sariak plaka eta 300 euro jasoko ditu, bigarrenak plaka eta 250 euro eta hirugarrenak, plaka eta 200 euro. Azken sari hori Ibai-Arte merkataritza elkarteak ematen du. Epaimahaiak honako aspektuak hartuko ditu kontuan: irudimena, orijinaltasuna, publizitate-mezuaren baliagarritasuna, erakusleihoaren itxuraren kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin duen lotura.

**Iazko saridunen aurtengo ideiak**

Iaz lehen saria jaso zuen Altuna lurrindegi dendako Javier Indak aurten prestatu dutena kontatu digu. *Gabonetako zirkoa* jarri diote izen: "Ideia pentsatzearen eta erakusleihoa bera prestatzearen ardura nire bikotekideak hartzen du. Zirkoarena aspaldi zuen buruan, antzinako zirkoaren ilusio eta magia hura berreskuratu gura zuen. Hori guztia Gabonetako giroarekin lotu dugu, zerbait ezberdina egin nahian". "Sekulako" lana ei da Gabonetarako erakusleihoa apaintzea: "Ia dena eskuz egina da, ordu asko dira. Hilabete batzuk lehenago hasten gara dena prestatzen eta muntatzen ere egin ditugu pare bat egun". Halako lehiaketak "beharrezkoak" direla uste du Indak: "Kalea girotu egiten du, Gabonetako ilusioa zabaltzen laguntzen du. Umeak etortzen dira erakusleihoa ikustera, polita da". Kuriositate moduan, Indak kontatu digu erakusleiho bakoitzaren bideoak interneten jartzen dituztela ikusgai, youtube-n.

Bigarren saria animaliendako Traskilon ile-apaindegiak irabazi zuen 2012an. Aurten ere orijinalak izaten saiatu direla esan digu arduradunak, Ainara Jorgek: "Txakurrak iratxoz mozorrotu ditugu eta karroza txiki bat ere jarri dugu. Beti saiatzen gara zerbait orijinala egiten". Jorgeren arabera, lan handia da erakusleihoa apaintzea, batez ere zer egin erabakitzea: "Erakusleihoa diseinatzeko ez dut ikasketarik eta dena irudimenean oinarritzen dut. Ideia errealitate bihurtzerakoan beti egoten da aldaketaren bat; nekeza da, bai". Halako lehiaketak "oso interesgarriak" dira: "Herritarra zure produktua ezagutzera animatzen duzu. Bestetik, haurrei begira apaintzen dut bereziki. Izan ere, eurak dira opariak eskatzen dituztenak eta Gabonetako ilusioa benetan bizi dutenak".

Hirugarren saria, Ibai-Arte merkataritza elkarteak ematen duena, Karrikiri opari dendak irabazi zuen iaz: "Beti saiatzen gara Gabonetan erakusleiho berezi bat jartzen, garaia ere berezia da-eta. Aurten kolore goxoak erabili ditugu, gorria eta zuria, eta ilusioa transmititu gura izan dugu". Ideia "ondo" pentsatu behar da eta inbertsio bat ere bada, merezi duena: "Lan handia suposatzen du zer egin ondo pentsatu behar delako, baina merezi du. Jendeak saiakera baloratzen duela esango nuke". Halako lehiaketak ondo ikusten ditu: "Garrantzitsuak dira herriari bizitasuna ematen diotelako eta herritarrak bertan erostera animatzen dituelako. Bultzada berezi bat eman behar zaio lehiaketari, Udala eta Ibai-Arte horretara animatzen ditut". Sariak beste herri eta hiri batzuekin alderatuz eskasagoak direla ere uste du Arantzabalek.

**ESANAK**

> **"Sekulako lana da, dena eskuz egina dago ia. Ordu asko dira"**
> JAVIER INDA | ALTUNA

> **"Ikasketarik ez dudanez, dena irudimenean oinarritzen dut"**
> AINARA JORGE | TRASKILON

> **"Bultzada berezi bat eman behar zaio lehiaketari"**
> ARANTZA ARANTZABAL | KARRIKIRI



Altuna lurrindegi dendako Javier Inda, erakusleihoaren ondoan. | JOKIN BEREZIARTUA


Traskilon animaliendako ile-apaindegiko Ainara Jorge, erakusleihoa erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA


Karrikiri opari dendako Arantza Arantzabal, erakusleihoa atzean duela. | JOKIN MUJIKA

OÑATI

# Bertako eta kanpoko bisitari asko erakarri ditu Oñatik asteburu luze honetan ere

- Oñatin egindako bisita gidatuetan 116 lagunek hartu dute parte egubakoitzetik domekara
- Arrikruzko kobak "topera" izan dira eta antolatutako ia bisita guztiak egin dituzte

USOA AGIRRE | OÑATI

Joan berri den astebukaera luzean egunero bisita gidatu bat egin dute Oñatiko San Migel parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea bertatik bertara ezagutzeko. Atzo, domeka, izan zen bisitetako bat eta han izan zen Goiena ere beste 40 bat bisitarirekin batera. Edurne Urteaga turismo bulegoko arduradunak esandakoaren arabera, astebukaera luze osoan 116 lagunek parte hartu zuten turismo bulegoak antolatutako bisita gidatuetan.

Bisita gidatuetan jende askok parte hartu arren, izan ziren norbere kontura Oñati ezagutzera etorri zirenak ere. Hala, turismo bulegora informazio eske joan ziren 176 lagun Oñati, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Madril, Gaztela-Leon, Balear-Uharteak, Katalunia, Huesca eta Frantziatik. Oñati bisitatu zuten gehienak, berriz, bost leku hauetatik etorri ziren: Madril, Balearrak, Bizkaia, Gipuzkoa eta Huesca.


Bisitariak elizako klaustroan. | JOSETXO ARANTZABAL

### Oñati, "zoragarria"

Domekan bisita gidatuan parte hartu zuten gehienak madrildarrak izan ziren, arte-zentro bateko kideak, eta Oñatiko bazterrak arte ikuspuntutik aztertu zituzten. Oñatin "altxor handia" dagoela nabarmendu zuten eta gehienendako "sorpresa" izan zela Oñati moduko herri batean horrelako eraikinak aurkitzea. Gipuzkoako kostaldea ezaguna zen askorentzat, baina barrualdea ezagutzeak ere "merezi" duela adierazi zuten.

### Arrikrutzen bisita asko

Asteburuan Arrikrutzen ere jende dezente ibili zela adierazi ziguten hango arduradunek. Egubakoitz eta zapatuan 215 lagun izan ziren bisitan eta atzo, domeka, edizio hau ixterako datu zehatzik ez bazuten ere, beste 100 bat izango zirela esan ziguten. Kobak "topera" izan zirela nabarmendu zuten eta antolatutako ia bisita guztiak egin zituztela.

Kanpora joan barik bertako txokoak ezagutzeko aukera aprobetxatu dute, beraz, askok.



**ALVARO ZAPATA**
MADRIL

"Arte-zentro batetik etorri gara astebukaera pasatzera eta Oñati asko gustatu zaigu. Unibertsitateak Salamancakoaren zati txiki bat dirudi Euskal Herriaren erdian. Eliza monumentala da, ia katedrala".



**EMILIA HUERTAS**
MADRIL

"Oñati zoragarria iruditu zait. Gainera sorpresa izan da niretzat. Euskal Herrian egon izan naiz oporretan, baina kostaldean gehiago; eta Arantzazun egonda nengoen, baina Oñatin, herrian bertan, ez. Segi ezazue hiria zaintzen, zoragarria da-eta".

ARRASATE

# Bedoñarren alde topa egin zuten auzoko jaietan

Bedoñako jaiak ospatu dituzte astebukaeran eta hainbat ekintza izan dituzte auzotarrek: bideo emanaldia, patata tortilla eta postre lehiaketa; ipuin kontalaria; umeendako jolasak; txotxongiloak; txokolate eta gaztaina-erre jana; mus eta briska txapelketa; eta jaiekin amaitzeko, auzotarren afaria giro ederrean.


IMANOL SORIANO

4. edizioa
Kantari
Oñatiko saioa!

Amaia Txintxurreta Kantariko aurkezlea
BABESLEA:
SUPER BAT KONTUA
**Oñatiko** partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!
IKUSKIZUNA
OÑATIN **Abenduaren 14an,** Gaztelekuan.
*Etorri **zuen lagunak** animatzera.*
*DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!*
**Informazio gehiago:** 943 25 05 05 | blogak.goiena.net/kantari
goiena


Musakolan egindako boloa. | IMANOL SORIANO


Uribarri auzoan ere egin zuten boloa. | IMANOL GALLEGO

ARRASATE

# Neska eta mutil, gozokiak batuta guztiak pozik

▸ Goizean herrian zehar eta auzoetan egin ziren San Nikolas boloak

▸ Herriko plaza umez bete zen eguneko bolo handienaren zain

**USOA AGIRRE** | ARRASATE

Abenduak 6, San Nikolas eguna, kalez kale gozokiak batzeko eguna izaten da Arrasateko neska-mutikoendako. Poltsak eskuan dituztela herrian zehar San Nikolasetako kantua abesten ibiltzen dira, etxebizitza, denda eta tabernetan gozokiak batzeko. Aurten ere ohiturari eutsi diote txikienek eta poltsa bete gozokirekin joan dira gehienak etxera.


Herriko plazan egin zuten bolo handiena, eguerdian. | USOA AGIRRE

**Guztiak gustura**

Azken urteotan Arrasateko auzoetan boloa indartzeko lanean aritu dira eta aurten ere erdigunean ez ezik, egin dituzte San Nikolas boloak Uribarrin eta Musakolan, esaterako. Goizean herrian zehar gozokiak batzen aritu ostean, 12:30ean Herriko Plaza gaztetxoz bete-beteta zegoen, eguneko bolo handienaren zain. Lehenengo lerroan egon nahi zuten gehienek, baina boloa bukatu ostean ikusi zen ez dela hain garrantzitsua lehenengo lerroan edo azkenengoan egotea; azkartasuna, salto handia egitea eta zortea dira poltsa ondo betetzeko ezaugarri garrantzitsuenak. Urtero legez, herriko alkateak eta zinegotziek gozoki mordoa bota zituzten udaletxeko balkoitik eta aldean zituzten poltsak bete zituzten neska-mutikoek. Batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, baina guztiek batu zuten gozoki bat edo beste.

Plazako boloan ohikoak izaten dira bultzakada, oihu, kexa eta barreak, eta aurten ere ez ziren falta izan. Baina poltsak gozokiz ondo beteta pozik egin zuten txikienek etxerako bidea. Seguru datorren urtean gozoki gehiago batzeko estrategia pentsatzen hasia dela baten bat.



**LUCIA ETA LIDE**
ARRASATE

"Pakete bana eta gominola batzuk bakarrik jaso ditugu plazako boloan, ez garelako lehenengo lerroan egon. Beste urteetan baino gutxiago jaso dugu, ea hurrengo urtean zorte handiagoa dugun eta gehiago batzeko aukera daukagun".



**OIHAN**
ARRASATE

"Flauta bat eta bi pakete jaso ditut bakarrik; beste urte batzutan baino gutxiago jaso dut. Aurten ez dut izan zorterik plazako bolo handian. Aurrean egon naiz, lehenengo lerroan, baina aurrera ez da iritsi ia ezer. Kalean ere ibili gara gozokiak batzen".



**JOKIN**
ARRASATE

"Plazako boloan sei pakete jaso ditut, baina goizean herrian zehar ibili gara kantuan eta hiru flauta, ogitxo bat, paketeak, karameluak, txikleak eta beste batu ditut. Etxez etxe ere ibili gara kantuan, baina ez ziguten ezer ematen. Dendetan gehiago".

ESKORIATZA

# Euskal kantuen bertsioak Akerbeltzekin

Jai-giro aparta jarri zuen Akerbeltz taldeak zapatuan Inkernu tabernaren 10. urteurrena ospatzeko. Euskal kantuen bertsioak egiten ditu taldeak eta estilo askotariko kantuak eskaini zituzten: punk, ska, rock eta folk, besteak beste. Abesti asko ezagunak izanik, publikoa ere animatu zen beraiekin abestera.



IMANOL SORIANO

OÑATI

# Iñaki Artolaren euskarari buruzko hausnarketak izan zituzten hasteko Makalena elkarteko afarian

JULEN IRIONDO | OÑATI

Afari berezia egin zuten eguenean Oñatiko Makalena elkartean, herriko Hezkuntza Mahaiak antolatuta. Jaurlaritzako Hezkuntza sailean diharduen Iñaki Artola donostiarra izan zuten lagun, eta jaten hasi aurretik hitzaldia egin zuen, *Arrue ikerketa* deiturikotik eta ikastetxeetan euskararen erabilera dela-eta dagoen kezka eta erabilera handitzeko egiten den lanetik abiatuta.

Ikastetxeetako ordezkaritza –zenbait ikasle tartean– eta euskalgintzako hainbat lagun batu ziren Makalenan, eta Artolaren azalpenak entzun ondoren galderak egiteko eta euren iritzia emateko aukera izan zuten: "Jendea gustura ikusi dut, entzuten adi, eta bukaeran parte-hartze polita egon da", zioen Artolak afaria amaituta, formatuari buruz ondorengoa gehituz: "Modu berezi bat da, gauzak egiteko era desberdina; alde horretatik ere, oso ondo". Andoni Salameroren olerki errezitaldiarekin amaitu zuten saioa.



Iñaki Artola azalpenak ematen, Makalena elkartean. | J.I.

IÑAKI ARTOLA
HEZKUNTZA SAILEKOA

## "Lortu behar dugu umeen barruko nahia izatea euskara erabiltzea"



J.I.

Helburua umeek euskara erabili nahi izatea lortzea izan behar dela dio, ez erabilera soila.

**Egun, zer bilatzen da?**
Nik uste planifikatzen ditugula eskolan ekintzak, edukiak, eta ondorio gisa lortu nahi dugu erabilera, eta hori da gero neurtzen duguna. Baina planifikatu behar genuke eskola atsegin bat; umeak euskaraz bizipen positiboak izateko leku eta modu bat. Ondorioz, ziurrenik, erabilera etorriko da.

**Helburua erabilera soila izanda, ze arrisku daude?**
Hori lor daiteke, momentu baten, estimulu batzuekin. Baina maila neurologikoan gorago dauden faktoreak ukitzen ez baditugu, erabilera lortzeko jarri ditugun baliabideak kentzean jausi egingo da berriro erabilera. Lortu behar duguna da bere barruko nahi bat izatea.



ESKORIATZA

# Euskal kantu kalejiran

Eskoriatzako Txistulari Elkarteak antolatuta, kalean kantuan ibili zen taldetxo bat eguen iluntzean. Txistu eta pandero doinuek lagunduta, euskal kantuak abestu zituzten. Pintxo-pote eguna izanda, gainera, kantu eta kantu artean mokadua eta tragoa egiteko aukera ere izan zuten abestera animatu zirenek. Euskal kantutegiko ohiko abestiak kantatu zituzten bertaratutakoek, letrak esku artean zituztela.




# Azoka Plazaren irudi berria eta poltsa berrerabilgarriak, gertu

## Plotter berriak merkatuko ordutegiak eta saltoki finkoak jasotzen ditu

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Bagarak sustatu eta herriko hainbat eragile garatzen ari diren azoka biziberritzeko GUreztatu ekimenak lehen emaitza ikusgarriak eman ditu. Azoka Eguna egin zen apirilean eta etorkizuneko azoka nolakoa izango den irudikatzeko balio izan zuen, baina herritarrarendako modu ikusgarri eta finkoan zerbait aldatzen ari dela frogatzen duten lehen emaitza dira plotterra eta marka irudia: "Plotterrak lehen hileko hirugarren zapatuan egiten zen azoka jasotzen zuen baina ez zen Azoka Plazako postuena. Azoka Plazan postua dutenek eskatuta, hori aldatu egin zen eta orain ordutegia zein saltoki finkoak jasotzen ditu", adierazi digu Bagarako Onintze Guridik.

Zazpi dira egunero bertan dauden saltokiak; ordutegia, berriz, honakoa: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan, berriz, 09:00etatik 14:00etara. Azoka egun berezietan honakoa da ordutegia: eguaztenean, 07:00etatik 13:00etara, eta egubakoitzean 06:00etatik 13:00etara.



Azoka Plazako plotterra eta marka irudia. | IMANOL GALLEGO

**3.000 poltsa berrerabilgarri**

Plotterrarekin eta marka irudiarekin batera, joan den astean hasi ziren banatzen poltsa berrerabilgarriak. 3.000 poltsa banatuko dituzte, Azoka Plazan edozein erosketa egiten duten herritarren artean, doan. Hots, saltoki finkoetako dendariek, hileko hirugarren zapatuan parte hartzen duten baserritarrek eta eguazten zein egubakoitzetan Azoka Plazara jaisten diren saltzaileek banatuko dituzte poltsa berrerabilgarri horiek, agortu arte.

Marka irudia sortzearen beharra GUreztatu ekimenaren lehen faseko ondorioetako bat izan zen: "Marka irudia herritarren botoen bidez aukeratu ostean, orain irudi hori leku ikusgarri baten ipini dugu". Ekintza horrekin bigarren fasea amaitutzat jo dute, lan ildo batzuk oraindik lanean jarraitzen duten arren.

## NIRE USTEZ



**GAIZKA ERAÑA**

### Mundu ikuskerie

Esaten dauenez pertsona bat hiltzen danien bereaz mundu ikuskera bat, berezixe eta bakarra dana, desagertu egitten da. Gizakixe gizaki danetik mundu ikuskera guztixek bat egitten dauen bizipen-metaketie izan leike igual zerue, hau da, zendutako milioika bizi ñimiñuen batuketie. Zerue infinituki hedatu edo zabalketan da hola, bizipenak bardiñek ez dienez beti eukiko daue metaketako gaittasune, aurrekuek dakixena (bizi eta sentiru dauena) errepiketako arrisku barik milioika esperientzia, gutxi edo asko, gehituko jako unibertsoko masa edo energixiai berau etengabe elikatuz.

Lagun baten aittak atzo hartu euen zeru edo Unibertsoko Masarako (UMrako) birie. 80taka urte zittuen gizon honen ekarpena beste batzuek egindakoaz osatuko dau errealitatearen amaigabeko mosaikue, beronen zirrikitu ezkutuek agerixan itxiz. Bertan bizi garenok barriz gure nagusixek bizitako errealitatie eta ikasketak transmisiño birez jasotzera derrigortute gauz, beti be ez bada gura haretxein eta danon ondarie galtzie. Zenbat eta hobeto jaso, orduan eta tresna gehixau izango dogu errealitate konplexua ulertu eta ezaguketako. Ez deigun bada itxaron Unibertsoko Masarekin bat egin arte, jaso deigun (irudiz, abotsez, idatziz,..) geure inguruan dittuaun pertsonen bizipen eta pasartiek etorkizuneko zuhaitz ardaxka gaztiek gure izen eta izanaren barri euki daixien. AMEN.

**"Jaso deigun inguruan dittuaun pertsonen bizipen eta pasartiek"**

# Gartzia: "Sozialistok bosgarren edukiontzia gura dugu, betirako"

**J.B.** | ARRASATE

Arrasateko alderdi sozialista Hondakinen Mahaiak adostutako sistemaren aurka agertu da. Diotenez, "Bilduk eta EAJk" lortutako akordioa "tranpa" da eta bosgarren edukiontzia aldarrikatu dute berriro ere: "Sozialistok bosgarren edukiontzia gura dugu, ahalik eta lasterren eta betirako. Bilketa sistema denbora tarte jakin batean jasotako emaitzen arabera ezartzearen kontra gaude", adierazi zuen prentsa ohar bidez Paco Gartziak.

Gartziaren arabera, Hondakinen Mahaiak ezezkoa eman dio atez atekoari: "Sozialistok ez dugu onartuko inork arrasatear guztion bizitza baldintzatzea". Gogorarazi duenez, irailean tokiko batzordeak erabaki zuen PSE-EE Hondakinen Mahaitik altxatzea, hasieratik baldintzatuta zegoelako eta "haren helburu bakarra" atez atekoa ezartzea zelako.

**"Merkeagoa eta garbiagoa"**

Bederatzi hilabetetan %70 gaika biltzeko "exijentziarekin" ere ez dago ados PSE-EE: "Bosgarren edukiontziaren edo atez atekoaren bidez jaso, hondakin kantitate bera jasoko da. Kontua da edukiontzia merkeagoa, erosoagoa eta garbiagoa dela", uste du Gartziak. Era berean, "desengainatuta" dago EAJrekin: "Bilduri oxigenoa ematen ari dira herritarren aurka joan arren", dio.

# Zero Zabor taldeak argazki lehiaketa deitu du

**J.B.** | ARRASATE

Zero Zabor taldeak kontsumismoaren gaineko argazki lehiaketa antolatu du. Aurkezten denak atera beharko du argazkia eta argazkiarekin batera izenburu bat proposatu beharko da. Urtarrilaren 7a baino lehen bidali behar dira lanak, *arrasatezerozabor@gmail.com* helbide elektronikora. Bi sari egongo dira: epaileen saria izango da nekazal turismo baten bi lagunendako aste bukaera eta publikoarena, berriz, bertako produktuez osatutako saskia. Twitter edo Facebooken ikusi ahalko dira argazkiak.

# Iturbiden hainbat ekintza, Gabonak ospatzeko

**J.B.** | ARRASATE

Gabonak direla-eta, gaur bertan hasi eta urtarrilaren 5era arte hainbat ekintza antolatu dituzte Iturbide egoitzan. Trikitixa saioak, abesbatzen emanaldiak –Abaroa, Iturbide egoitza, Al-Andalus eta Goikobalu koroak, besteak beste–, gaztaina erreak, txokolate-jana, Gabonetako bingoa, bolo-txapelketa, Udal ordezkarien opari banaketa eta beste zenbait ekintza izango dituzte. Azkena, urtero moduan, Errege Magoen bisita izango da; kabalgata hasi aurretik pasako dira egoitzatik, 17:30ak aldera.

# Arrasate goitik ikusita, 'Basque Country Vertical' saioan

EITBren *Basque Country Vertical* telebista saioko lantaldea Arrasaten egon zen hilaren 4an. Monterron parkeko sekuoia luzeetako baten egon ziren, 40 bat metrora eskegita hainbat grabaketa egiten. Dron helikoptero bat ekarri zuten, besteak beste.


JOKIN MUJIIKA

### Jostailu Truke Azokan parte hartzeko azken egunak asteon

Abenduaren 14an egingo den Jostailu Truke Merkaturako jostailuak uzteko hiru egun geratzen dira. Hilaren 10ean Santa Marina ludotekan, hilaren 11n Okendokoan eta hilaren 12an Arimazubi plazan jasoko dituzte jostailuak, 17:30etik 19:00etara. Bagararen Elkartruke ekimenarekin bat egin dute aurten.

**Itsaso Retolaza** | VI. Mikel Essery bidaia kontakizun lehiaketako finalista

# "Gauetako une bakarti horiei aurre egiteko hasi nintzen idazten"

I.G. | ARRASATE

Lan kontuek eroan zuten Itsaso Retolaza Txinara, eta hemengoekin harremana mantentzeko modu bezala ekin zion bere esperientzian oinarritutako kontakizunak idazteari. Bere idatziak blog batean eskegi eta gero, kritika berrien bila Mikel Essery lehiaketara bidaltzea otu zitzaion. Horren ostean, bere sorpresarako, finalisten artean aukeratua izan zen. Orain, bere *Shanghaitik itsaso horiaren gainetik* kontakizuna *Manbo Poa bost* kontakizun liburuan irakur daiteke.


Itsaso Retolaza. | ROKE REZABAL

**Pozik lortutako emaitzarekin?**
Oso pozik. Lehiaketara pentsatu gabe aurkeztu nintzen, eta, kontakizun bakarra bidali beharrean, mordoxka batzuk aurkeztu nituen. Antolatzaileek animatu ninduten, euskarazko lan gutxi jasotzen dituzte-eta.

**Nondik sortu zitzaizun idazteko gogoa?**
Oso bidaia gogorra izan zen. Nire bi semeak eta senarra hemen utzita joan nintzen Shanghaira, eta, akaso, testuinguru horrek eman zidan idazteko grina.

**Bakardadea izan zen zure etorria?**
Gaueko une bakarti horiei aurre egiteko metodoa izan zen, bai. Hartzaileengandik ere kritika onak jaso nituenez, idazten jarraitu nuen.

# Bi herriren sentimendu kontrajarrien testigantza ekarri zuten Arrasatera

## Eneko Olasagastiren 'Alardearen seme-alabak' dokumentala eman zuten eguaztenean Kulturaten

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Irungo eta Hondarribiko alardeen iragana eta oraina jorratzen ditu dokumentalak, pertsonen sentipenetatik abiatuta. Horiek esandakoak adituta eta bi herrietako alardeak bertatik bertara bizi izanda, dokumentalean azaltzen den elkarrizketatu baten iritziz, "alardea sintoma bat da". Eneko Olasagasti zuzendariaren ustez, "berdintasunean bizi garela pentsatu arren, hori ez da egia".


Gizonezkoak alarde tradizionalaren desfilean. | IMANOL GALLEGO

Festak egun bat irauten du bi herrietan. Egun hori osorik erabili dute bi zuzendariek istorioa kontatzeko. Dokumentalaren lehen zatiak alardearen jatorria erakusten du, haren historia, eszenaratze, osaketa eta ezaugarriekin. Bigarrenak gatazkaren hastapenaz eta garapenaz dihardu. Hirugarrenean, aldiz, alardearen egungo egoera ikusita, festaren orainaz eta iraganaz gogoeta egiten dute protagonistek, inolako jarraibiderik jaso gabe.

**Lekukotza interesgarriak**
Ainhoa Ruiz de Arbulu Irungo alarde mistoaren jeneralak eta Jose Ramon Otaegi hango alarde tradizionaleko artilleria-buru izandakoak eman dituzte Irungoari buruzko lekukotzak.Hondarribiari dagozkionak, berriz, Jose Manuel Susperregi EHUko irakasle eta alarde tradizionalaren aldekoak eta Ixabel Alkain eta Garoa Lekuona Jaizkibel konpainiako kapitain izandakoek eman dituzte. Xabier Kerexeta soziologoak eta Maggie Bullen antropologoak, berriz, ikuspegi zientifikoa eskaini dute.

Gertukoa eta urrunekoa egiten zaigun alardea ezagutzeko aukera ezin hobea oparitu zigun *Alardearen seme-alabak* dokumentalak.

# Dead Bronco, Nerbioi ibaiaren alboko countrya

## Gaztea den talde getxoztar horrek Erresuma Batuko BBC katearen atentzioa ere erakarri du

I.G. | ARRASATE

Ameriketako Estatu Batuetako barrualdekoa dirudien Dead Bronco taldea, atlantikoaren beste aldeko doinuak jorratzen dituen arren, Getxo inguruan sortu zen orain dela bi urte eskas. Inork ez dezala pentsa taldearen gaztetasuna esperientzia faltaren seinale denik, bi urtean ibilbide polita egitea lortu dute-eta.

Epe labur honetan Bilboko Kafe Antzokia birritan goraino betetzeaz gain, kontzertua eskaini duten toki guztietan ikusleak zur eta lur utzi dituzte. Getxoko taldearen azken bideoklipak, gainera, Ingalaterrako BBC telebistaren arreta erakarri du. Argi dago markak haustea gogoko dutela.

Eguenean gaztetxera gerturatzen den orok country puruenaz gozatzeaz gainera, hemengo musikariek eta AEBetakoa den abeslari batek egin dezaketena ezagutuko du Kooltur ekimenean.



IMANOL GALLEGO

# Erdigunea, merkataritza-gune irekia

Duela egun batzuk herriko erdigunean identifikadore berriak jarri zituen udalak, hauen bitartez, inguruan dagoen merkataritza identifikatu eta bultzatzeko. Seinale berrietan kalearen izenaz gain, inguruan dauden komertzio motak ere azaltzen dira. Ekimen beraren barruan, banku eta paperontzi berriak ere jarriko dituzte.

## NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

**SERGIO AZKARATE** | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

# Zaldibarreko frontoie tapetako asmue eukien oin dala 25 urte

Hori izen zan bigarren zenbakiko notizia nagusixe, 1988ko abenduen 9xen. Aspaldittik etorren frontoie tapetako kontu hori, baiñe orduko udalbatzak esan euen ordue zala behin betiko erabakixe hartzeko.

Orduko gai polemikuenetakue zan. Pelota elkartiek frontoi bat egin gure euen eta azken berbie, barriz, Udalak euken; partido politikuek, baiñe, askotariko iritzixek eukien. Bi orriko erreportajie egin euen, eta baitte kaleko enkuestie be; hor, gehixenak tapetien kontra agertu zien.


— erreportaia —

*Bat etortzea zaila denean*

Zaldibarko Frontoia herri honetan pilotaleku hutsa baino gehiago da. Gutariko gehienok txikitan makina bat jolas egin dugu bertan; batean, zibuluetan gora eta behera, hurrengoan, futbolean edo pilotan. Laster, baliteke Zaldibarko ingurune horren egiturak aldaketa handi samarrak izatea; hau dela eta, gure barnean jakinmina sortzen da, herri honek hain bere-berea sentitzen duen lekuaren etorkizunaz.

*— Aspaldiko kontua*

Zaldibarko frontoia ixteko proiektua ez da udalbatza honen ideia izan, aurreko korporazioak konpontzeke utzi zuen arazoa baizik. Gaur egun, gure udalean dihardutenek erabaki bat hartzeko unea heldu dela ikusi eta frontoia dagoen bezala utzi edo aldatzea erabaki baino lehen, hiru arkitektori eskatu diete, beren proiektuak aurkez ditzaten, behin betiko erabakia hartu ahal izateko. Maketa edo antzeko zerbait eduki ezean, bidezko erabaki bat hartzeko gai ez bait zituzten beren buruak ikusten.

*— Hiru arkitekto, biru proiektu*

Arkitektoek, beren proiektuak egiteko orduan hiru baldintza eduki behar izan dituzte kontutan: Erreferentzi historikoak: Zaldibarrek gure herriaren historian paper garrantzitsua jokatu izan du. Oñatiarrek eta arrasatearrek dokean jokatu zituzten behin, Arrasateko lur batzuk. Gaur egun ikus dezakegun frontoia 1900 urterako bageneukan, handiek eta txikiek urtetan zehar jolaserako erabili duten lekua. PERI delakoak ezartzen dituen arauak ere kontutan eduki behar izan dituzte frontoiaren egitura diseinatzeko orduan; eta azkenik, AUKEA kirol erakundeak ezarritako baldintzak ere, kontutan edukitzekoak izan dira. Azken baldintza hauek, hiru mailatan banatuta izan dira: oinarrizkoak, hau da, frontoiak arauzkoa izateko behar dituen neurriak; interesgarriak eta gomendagarriak. Hauetatik bete behar-beharrezkoak oinarrizkoak izan dira.

Premisa hauek oinarri gisa izanik, Alberto Pombo, J. I. Linazasoro eta J. M. Toledo arkitektoek beren lanak aurkeztu dituzte. Lan hauek hilabete honen 18 arte Monterroneko kultur etxean ikusi ahal izango ditugu.

Pombok "pilotaren katedrala eta pilotari-fabrika izatea dira proiektu honek elkartu nahi dituen bi munduak" hitzekin definitzen du bere proiektua, berau egiteko 206 milioi pezetatako aurrekontua aurkeztu duelarik.

Linazasorok, bere aldetik, "pilotalekua hirigunetzat hartzen da eta ez kanpo aldera itxitako polikiroldegitzat, nahiz eta betetzen dituen barneguneen arauzko baldintzak eta gutxieneko erosotasunak" esanez aurkezten digu proiektua, 167 milioitako aurrekontua prestatu duelarik.

*Zaldibarko frontoia gure historiaren lekuko*

Azkenik Toledok "konponbide arkitektonikoak, kanpo/plaza eta barne/pilotalekuaren arteko oreka osoa lortzen du, beti ere, jatorrizko dimentsio espaziala mantenduz" hitzak esaten dizkigu bere proiektua aurkezterakoan.

*— "Ez dugu pilotaleku profesional bat nahi"*

Guzti honetan inplikaturiko beste erakunde bat Arrasateko Pilota Elkartea da eta bere eritzia garbi azaldu digu.

ARRASATE PRESS 8

**Jon Sarasua**
Urte hartan bertan izen zien 1989xen jokatu biherreko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarako kanporaketak, Antzuolan eta Errenterian, bestiek beste. Danel Goikolea, Felix Iñurritegi, Jon Iñaki Isarzelaia, Arantzazu Loidi eta Aitor Sarasua ez zien klasifikau, eta finalien ordezkari bakarra euki euen Debagoienak: Jon Sarasua (argazkixen).



Zenbaki hartako bitxikerixie: 12. eta 21. orrixek txuri urten euen, eta nahiz eta portadan jarri Arriola udaltzain bertsolarixei entrebistie euela 17. orrialdien, orri hartan Ruper Ordorikari eginddeko entrebistie urten euen eta Arriolarena, barriz, hor nunbait galdu zan, ez euen–eta urten. Juan Luis Azkarate zan orduen periodistetako bat, eta hauxe komentau dau: "Ordenagailuan idatzita zeuden orri batzuk ez ziren inprimatu".

Bide batez, Ruper Ordorikaren entrebistako titularra hau izen zan: "Inoiz esan dut ni rock–a gabe idiota izango nintzatekeela". Eutsi horrei!

**2. zenbakixe** 1988-12-09

# Alde zaharreko hondakin bilketa puntuak zehaztu dituzte

Bilketa urtarrilean jarriko dute martxan, baina oraindik ez dago data zehatzik

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

2003a ezkero alde zaharreko hirigune historikoa kultura ondasun gisa izendatua dagoenez eta gune horretako kaleak estuak direnez, herriko erdiguneko kaleetan ez da zintzilikariorik egongo. Horren ordez, bilketa guneak lokaletan eta propio prestatutako espazioetan jarriko dituzte.

Aurreko osoko bilkuran Jaione Isazelaia alkateak zehaztu zuen moduan, "horrekin jendearen erosotasuna" bermatu nahi dute. Osoko bilkura berean gobernu taldeak argitu zuen ez dela osasunerako arazorik egongo eta Udalak bere gain hartuko duela lokal horiek zaintzeko ardura.

Udalak oraindik ez du eman hondakinen bilketa sistema berria indarrean jartzeko data zehatzik, baina, arduradunek aipatu dutenez, Gabon ostean martxan jarri nahi dute, urtarrilean zehar.

**Erdiguneko lokalak**

Era askotariko lokaletan egingo da bilketa; horregatik, egokitzapen lanak hainbat fasetan daude. Arreseko karkaba, adibidez, dagoeneko prest dago eta San Pedroko gunean eta Ikerlekuko bilketa puntuetan lan batzuk egingo dira lekua egokitzeko eta horien barruan zintzilikarioak jartzeko.

Karkaba eta lokalak erabiliko dituzten bizilagunei beren giltza emango diete haietara sartu ahal izateko. Giltzak prest daudenean, Udala bizilagunekin harremanetan jarriko da giltza jaso dezaten.

## ALDE ZAHARREKO BILKETA PUNTUAK

**ARRESE ZEHARBIDEKO KARKABA**

**Barrenkaleko** 12, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 21, 23, 30, 32 eta 34. zenbakiak

**ARTEKALEKO LOKALA**

**Barrenkaleko** 20, 22, 24, 25, 26, 27, 29 eta 31. zenbakiak.

**Artekaleko** 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 25, 27 eta 29. zenbakiak.

**Arruriaga kaleko** 2. zenbakia.

**BUDIÑATE**

**Barrenkaleko** 33, 35, 36, 38, 40, 42 eta 44. zenbakiak

**ARRURIAGA**

**Arruriaga kaleko** 1, 3, 5, 7, 9, 11, 13, 4, 6, 8, 10, 12, 14 eta 16. zenbakiak.

**SAN PEDRO GUNEA (LAUDANTZ ZEHARBIDEA)**

**Artekaleko** 1, 3, 5, 2, 4 eta 6. zenbakiak.

**Goenkaleko** 1, 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 22, 2, 4 eta 6. zenbakiak.

**Gazte lokakak**.

**UNED-EKO LOKALA**

**Barrenkaleko** 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, eta 13. zenbakiak.

**San Martin plazako** 5. zenbakia.

**MIZPILDI 1EKO LOKALA**

**Mizpildi eta San Pedro kaleko bizilagunak.**

**BIDEGURUTZETA**

**Bidegurutzeta kaleko** 25, 27, 29, 31, 34, 36, 38, 40, 42, 44 eta 46. zenbakiak.

**RAMON MARIA LILI**

**Ramon Maria Lili kaleko** 2. zenbakia.

**Bidegurutzeta kaleko** 15, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 26, 28, 30 eta 32. zenbakiak.

**San Pedro kaleko** 24 eta 25. zenbakiak.

**IKERLEKU**

**Komenio kaleko** 2 eta 4. zenbakiak.

**San Martin kaelko** 2 eta 3. zenbakiak.

**Bidegurutzeta kaleko** 3, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 13A, 14, 16 eta 18. zenbakiak.



Arrrese karkaban dagoen lokala. | IMANOL GALLEGO

# 'Bergara.net' webgune berria estreinatu du Udalal, irisgarrriagoa

**I.G.** | BERGARA

Plataforma modernoa sortu da, intuitiboagoa, erabilgarriagoa eta eduki berriekin. Helburua herriko egoera argia eskaintzea da; udal zerbitzuak, kultura, ekitaldiak... eskaintzea. Azken finean, Bergarari buruz interesgarria izan daitekeen guztiaren berri ematea.

Orain arte bezala, *Bergara.net* helbidean ikus daitekeen webgunea ataletan banatuta dago eta udalerriaren informazio osoa biltzen du. Bertan nabarmentzekoak dira Udalari eta bere zerbitzuei buruzko informazioa, eta baita udalerriko baliabide turistikoak.

Herritarren eskura daude jada izapide telematikoak eguneko 24 orduetan eta asteko zazpi egunetan. Izapideok udaletxeko ateak zabaltzen dituzte webgunearen bidez, aldi berean bideratze telematikoa ahalbidetuta eta herritarren eta administrazioaren arteko harremana estututa. Bergararrek nahi duten leku eta momentuan egin ahal izango dituzte haien kudeaketak, denbora eta esfortzua aurreztuta eta, ondorioz, haien bizi-kalitatea hobetuta.

**Sare sozialen presentzia**

Webgune berria irisgarriagoa eta zuzenagoa denez, sare sozialek presentzia handiagoa dute. Lehen orrialdean Twitterrek leiho propioa dauka, eta gainontzeko sare sozialek ere badaukate tokia: Pinterest, Facebook, Youtube...

Diseinu berriari esker, ordegailuan ez ezik, webgune berria telefono mugikorren bidez kontsultatu ahal izango da.




Dagoeneko webgune berria martxan dago. | GOIENA

# Aranzadi ikastolak Caritasen aldeko jostailu bilketa egingo du

Zapatuan, 11:00etan, San Martin plazan batuko dituzte eskolako materiala eta jostailuak

**I.G.** | BERGARA

Aurtengo Gabonak, dudarik gabe, bereziak izango dira. Olentzerok urte osoan lan handia egin arren, laguntza estra beharko du eta lan horri ekingo diote zapatuan Aranzadiko Ikastolakoek.

Ikasleekin lantzen dituzten eskubide, betebehar eta arduren gaiarekin lotuta, eman, hartu, elkartasuna, beste errealitate batzuen ikuspegia... lantzeko Gabonetan elkartasun kanpaina egiten dute ikastolan, herri osoari zabalduta.

Aurten, zapatu honetan, abenduaren 14an, 11:00etatik aurrera, San Martin plazan, jostailu eta eskola material bilketa egingo dute –koaderno, arkatz, margo, liburu...

**Bilketa berezia**

Jostailu bilketa bat baino gehiago da zapatukoa, elkartasun ekimen bat izateaz gain, gazteak eurengandik gertu dauden beste egoera batzuekin sentsibilizatzeko unea ere izango da-eta. Horretarako, gurasoen laguntza ere premiazkoa da, edozerk ez du-eta balio: "Izorratutako jostailuek edo piezak faltan dituztenek ez dute balio...".

Balio transmisio hori modu eraginkorrean egiteko, "gazteentzat esanguratsua den jostailu bat behar du izan", azpimarratu dute Aranzaditik.

## Kalabaza erraldoiaren pisu zehatza asmatu du

Azkeneko 30 urteetan bezala, aurten ere Hernandez Bodegoian kalabaza erraldoiaren lehiaketa egin dute. Jende askok hartzen du parte lehiaketa horretan. Aurtengo kalabazak 57,900 kilo pisatzen du eta Unai Aranguren 11 urte gaztetxoak pisu zehatza asmatu du. Argazkian, irabazi duen otarrearekin.



HERNANDEZ BODEGOIA

# Gaur hasiko dira erakusleihoak ikusten Gabonetako lehiaketarako

## Establezimendu guztiak bisitatuko dituzte, ez da beharrezkoa izena ematea

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Gabonak heltzearekin batera, kontsumoa bultzatu eta jendea alaitzeko asmotan, urtero apaintzen dira kaleak nahiz merkataritza-establezimenduak. Askotan, baina, ingurukoen gozagarri izatea baino haragoko saria jaso daiteke, eta horretarako antolatzen dira Gabonetako erakusleiho lehiaketak.

Duela aste batzuk argitaratu ziren aurtengo lehiaketaren oinarriak, merkatariek behar adina denbora izan zezaten euren lokalak apaintzeko. Gaur zuten epemuga merkatariek, gaurtik 2014ko urtarrilaren 7ra bitartean bisitatuko baitituzte erakusleihoak. Herriko merkataritza-establezimenduetako erakusleiho guztietatik pasako dira eta ez da beharrezkoa izan aurrez izena ematea.

**Saltokiko produktuak**

Oinarriak jartzeko garaian, garrantzitsutzat jo zuten merkataritza-establezimenduek dendan saltzen diren ohiko produktuak jartzea erakusleihoetan.

Horrekin batera, "erakusleihoak apaintzeko gorosti, goroldio, erratz eta izei naturala ez erabiltzeko" eskaria jasotzen da oinarrietan. Hala ere, lore haztegi edo loradendetan eskuratutakoak erabiltzea ahalbidetu zuten antolatzaileek.

Erakusleiho onenen sariak emateko garaian, kontuan hartuko dute publizitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna eta eraginkortasuna, erakusleihoaren beraren kalitatearekin batera.

**Hiru sari**

Kultura Batzordeko, Bedelkar Bergarako merkatarien elkarteko eta Beart Bergarako arte elkarteko kideek osatuko dute 2013ko Gabonetako Erakusleiho lehiaketako epaimahaia. Hiru sari egongo dira: erakusleiho onenak 250 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak, berriz, 150 euro. Sariak ez dira dirutan emango, lehiaketaren helburua kontsumoa izanik, Bergarako komertzioetan gastatzeko txartelak banatuko dizkiete irabazleei. Era berean, epaimahaiak "egoki deritzon sariak hutsik uzteko aukera izango du".

Lehiaketak iraun bitartean, urtarrilaren 7a arte, erakusleihoak argiztatuta izateko eskaria egin dute, dendak ixteko ordura arte lanegunetan eta 09:00ak arte jaiegun eta bezperatan.

### Saltokiak apaindu dituzte jada

Bergara Bizi elkartetik herriko merkatari guztiek Gabonetako apaingarri bera jartzeko deia egin dute azken asteetan. Joan den egubakoitzean jarri zituzten apaingarriak lokalen kanpoan zein barruan.

Apaingarri xumea da eta lorontzi bat du oinarrian. Hauek banatzeaz arduratzen direnek azaldu dutenez, 236 apaingarri eskatu dira. Beste hainbat soberan geratu dira, beraz, oraindik ere eskuragarri daude. Ahalik eta azkarren eskatu behar dira.



Gabonetako apaingarria saltoki kanpoan. | BERGARA BIZI

---

**Larraitz Madinabeitia** | Bergarako Gure Esku Dago taldeko kidea

# "Sentsibilitate ezberdinetako jendearen gunea sortu nahi dugu"

- Ekainaren 8ko giza-kateari begira Gure Esku Dago taldea sortu dute
- Heterogeneotasuna dute helburu, adin, gustu, izaera eta ideologian

I.E. | BERGARA

Herritarrek erabakitzeko eskubidea izatea aldarrikatzeko Gure Esku Dago taldeak sortzen ari dira herrietan. Bergaran ere eratu dute eta Larraitz Madinabeitia bertako kide da. Joan den astean egin zuten lehen bilera.

**Zenbat pertsona batu zineten?**

*Gazta Zati bat* dokumentalak sortutako baikortasunarekin, hiru lagun elkartu ginen taldea sortzeko asmotan. Taldearen izaera heterogeneoa bermatzeko, zerrenda bat osatu eta zuzenean jo dugu jendearengana, telefonoz zein kontaktu zuzenaren bidez. Oso harrera ona izan dugu, eta lehen bileran 10 lagun elkartu ginen. Baiezko gehiago jaso ditugu, datozen bileretara hurbiltzeko prest azaldu direnak.

**Zertaz aritu zineten?**

Gure Esku Dago dinamikaren aurkezpen orokorra egin dugu, eta jarraian, Bergaran nola landu daitekeen hausnartu. Ahalik eta herritar gehiagorengana nola heldu pentsatzen aritu gara, sare sendo bat osatu eta taldeari indarra emateko.



Larraitz Madinabeitia. | LARRAITZ MADINABEITIA

**"Talde irekia dela bermatu eta erakutsi nahi dugu ekintza bakoitzean"**

**Nolako taldea osatu nahi duzue?**

Helburu garrantzitsuenetariko bat sentsibilitate desberdineko jendea batzea da, hau da, elkargune bat sortzea. Horregatik, taldearen izaera ahalik eta heterogeneoena izatea nahi dugu, adina, gustuak, izaera eta batez ere, ideologia politikoari dagokionez. Talde guztiz irekia dela bermatu eta erakutsi nahi dugu egindako ekintza bakoitzean.

Aldi berean, kultura, kirola eta alor desberdinetako jendea batzea polita litzateke, antolatuko diren ekintzen aberastasuna bermatzeko.

**Zein helburu du taldeak?**

2014ko ekainaren 8an egingo den giza-katera joateko herritarrak animatu eta berotzeko, eta aldi berean aldarrikatzen den mezua zabaldu eta herritarrak sentsibilizatzeko, ekintza desberdinak antolatu nahiko genituzke. Polita litzake, ekintza hauek, herritar guztientzako erakargarriak eta originalak izatea.

Giza-katea litzateke helburu garrantzitsuena. Gainera, aurten Pentekoste jaietako igandea izanik, egun berezia izan daiteke herritarrentzat. Festa giroa baliatuz, ekimen polita izan daiteke giza-katearena.

**Nola egin daiteke taldeko kide?**

Gurekin harremanetan jarri daiteke honako helbidearen bidez: bergarakogureeskudago@gmail.com. Edo bestela, hurrengo bilera eguna asteartean, abenduaren 10ean, arratsaldeko 19.30tan Bergarako Irizar Jauregian izango da. Inongo konpromisorik gabe, taldearen nondik norakoak ezagutu nahi dituen edozeinentzako bilera irekia izango da.

---

## Tabernak erakusleku ere izango dira abenduan

I.E. | BERGARA

Tabernak askotariko leku izan daitezke eta denbora pasatzeaz gain, norberak bere intereseko gune bihur ditzake. Aste hauetan, adibidez, erakusleku bihurtuko dira, izan ere, hainbat artisten obrak ikusgai egongo dira herriko taberna batzuetan.

Edurne Erañak, adibidez, formatu txikiko sei koadro erakutsiko ditu Dixula tabernan. Horiekin batera, metro koadro bat inguruko azalera duen lana ere jarri du. Paisaia ezberdinak erakusten dituzte Erañaren lanek eta abendu guztian gozatu ahal izango da aurrez-aurre bizi gabeko eremu horietaz.

Horiekin nahikoa ez duenak Hamaika tabernatik egin dezake osteratxoa, gai bera landu baitu Marilu Unzurrunzagak zazpi koadrotan. Hauek ere hilabete bukaera arte egongo dira tabernan.

Raizabal gozotegian asteburu honetan jarri dituzte Aintzane Conde, June Martin eta Markel Martinen bederatzi lan. Urtarrila amaierara arte egongo dira hiruen koadroak Raizabalen.

**Argazki taldearen lanak**

Juan Gonzalezek Pol-Pol tabernan ditu bere lanak ikusgai. Eta, amaitzeko, Bergarako argazki taldeak ere bere lanak herritarren esku jarri ditu Nahikari tabernan.

---

### Bergara Garbiak eskerrak, eurekinnbat egin zuten herritarrei

Bergara Garbia plataformak eskerrak eman dizkie herritarrei "astelehenean kontzentrazioan parte hartu eta balkoietako poltsak udaletxeko plazara eramateagatik". Aldi berean, "Bildu-Aralarrek egoera konpondu nahiko balute ongi etorriak lirateke", adierazi dute. Amaitzeko, jasotako laguntza ekonomikoa eskertu diote bergararrei.

---

### DKT Txartela dutenek berria egin beharko dute Agorrosinen

Agorrosin kiroldegitik jakinarazi dutenez, DKT Txartela ez da automatikoki berrituko, beraz, erabiltzaileek baja emanda dute. Berria egin ahal izateko Agorrosinera jo behar da. Datorren urteko prezioak ezarrita daude: 126,46 euro haurrek, 214,92 edo 258,91 euro helduek eta 392,38 edo 466,62 euro familiek.



Azaroaren 23an Aretxabaletan egin zuten Euskal Herriko boulder txapelketako irudia. | JOSETXO ARANTZABAL

# 14 urtez azpikoen boulder txapelketa egingo dute zapatuan

Oñati eta Aretxabaletako kideen arteko ligaxkako lehen proba izango da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaztetxoen arteko boulder txapelketa egingo dute datorren zapatu goizean, abenduak 14, Zubikoa kiroldegiko rokodromoan. Aloña Mendiko eskalada eskolak antolatu du, Debagoieneko eskalada eskolarekin batera.

**Ligaxka**

Horrela, Oñatiko, Aretxabaletako eta Arrasateko eskalada eskoletako gaztetxoak hartuko dute parte txapelketa honetan, denak 14 urte azpikoak.

"Asmoa izan da ligaxka bat antolatzea. Lehen proba zapatuan izango da Oñatin, eta bigarrena hilaren 20an izango da Aretxabaletako Ibarra kiroldegiko rokodromoan", argitu du Jon Agirrek, Oñatiko eskalada eskolako irakasleetako bat. Beste irakaslea Ruper Aiala da. Zapatu goizeko proba Zubikoako rokodromoan jokatuko dute. "Sei eta 14 urte arteko gaztetxoak izango dira parte hartuko dutenak eta hiru kategoriatan banatuko ditugu. Bakoitzak ordu bat izango du proba gainditzeko, eta bost bloke jarriko dizkiogu", azaldu du Agirrek. "Rokodromo barruan egingo dugun boulder txapelketa izango da, hau da, altura txikian eta koltxoneta gainean", zehaztu du.

Lehenengoz antolatu dute txapelketa. Joan den urtetik dator ideia. "Iaz Aretxabaletan egin zuten, Debagoieneko eskalada eskolak antolatuta, eta ikustera joateko esan ziguten. 20 bat lagun joan ginen ikustera eta gustatu zitzaigun. Hemengo gaztetxoei galdetu genien ea horrelako txapelketarik egitea gustatuko litzaiekeen, eta baietz erantzun zuten. Horrela, Sergio Maiztegi oñatiarra eta Debagoieneko eskalada eskolako ardura duen Joxean Mulas harremanetan jarri ziren eta elkarrekin jarri zuten martxan txapelketa hau", dio Agirrek.

**37 gaztetxo Oñatin**

2012ko urtarrilean sortu zen eskalada eskola Oñatin. Eta erantzun ona izan du. "Sei eta 14 urte arteko 37 gaztetxo ditugu egun, lau taldetan banatuta. Urtero betetzen dira plazak eta askok jarraipena eman diote", kontatu du Jon Agirre oñatiarrak.

Martitzenetan eta eguenetan izaten dira eskalada eskolak Zubikoako rokodromoan, astean behin, 17:00etatik 20:00etara.

NIRE USTEZ



AMAIA MADINA

## Pozteko arrazoi bat!

Pasa den azaroaren 29an, Arrasateko Aita Menni ospitalean, lege psikiatriako lehen unitatea inauguratu zen. Espainiako Estatuan ez dago horrelako beste unitaterik, eta gonbidatu gisa ikusteko ohorea eta aukera izan nuen.

Hamar gaixorentzako tokia dago, eta beraien buruko gaitz larriaren ondorioz, legez kanpoko pisuzko ekintzaz zigortuak izan direnei zuzendua dago unitate hori.

Azpimarratzekoa da bokazio terapeutiko batekin jaio dela, helburu zigortzailearen gainetik. Pertsona hauen birgaitze prozesuan ezinbestekoa baita gaixoak jarraitu behar duen tratamendua.

Izugarri pozten nau orokorrean gure gizartean eta partikularki arlo penitentziarioan ahaztuak izaten diren pertsona hauek benetan dagokien tokian kokatzen hastea. Buruko gaixotasuna duten pertsonendako lekua ez bailitzateke inoiz espetxea izan behar.

Gizarte aurrerakoiagoa den bidean, aurrerapauso bat egitea da Aita Menni ospitaleko apustua, guztionganako beharrei begira, baita ahulenak direnei begirada zuzenduaz.

Eta proiektu hau hemen jaioa da, Euskadin, gure bailaran, Debagoienean. Beraz, badaukagu pozteko arrazoi bat!

Esker onik zintzoenak erakunde guztiei eta bidezko proiektu ausart hau hemen bertan egia bihurtu duten pertsona orori!

**"Bokazio terapeutikoarekin jaio da"**

# Joxean Agirre liburutegira dator lan berriarekin

Etzi etorriko da eta bere aurreko lanaz ere jardungo dute aurkezpenera doazen herritarrek

O.E. | OÑATI

Joxean Agirre idazlea Oñatiko liburutegira dator etzi, eguaztenean. Idatzi duen azken liburua aurkezteko du, *Adiskide bat nuen* izeneko lana.

**Eguaztenean**

Oñatiko Udal liburutegiak gonbidatuta dator Joxean Agirre eguaztenean. "Oso pozik gaude, ez da erraza izaten bera horrelako ekitaldietara ekartzera eta", aitortu du herriko liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarrondok. "Aukera gutxi izaten dira Joxean Agirrerekin egoteko, eta pentsatzen dugu herriko irakurleendako aukera ona izango dela bere azken lanaz galdetzeko eta bestelakoez ere berarekin berba egiteko", jarraitu du.

Fikziozko liburua da Adiskide bat nuen eta klandestinitatea da istorioaren ardatza. Elkar argitaletxearen eskutik argitaratu du eta nolakoa den azalduko du egileak berak eguaztenean, 18:30ean, Udal liburutegian.



Joxean Agirre idazlea. | AMARAUNA.ORG

**Aurreko lanak ere bai**

Bestalde, Tertulixan taldekoek Agirreren *Zwei frauen: bi emakume* izeneko liburua irakurri berri dute, eta liburu horren gaineko solasaldia egiteko aukera ere izango dute idazle azpeitiarrarekin.

# Bertsolari txapelketako finalistak Oñatira datoz

O.E. | OÑATI

Abenduaren 15ean jokatuko da BECen Euskal Herriko bertsolari txapelketa. Zortzi bertsolari izango dira saio horretan, eta zortziak datoz Oñatira urtarrilaren 5ean, egun horretan urtero egin ohi den bertso saiora.

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi dira finalera heldu diren zortzi bertsolariak eta Oñatin izango dira Errege bezperan, Zubikoa kiroldegian egingo den bertso saioan. 22:30ean hasiko da saioa.

Urtarrilaren 5eko bertso saio hori Oñatiko Bertso Eskolak antolatu eta zuzenduko du. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala jokatuko duten bertsolariak arituko dira bertsotan, eta saio berezia izango ei da. Dagoeneko hasi ei dira, gainera, finalistei jarriko dizkieten ariketak zehazten, prestatzen. Saioaren eguna jakinekoa da, urteroko datari eutsiko zaiolako. Sarrerak zenbatetan eta non jarriko dituzten salgai, ordea, zehazteke dago.

# Martuteneko presoendako material bilketa egingo dute aste honetan

O.E. | OÑATI

Martuteneko espetxeko presoendako material bilketa kanpaina egingo du gaurtik zapatura Oñatiko Espetxe Pastoraltzak.

Osasun mentala espetxean da 2013ko Gabonetako kanpainaren leloa eta horren barruan sartzen da aste honetan egingo duten material bilketa.

**Oinetakoak**

Oñatiko Espetxe Pastoraltzak jakinarazi duenez, jantzeko arropak, soinerako erabiliko dituztenak batu gura dituzte. Hauexek dira, hain zuzen, bate ere jaso gura dituzten produktuak: artilezko txanoak, barruko arropa berria bai gizonendako bai emakumeendako, bainurako egokiak diren oinetakoak (41 zenbakitik 44ra), kirola egiteko oinetakoak (gizonendako 41 eta 44 zenbaki artekoak eta emakumeendako 37tik 40ra), galtzerdiak eta azazkalak moztekoak. Horiez gain, beste hauek ere eman daitezke: tabakoa, metxeroak, turroi biguna eta eskutitzendako gutun-azalak eta zigiluak.

Bilketa abenduaren 9tik 13ra egingo dute eta herriko denda hauetan batuko dituzte, 18:00etatik 20:00etara: Garoa, Hirukar, Sillero eta Irizar.

ESKORIATZA

# Udalak krisiari aurre egiteko ekarpenak jaso gura ditu

## Etzirako —eguaztena— batzarra gertatu du eskoriatzarren iritzia ezagutzeko

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Eskoriatzan *Eskohitza* izeneko parte-hartze prozesua jarri dute martxan ostera ere. Etzi, eguaztena, egingo dute horren gaineko lehen batzarra. Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoa dela-eta proposamenak jasotzea da bilkura horren asmoa.

Udaletik azaldu dute amaitzear dagoen urtean 90.000 eurotik gora bideratu dituela eskoriatzarren artean gizarte laguntzak banatzeko eta enplegua sustatzeko. Datorren urteari begira, Udal Gobernua prestatzen dabilen aurrekontuetan partida horiek mantentzeko asmoa izateaz gain, 10.000 euro gehiago jarriko ditu, egungo egoerari aurre egiten laguntzeko.

**Bigarrena, Apotzagan**

Horren bueltan, eskoriatzarren iritziak, ideiak eta proposamenak ezagutu gura ditu, eta gaia aztertzeko batzarra deitu du. Esan bezala, etzi, eguaztena, izango da hori, 18:30ean, herriko kultura etxean. Elizateetara ere helduko da gaia, abenduaren 18an, 19:00etan, Apotzagako elkartean egingo duten bilkura bidez.

Udaletik nabarmendu dute proposamenak askotarikoak izan daitezkeela; baina egoera pertsonalak konpontzera bideratuta daudenak baino, nahiago dutela "komunitatearendako onuragarriak" diren iritziak jasotzea. Eta adibide bat jarri dute: Udalari lokala eskatzea, etxean ditugun produktuak hara eroateko, eta lokala erabiltzen duen beste norbaitekin behar dugun beste produktu batengatik trukatzeko.

Bestalde, batzarrera joan ezin direnek ere parte hartzeko aukera izango dute honako bideak erabilita: proposamena posta elektronikoz bidalita, *eskohitza@eskoriatza.net* helbidera bidalita; *www.eskoriatza.net* webgunean idatzita; gaurtik hilaren 20ra arte, 09:00etatik 14:30era, 943 71 44 07 zenbakira deituta; edo kaleratu den eskuorria bete eta udaletxean, liburutegian edo kiroldegian dauden postontziak erabilita.

Egindako ekarpenak aztertuko ditu eta urtarrilaren bukaeran aurrekontuetan zeintzuk jaso diren jakinaraziko du Udalak.

## Elikagaien Bankuaren aldeko saioa egingo dute

**M.B.** | ESKORIATZA

Eskoriatzan ere Elikagaien Bankuari laguntzeko ekimena gertatu dute. Zapatuan, hilaren 14an, arte martzialen gaineko ikastaroa egingo dute Udal Pilotalekuan, eta dagoeneko zabalik dago horretarako izen-ematea. Interesatuek etzira arte dute aukera (eguaztena), *rafa@carriet.net* postara idatzita edo 627 44 21 42 zenbakira deituta.

Saioa 10:00etan hasiko da eta bi ordu iraungo du. Tarte horretan, *kaisendo hattori, Brasilian jiu jitsu, ju jutsu* eta *kempo* modalitateak praktikatuko dituzte, irakasle ezagunen eskutik. Elikagaien Bankuaren aldeko ekimena denez, ikastarora joaten direnei galkorrak ez diren elikagaiak eroateko eskatu diete.



Kantxa egunetarako behar dira begiraleak. | GOIENA

## Zabalik dago Gabonetako parkean begirale izateko izen-ematea

**M.B.** | ESKORIATZA

Egubakoitza, hilak 13, baino lehen aurkeztu behar dira Gabonetako parkean begirale moduan lan egiteko eskaerak, ohiko bideak erabilita: kultura etxera joanda, *gazteria@eskoriatza.net* helbidera mezua bidalita edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta.

Aurten, abenduaren 26tik 29ra egingo dute Gabonetako parkea; lehenengo bi egunetan kantxan izango da, eta han jarriko diren puzgarri eta tailerretarako begiraleak behar dira.

Begirale izan gura dutenek, 18 urte beteak izatearekin batera, euskaraz jakin behar dute. Aukeraketa egiterakoan baloratuko dute haurrekin esperientzia izatea, eta baita eskulanak egiten jakitea ere.

### OHARRAK

**ORRI PUNTUEN LEHIAKETA**
Gaur, astelehena, amaitzen da datorren urtean liburutegian erabiliko den orri-puntua aurkezteko epea. Lehiaketa irabazten duenak 250 euroko saria jasoko du.

**IKASTAROA**
Gaur hasiko da etxean konponketak egiten ikasteko ikastaroa. Saioak Aretxabaletako Lanbide Eskolan dira, 16:00etatik 20:00etara.

**TAILERRA**
Ekolorek antolatuta, birziklatutako materialarekin altzariak egiteko tailerra dago etzi, 18:30etik 20:30era, Ibarraundin. Aurretik eman behar da izena museoan bertan. Debalde da tailerra.

**LUDOTEKA**
Ekintza berezia dute eguenean Tortolis ludotekan: Gabonetako apaingarriak egingo dituzte, eta ludoteka ere apainduko dute. 18:00etan hasiko da ekimena.

ARETXABALETA

## Udazken Jaia eta Euskararen Eguna, Kurtzebarrin

Aretxabaletako Kurtzebarrikoek Balioen Astea egin zuten, eta, horri amaiera emateko, eguaztenean Udazken Jaia izan zuten Iturrigorrin. Txalapartariak egon ziren, ikasleek irrintziak bota zituzten, bertsoak kantatu eta dantza egin zuten eta gaztainak jan zituzten. Bestalde, Euskararen Eguna ere ospatu zuten, ondoko irudian ikusten denez.



KURTZEBARRI ESKOLA

### NIRE USTEZ

**JOKIN MERINO**



## Ikasle, altxa, hasi da iraultza!

Azaroaren 28an behin betiko onartu zen Kongresuan LOMCE delakoa, PPren aldeko botoekin bakarrik. Hezkuntza komunitate guztiari, eta oro har gizartearen gehiengoari, bizkarra emanez pasa zuen arrabola (legegintzaldi honetan sarritan ikusi duguna), legearen izaera antidemokratikoa agerian utziz.

Ezin dugu ahaztu gainera, hezkuntza kalitatea "hobetzeko" borondatea duen erreforma hau ematen dela, baliabideen murrizketa-sarraski ikaragarriak egin dituzten bitartean. Paradoxikoa, gutxienez.

Legea aztertuz gero, begibistakoa da honen bokazio merkantilista, hezkuntza interes ekonomizisten pean laga eta merkatuarentzat probetxuzkoak ez diren edukiak curriculumetik ezabatuko dira eta. Halaber, guztiz atzerakoia den sistema batera garamatza.

Alabaina, erreforma hau ez da ministro harroputz baten kapritxoa izan; elite politiko eta ekonomikoen proiektu ideologiko oso baten gauzatzearen baitan ulertu behar dugu. Gizarte ereduaren eraldaketa honetan, Espainiar estatuari Europako "txerria" (PIIGS) izatea egokitu zaiola behin onartzerakoan... Zertarako gizarte hobeagoa eraikitzen lagunduko duten hiritar kritikoak trebatzera bideratutako hezkuntza-sistema bat? Akaso beharrezkoa al da edozein hoteleko harreragile lanean edota diskoteka baten kubatak zerbitzatzen amaitzeko?

Guzti honi planto egiteko betekizunarekin konplitu behar dugu guztiok; baina gazteriara zuzentzen naiz bereziki. Izan ere, Salvador Allendek Guadalajaran ikasleei eskainitako berbak gogora ekarriz, gure erantzukizun historikoa aldaketa prozesuen faktore dinamikoa izatean datza. Beraz... Ikasle altxa, hasi da iraultza!

ARETXABALETA

## Giza Eskubideen egunean omenaldia, eta Basotxok barikuan

Bi omenaldi izango dira aste honetan Aretxabaletan. Lehena bihar, martitzena, Giza Eskubideen Nazioarteko eguna dela-eta, Iturrizar plazan, Udalak antolatuta. Bestetik, egubakoitzean Basotxon, 17:00etan, 90 urte bete dituzten zazpi aretxabaletarrak omenduko dituzte. Dantza, trikitia eta kantua izango dira.

ARAMAIO

# "Epaiketa politikoen" aurka agertu zen Udala, EAJren abstentzioarekin

Euskararen aldeko adierazpena aho batez onartu zen; bestalde, Azkoagako ur fekalen saneamendu lanak 2014a heldu baino lehen amaitu behar dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Azaroaren 29ko osoko bilkuran *Epaiketa politiko gehiagorik ez! Irati libre!* mozioa onartu zuen udalbatzak. Besteak beste, azken urteetan Aramaion bizi izan den Irati Mujika eta harekin batera inputatuta dauden gazteen kasuak artxiba daitezela eta "epaiketa politikorik" egin ez dadila eskatu zuen udalbatzak, eta baita "aniztasun politikoa eta elkartze, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe" errespeta daitezela ere. Bilduk eta Aramaioko Alkartasunak alde bozkatu zuten; EAJ abstenitu egin zen.


Azaroaren 28ko osoko bilkura. | JOKIN BEREZIARTUA

Bestalde, *Arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu* adierazpena aho batez onartu zuten eta honako konpromisoak hartu zituzten, beste batzuen artean: garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragina kontuan hartzea, eta Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean, euskararen alde lanean jarraitzea.

**Azkoagako lanak, amaitzeke**

Osokoan hartutako beste erabaki bat izan zen Azkoaga auzoko ur fekalen saneamendu lanak Obras Publicas Onaindia enpresari esleitzea. Obrak hasita daude eta urtea amaitu baino lehen bukatu beharko dituzte.


ARAMAIOKO UDALA

## Asteon irekiko dute Ametzuko bidea, lur-jausia gertatu ostean

Azaroaren 22an lur-jausia eman zen Ametzura eta Mendixolara doan bidean. Abenduaren 4an hasi ziren errepidea konpontzeko lanak, izan ere, lur-jausia gertatu zenetik itxita egon da bidea; Udalak ahalik eta azkarren zabaltzeko asmoarekin hasi ditu obrak. Konponketa lanokin, lurzorua maila berean jarri eta hormigoia erabiliz finkatu gura dute, eta eguenerako edo egubakoitzerako errepidea berriro ere zabaltzea da Udalaren asmoa.

ANTZUOLA

## Haurrek fruta eta barazkiak jan beharraz tailerra eguaztenean

Amaia Diaz de Monasteriogurenek emango du tailerra; 6 eta 10 urte arteko haurrendako da

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Hitzaldi eta tailerrez beterik dator astea eta eguaztenean etxe gehienetan hainbeste korapilatzen den gai bat izango dute lantzeko: haurrek fruta eta barazkiak jateko beharra.

Amaia Diaz de Monasteriogurenek emango du tailerra eta umeek jolastuz fruta eta barazkiak jateko moduak irakatsiko ditu. Tailerra, baina, ez da gurasoentzat, 6 eta 10 urte arteko haurrentzat baizik. Haiek izango dira zuzenean fruta eta barazkiak jaten ikasiko dutenak; izan ere, egunean bost ale jatea da komenigarria.

Tailerra 17:00etan izango da Olaran etxean eta parte hartu ahal izateko izena eman behar da udaletxean. Horretarako, 943 766 246 telefono zenbakira deitu edo *kultura@antzuola.net* helbidera idatzi behar da.

Diaz de Monasteriogurenek Gabonetan menu osasungarriak eta orekatuak prestatzeko beste tailer bat eskainiko du abenduaren 18an, 18:00etan, Olaranen. Izena udaletxean eman behar da.

**Kontsumorako prestakuntza**

Gaur egingo du Igor Marcos Ingurumen teknikariak *Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan* egitarauko lehen hitzaldia. 17:00etan hasiko da haren jarduna erretiratuen egoitzan.

ELGETA

# Areto futbol txapelketan izena emateko epea zabalik dago 31ra arte

Umeen Gabonetako pilota txapelketarako izen-ematea ere zabalik dago hilaren 12ra arte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Kirol hitzordurik edo txapelketarik ez da faltako datozen asteetan. Urtarrilean abiatuko da herri mailako II. areto futbol txapelketa, eta antolatzaileek abenduaren 31ra arteko epea zabaldu dute talde interesatuek izena emateko. Gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketak jokatuko dira, baldin eta aurkeztutako talde kopuruak horretarako aukera ematen badu. Izen-emateak udaletxean, Bolatoki tabernan edo *denonartian@elgeta.net* helbide elektronikoan egin daitezke.

Umeen Gabonetako pilota txapelketa ere badator, eta parte hartu nahi duten neska-mutikoek hilaren 12ra arteko epea dute Herri Eskolan zein udaletxean izena emateko.

**Marrazki lehiaketa**

Gogoratu behar da, bestalde, liburutegiak marrazki lehiaketa antolatu duela 5-16 urte bitarteko neska-mutikoendako. Gaia da *Non irakurtzen duzu?* eta lanak aurkezteko epea hilaren 13an amaitzen da.

Liburutegiko logoa aukeratzeko lehiaketa ere martxan da. 29 lan aurkeztu dituzte, eta erabiltzaileen botoen bidez aukeratuko dute, orain, onena. Abenduaren 16tik urtarrilaren 17ra egongo dira guztiak ikusgai kultura etxean, eta sarituaren izena urtarrilaren 24an emango dute aditzera.


Emakumezkoen areto futbol txapelketako iazko irabazleak. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

# Trailer bat trabatuta gelditu zen errepidean

JOKIN MUJIKA | LEINTZ GATZAGA

Ez aurrera, ez atzera. Horrelaxe gelditu zen Leintz Gatzaga zeharkatzen duen errepidean kamioi bat, trailer bat, egun goizean. Ez da gertatzen den lehenengo aldia, eta, kamioiek hortik pasatzea debekatuta dutenez, Ertzaintzak isuna jarri zion gidariari.

Goiz osoa egon zen Leintz Gatzagara heltzerakoan dauden bi semaforoen artean trabatuta, eta zirkulazioa eten zuten tarte horretan. Goiko semaforora heldu aurreko bihurgunean sartu zuen aurreko aldea, baina bide erdian geratu zen, luzeegia zen-eta handik pasatzeko.

Errepidea 13:45ean zabaldu zuten berriro, gertakaria konpondu eta gero. Kamioiak arazorik gabe bidea jarraitu zuela jakinarazi zuen Segurtasun Sailak.



Kamioia, errepidean trabatuta. | ANDER LARRAÑAGA

# Goiena Klubeko abenduko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**




Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

## Play Station 3a

**Arrasateko Eroski hipermerkatuak emandako Play Station 3a**
Parte hartzeko sariaren izena:Play Station



Debagoiena BASERRI SAREA Auzolanean Zurekin

**Otarra**
**DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu**
Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea




ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz




PAMIELA argitaletxea

**2 liburu sorta**
**Txorakeriak, Ertzeko zatiak eta Erlea gure sendagile liburuak.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburuak




www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

**Otarrak**
**HARREMAN DENDAri esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman

**PARTE HARTZEKO:**
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** kluba@goiena.com
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

# Aloña, Estalako gotorlekuaren beste biktima bat

- Antzuolak maisuki erabili zituen bere ohiko armak
- Oñatiarrek, hobeto hasi arren, behera egin zuten gero
- Kanpoan hotz, baina zelai barruan giroa bero-bero



Bi ateetan izan ziren aukera garbiak zapatuko derbian. Irudian, Antzuolako aurrelari Aitor

**EMAITZA**

ANTZUOLA
**3-1**
ALOÑA MENDI

**FITXA TEKNIKOA**

**Antzuola:** Iturbe, Del Pozo (Zabala), Lete, Longares, Aranbarri, Agirre –Kapitaina–, Ibabe, Godoi, Arana (Zabalo), Zubikarai, Agirre (Linazisoro).

**Aloña Mendi:** Aginagalde, Zelaia, Olalde –Kapitaina–, Lazkano, Irizar, Zubia, Juaristi (Uribetxeberria), Moreno, Urkia (Irizar), Ugarte, Lizarra (Bikuña).

**Bestelakoak:** Hotz handia eta derbi bat izateko jende gutxi Estala futbol zelaian.

**JOKIN BEREZIARTUA** | ANTZUOLA

Sailkapenean oso parekatuta zeudela heldu ziren Antzuola (17 puntu) eta Aloña Mendi (19) zapatuko derbira. Sailkapeneko egoeraren isla izan zen neurri handi baten partidua bera, oso parekatua. Aloña Mendi hobeto hasi zen, baina lehiak aurrera egin ahala ezin izan zuten Estalako gotorlekua gainditu. Euren zelaian ederto moldatzen dira Juanina Garairen mutilak, baloia buruz eramaten eta bigarren jokaldiak harrapatzen maisuak.

Gainera, hegaleko sakeak eta korner zein falta jaurtiketak ezin hobeto ateratzen dituzte, eta horrek arriskua esan gura du aurkariaren arean. Estala gotorleku dute antzuolarrek eta talde onenak ere ondo sufritzera kondenatuta daude.

**Ondo izerditutako garaipena**

Intentsitate handiko derbia izan zen. Oñatiarrak jarri ziren aurretik Mikel Urkiaren falta jaurtiketa bati esker: hesiak desbideratu zuen printzipioz arrisku handirik ez zuen jaurtiketa eta Iturbe atezainak ezin izan zuen ezer egin (0-1). Aloña Mendik beste aukera on bat izan zuen bigarrena egin eta aldea zabaltzeko, baina Andoni Azkargortaren mutilak, beste behin ere, ez ziren fin ibili ate aurrean. Azken pasean, kontrolean edota errematean, oro har, ez zuten asmatu. Pixkanaka Antzuola lekua hartzen joan zen, eta Aitor Godoiren abisu baten ostean –bakarbakarrik geratu zen atezainaren aurrean–, Ander Aranaren gol ikusgarria heldu zen: hegaleko sake batetik hasitako jokaldia ezin hobeto amaitu zuen aurrelari antzuolarrak, bi aldiz pentsatu barik egindako area kanpoko jaurtiketa batekin. Lehen zatiko azken minutuetan bigarrena egiteko aukera izan zuen Aranak baina ez zuen asmatu; Aloña Mendiko Gaizka Zelaia atzelariak ere izan zuen aukera ona bat erasora ederto gehitu zen jokaldi baten, baina larregi gurutzatu zuen baloia. Lehen zatia hobeto amaitu zuen Antzuolak.

Bigarren zatian ere hobeto hasi ziren etxekoak eta 4. minutuan hegaleko sake baten ostean –beste behin– Ibabek buruz egin zuen 2-1ekoa. Handik hiru minutu eskasera Zubikaraik sekulako gola egin zuen ia zelai erditik, beste maila bat duela berretsiz (3-1). Hortik aurrera saiatu zen Aloña Mendi baina ez zuen partiduan sartuko zuen gola egiterik lortu. Amaieran, merezitako garaipena Antzuolarendako.



Antzuolak zapatuan zelairatu zuen hamaikakoa. | IMANOL SORIANO

**JULEN ARANBARRI** | ANTZUOLAKO JOKALARIA

## "Izan dituzte aukerak baina ez dituzte aprobetxatu, horrelakoa da futbola"



J.B.

Antzuolako jokalari arrasatearrak ez zuen egunik onena izan, baina amaieran pozik zegoen taldeak garaipena lortu zuelako.

**Futbol zelai barrutik nola ikusi duzu partidua?**

Aloña Mendi lehen zatian hobeto hasi da, gu baino gehiago estutu dute. Guk pixkanaka erritmoa hartu dugu eta berdintzea lortu dugu. Lehen zatia ondo amaitu dugu eta aldageletan dinamika horri eusteaz egin dugu berba, horrela jarraitzeaz. Indartsu irten gara bigarren zatian, eta gola goiz egin dugu. Esango nuke horrek asko baldintzatu duela azken emaitza. Gero hirugarrena heldu eta errazagoa izan da dena. Eurek izan dituzte aukerak baina ez dituzte aprobetxatu; horrelakoa da futbola.

**Estalan badakizue nola jokatu.**

Bai, gu ohituta gaude hemen jokatzera. Oñatiko futbol zelaia ere nahiko txikia da baina ez horren txikia. Guk Estalan argi dugu zer egin, eta hori ondo egin ezkero, normalean hiru puntuak etxean geratzen dira.

25 | PILOTA | Santamasetako txapelketa Arrasaten



Godoi, Mikel Aginagalde atezainaren aurrean; ez zuen gola egitea lortu. | IMANOL SORIANO



Aloña Mendik zapatuan Estalan zelairatu zuen hamaikakoa. | IMANOL SORIANO

**ASIER UGARTE** | ALOÑA MENDIKO JOKALARIA

## "Apur bat makal aritu garela aprobetxatu dute partiduari buelta emateko"



J.B.

Aurrelari oñatiarra ez zegoen gustura taldearen lanarekin, nahiz eta Antzuola baino hobeto hasi.

**Nola joan da partidua?**
Oso ondo hasi gara eta zorte apur batekin gola egin dugu. Beste aukera bat ere izan dugu aldea zabaltzeko, baina gero eurak oso indartsu hasi dira. Oso ondo dakite futbol zelai honetan jokatzen; aste barruan saiatu gara beste era batera entrenatzen baina oso gogor aritu dira, oso motibatuta. Zelai ezberdin bat da, zaila. Hori eta gu apur bat makal aritu garela aprobetxatu dute partiduari buelta emateko. Berdinketa lortu dute lehen zatian eta bigarren zatian oso indartsu irten dira. Gu, berriz, apur bat lo irten gara; saiatu gara, baina ez da posible izan.

**Intentsitaterik ez da falta izan.**
Ez. Bagenekien, derbiak dira: txoke eta falta asko eta zarata handia. Epailearen aurkako protestak ere asko, baina badakigu nolakoak izaten diren horrelako partiduak.

OHOREZKO ERREGIONALA

# Bergarak berdinketa baliotsua lortu zuen; UDAk, ordea, berriro ere galdu

J.B. | ARRASATE

Bergarak bana berdindu zuen atzo Azkoitiko Txerloia futbol zelaian, bigarren doan Anaitasunaren aurka: "Puntako talde bat da, oso pozik gaude emaitzarekin. Berdinketa justua izan zela esango nuke, ez zen-eta aukera handiko partidua izan. Intentsitate handiko eta zelai erdikoa jokoa izan ziren nagusi", esan digu Aitor Arrate entrenatzaileak. 1-0 galtzen hasi ziren bergararrak, baina gutxira Markel Ilzarbek banakoa egin zuen, sakonean jasotako baloia bat ondo aprobetxatuz.

**UDAk, akats puntualak**

UDAk galdu egin zuen berriro eta egubakoitzeko partiduan ere akats puntualak izan ziren porrotaren gakoa: "70 minututan zehar aurpegia eman genuen Berio moduko talde baten aurrean. Akats puntualek asko baldintzatzen digute baina emaitza negatibo orori alde positiboa atera behar zaio; nik aldaketa igarri dut eta jokalari batzuen jarrera oso ona izan da. Estrategian, adibidez, asko hobetu dugu", uste du Igor Arenatza, Gorka Valle entrenatzaile berriaren laguntzaileak.



JOSETXO ARANTZABAL

ERREGIONAL PREFERENTEA

# Bi puntu azken unean galdu (1-1)

Mondrak Amaikak Bat jaso zuen atzo Mojategin. Iker Lopezek gola egin zuen etxekoendako baina atsedenaldira heldu aurretik Iker Pavon egotzi zuen epaileak, eta horrek bigarren zatia baldintzatu zuen. Fin aritu ziren defentsan arrasatearrak, jarrera onarekin, baina kanpokoek gola egin zuten deskontuan: "Sentsazioak ez dira onak izan, batez ere lehen zatian", esan zigun Gotzon Urtzelai entrenatzaileak.



JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

# Oiartzun jaun eta jabe Mojategin

Mondrako neskek beste jipoi bat jaso zuten atzo etxean (0-11), Emakumezkoen 2. mailako hirugarrena den Oiartzunen aurka. Fernando Urangaren neskek lehen 20 minutuetan eutsi zioten lehiari eta gero, golak bat bestearen atzetik iritsi ziren, batez ere bigarren zatian. Aurtengoa trantsizio urtea da, baina neskendako "gogorra" izaten ari dela aitortu zigun Andoni Ezkurra laguntzaileak.


Ford Mugarrikoak, Egiaren erasoa geldiarazten. | JOSETXO ARANTZABAL

LEHENENGO MAILA

# Oso partidu berdindua eta orekatua jokatu zuten Ford Mugarrik eta Egiak

- Berdinketaren ondorioz, Pablo Gartziaren mutilek donostiarren aurretik jarraitzen dute
- Barikuan, 23 eta 28 galdu zuten arrasatearrek Zarautzen aurka, Euskadiko Kopan

**EMAITZA**

FORD MUGARRI ARRASATE
**22-22**
EGIA UR-ZALEAK ELKARTEA

**FITXA TEKNIKOA**

**Ford Mugarri Arrasate:** Aranburuzabala, Valle, Alzelai (2), Krutzeta (2), Zuloaga (1), Bernal (5), Zubiaurre (1), Rodriguez (1), Calleja (2), Isasmendi (5), Otegi, Herrero (3), Urrutia, Madinabeitia.

**Egia Ur-Zaleak Elkartea:** Sistiaga, Barandiaran, Galparsoro, Santesteban (1), Bengoetxea, Fidalgo (2), Lopez, Kheireddine (6), Etxabarri (7), Gurutz Artetxe, Zubizarreta (2), Agarrista, Arkaitz Artetxe (4), Royo.

**ANDER LARRAÑAGA** | ARRASATE

Atzokoa izan zen Ford Mugarri Arrasate taldearentzat partidu erabakigarrietako bat: Egia Ur-Zaleak talde donostiarraren aurka jokatu zuen partidua Iturripen eta 22na amaitu zuten. Bi taldeek puntu bana lortu ostean, puntu kopuru berarekin jarraitzen dute, 16 punturekin, hain zuzen ere; nahiz eta arrasatearrak aurretik doazen, gol kopuru altuagoa dutelako.

Aurretik ere egoera berean zeuden bi taldeak, horregatik zen hain garrantzitsua atzoko partidua: galduz gero donostiarrek aurrea hartuko zietelako sailkapenean, bigarren postua Arrasatekoei kenduz.

Oso partidu korapilatsua izan zen atzokoa. Joko berdindua izan zen norgehiagoka guztian zehar; ez zen gol kopuruan alde nabarmenik egon bi taldeen artean. Hasierako minutuak nahiko lasaiak izan ziren: apurka-apurka markagailuan golak gehitzen joan ziren, eta, denborak aurrera egin ahala, tentsioa arnas zitekeen. 14 eta 13 emaitzarekin joan ziren atsedenaldira lehenengo zatia amaituta, eta 22 golekin berdinduta zeudela amaitu zen partidua. Azkenengo minutuak izan ziren gogorrenak eta erabakigarrienak: Donostiakoak aurretik zihoazela gol baten aldearekin, bailarako taldeak aurrea hartzen jakin zuen, ikusle debagoiendarren pozerako.

Orokorrean, oso joko polita eta bizia egin zuten bi taldeek eta ez zen partidu samurra izan inorentzako: bistakoa izan zen eraso jokaldietan oinarritu zituztela euren taktikak.

**Zarauztarren aurrean, porrota**

Atzokoaz gain, beste hitzordu bat ere izan zuten Pablo Gartziaren mutilek, egubakoitzean: Euskadiko Kopan, Zarauzko Amenabar ZKE taldearen aurka jokatu zuten Iturripen. Hau, aldiz, ez zen partidu atsegina izan etxekoentzat, 23 eta 28 galdu zuten-eta, tamalez.

Hala ere, kontuan izatekoa da zarauztarren taldea Ohorezko B mailan jokatzen duen taldea dela; Ford Mugarri baino goragoko mailan.

**Asteon, azkenengoen aurka**

Aste honetan izango da eskubaloi ligako 2013ko azken jardunaldia eta talde arrasatearrari kanpoan jokatzea tokatzen zaio; Getxora joango da Erromoko Eskubaloia taldearen aurka jokatzera, zapatuan, hilaren 14an.

Nahiz eta kanpoan jokatu, ez dute oso zail izango Arrasatekoek, printzipioz, talde getxoztarra menderatzea: izan ere, azken postuan doa Getxo sailkapenean, puntu bakarra eskuratuta.

**KEPA ISASMENDI** | FORD MUGARRIKO JOKALARIA

## "Gaurko norgehiagoka irabazteko asmoarekin atera gara kantxara"


ANDER LARRAÑAGA

Asteburu gogorra izan da Ford Mugarrikoentzako. Bi partidu jokatu eta, esan bezala, porrota eta berdinketa izan dituzte. Atzoko norgehiagokan bost gol sartu eta gero, hala egin zigun talde arrasatearreko Kepa Isasmendik balorazioa.

**Nola joan da partidua?**
Argazki orokor bat eginda, partidu oso orekatua izan dela esango nuke; sailkapenak dioen bezala; gu bigarren goaz eta eurak hirugarren, puntu kopuru berarekin. Nik uste dut egon direla zati batzuk eurek hobeto jokatu dutenak eta beste batzuk gu hobeto ibili garenak. Gol gutxiren aldearekin ibili gara bi taldeak partidu osoan; gol bat edo biren aldearekin soilik. Azkenean, denbora gutxigatik, baina partidua berdinduta amaitu dugu.

**Berdinketarekin konforme?**
Emaitzarekin pozik gaudela esan daiteke; hala ere, hasiera batean, gure intentzioa irabaztea zen gaur. Etxean jokatzen genuen aurtengo azkenengo norgehiagoka izan da eta irabazteko asmoarekin irten gara kantxara. Ondoren, bistakoa izan da partiduak beste kolore bat hartu duela; agian intentsitate falta izan dugu.

**Zergatik izan dela uste duzu?**
Ez dakit. Gabonak ere gertu daude, eta apur bat nekatuta gaude; guztiok dugu oporren beharra. Hala ere, bukaerako berdinketarekin nahiko pozik gaude.

SANTAMAS TXAPELKETA

# Arrasateko umeek ere laster dute euren pilota finala

## Egubakoitzean ligaxka amaituta, finalerdiak izango dituzte asteburuan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Praka zuriak eta kamiseta gisakoa; jantzi eta frontoira, jokatzera. Astean zeharreko lagun arteko pilotakadek, egubakoitzetakoei ematen diete paso; pilotakadak, baina gogo gehiagoz emanak. Irabazi edo galdu aukeran egonda, nahiago irabaztea-eta. Normala. Baina galduz gero ere ez da ezer gertatzen, hurrengoan izango da.

Egubakoitzean jokatu zituzten Arrasateko Uarkape frontoian Santamas txapelketako ligaxkako azken norgehiagokak. Bost eta hamabi urte arteko 60 bat mutikok jokatu dute ligaxka azken hilabetean, kategoria desberdinetan, eta aurrera jarraitzeko txartela lortu dutenek datozen bi asteetan jokatuko dituzte finalerdiak eta finalak –abenduaren 20an, 19:15ean hasita–.



Egubakoitzean lehian ibili ziren pilotariak. | IMANOL SORIANO

**Neskarik ez**

Hogei partidu inguru jokatu zituzten egubakoitzean ligaxkako azken saioan; ohi bezala, bi norgehiagoka aldi berean, bat aurrean eta bestea errebotean. Gurasoen eta pilotari lagunen begiradapean, ahalik eta ondoen egin gura. Intentzio osoa jartzen zioten mutikoek.

Oraindik adin hauetan, ez dituzte hainbeste aukera izaten zuriz jantzi eta txapelketak jokatzeko; herrian San Juan jaietakoa izaten da bestea. Egun bereziak txikientzako; mutikoentzako. Ze denak dira mutikoak: "Neskarik ez dugu bat ere: ea animatzen diren", zioen Ibai Bolinagak, pilota eskolako arduradun ibiltzen denak.



Atzeko horman. | I.S.



Mutikoa pilotari ematera. | I.S.

**IBAI BOLINAGA**
PILOTA ESKOLAKOA

### "Serio hartzen dute oso; galduz gero haserre, irabaziz gero, berriz, pozik"



J.I.

Pilotari izateaz gain, Arrasateko pilota eskolako umeekin ere ibiltzen da Bolinaga.

**Berezia izango da umeontzat zuriz jantzi eta txapelketa honetan jokatzea.**

Oso gustura etortzen dira. Nahikoa giro ona sortzen da hemen, eta deseatzen egoten dira egubakoitza iritsi eta jokatzeko.

**Urduri egoten al dira?**

Bai, bai. Oso serio hartzen dute. Galduz gero haserretu, eta irabaziz gero pozik. Baina momentua izaten da; denek jarraitzen dute lagun izaten.

**Ikusten da alderik besterik gabe jokatzera datozenetik txapelketako partiduotara?**

Bai. Egubakoitzetan gogo gehiagorekin ibiltzen dira. Urduriago egoten dira, baina hobeto jokatzen dute txapelketa egunetan. Izan daiteke urduritasunak traizionatzea ere, baina normalean alderantziz izaten da.

**Inportanteena ez da, baina badaude mutiko politak?**

Ez, ez da inportanteena. Helburua da ondo pasatzea, gustura ibili daitezela eta aisialdirako beste aukera bat izan dezatela. Baina bai, badira batzuk nabarmentzen direnak.

**Ea jarraitzen duten gero.**

Bai. Bakarkako kirola izanda gogorragoa da. Baina gustura ari badira orain, batzuek behintzat jarraituko dute gero.



IMANOL SORIANO

GIPUZKOAKO TXAP.

## Hirutik bi partidu Bergararentzat

Gipuzkoako Txapelketan, infantil mailako hiru partidu jokatu ziren egubakoitzean Bergarako frontoian. Zizurkil eta Lazkaoren kontra irabazi egin zuten etxekoek, eta Aloña Mendiko ordezkariaren kontra galdu. Bestetik, Gabon Sarian, Eneko Muguruzak 18 eta 13 irabazi zion Beñat Iñarrari, eta Jon Perezek 18 eta 10 Aritz Rezustari.

GABONETAKO SARIKETAK

## Ume eta gazteen txapelketak izango dira Debagoieneko hainbat herritan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Arrasaten Santamas txapelketa amaitu –finalak hilaren 20an, 19:15ean– eta hurrengo egunean, Gipuzkoako gazte mailako txapelketako finalak jokatuko dira Uarkapen, 10:30ean hasita. Oso litekeena da, gainera, final horietako batean etxeko bikote bat egotea. Izan ere, finalerdietarako sailkatuta daude Garate eta Egia arrasatearrak; datorren astean jokatuko dute, beste multzoko bigarren bikote onenaren kontra –eurak lehenengo geratu dira eurenean–, eta partidua aurrera atera ezkero euren zaleen aurrean jokatu ahal izango dute txapelketako azkena.

Hori Arrasaten. Arrasaten eta bailarako beste hainbat herritan –Aramaion, Oñatin eta Antzuolan–, berriz, Gabon Kopako partiduak izango dituzte gaztetxoek abenduaren 23an hasi eta 28ra bitartean. Txapelketako finalak Urtezahar egunez jokatuko dira, Oñatin, 10:00etatik aurrera.

Bergaran, ostera, egun bat lehenago izango dira Gabon Sariko finalak, 16:00etan hasita. Ohi bezala, barru jokoa egingo dute, gainera, finalen aurretik. Elgetan, azkenik, hilaren 12a arteko epea dute apuntatzeko Gabonetako txapelketan parte hartu nahi dutenek; udaletxean edo eskolan.



Final eta finalaurrekoetako parte-hartzaileak, txapelketako sari banaketan. | IMANOL SORIANO



Ansoategi, Marcos eta Guerra, txapelketako azken partiduan. | IMANOL SORIANO

FRONTENISA

# Lagun arteko giro aparta izan zen Santamasetako II. AKE Frontenis Txapelketan

## Joko oso polita izan zen finalaurrekoetan eta finalean



Finalaurrekoetako bi bikoteak. | I.S.

**ANDER LARRAÑAGA** | ARRASATE

Egubakoitzean jokatu ziren Santamasetako II. AKE Frontenis Txapelketako azken partiduak, Musakolako frontoian. Hamabost bikotek hartu zuten parte txapelketa osoan, baina azken txanpara lau bikote bakarrik iritsi ziren. Hala geratu zen txapelketako azken sailkapena: Cesar Guerra eta Ibai Gonzalez izan ziren garaile; bigarren postua David Marcosek eta Ander Ansoategik eskuratu zuten; jarraian, Asier Markiegi eta Jokin Perez gelditu ziren; eta azkenik, laugarren postua Ekaitz Diez eta Ivan Aialarendako izan zen.

Finalaurrekoak eta finala izan ziren egubakoitzean jokatu ziren partiduak, lehenengo lau postuak erabakitzeko lehian. Lehenengo bi finalerdiak aldi berean jokatu ziren; alde batetik, Diezek eta Aialak Marcos eta Ansoategiren aurka jokatu zuten, eta 30 eta 20 irabazi zuen lehen bikoteak. Bestetik, Guerrak eta Gonzalezek osatutako bikotea emaitza berarekin gailendu zen Markiegi eta Perezen aurka.

Hirugarren posturako lehia jokatu zuten gero aurrekoetan atzean geratu ziren bi bikoteek, eta, 30 eta 27 eginda, Markiegik eta Perezek irabazi zuten. Ondoren, finala jokatu zuten Marcosek eta Ansoategik Guerra eta Gonzalezen aurka, eta azken hauek eskuratu zuten lehenengo postua, 30 eta 25 emaitzarekin.

**Lagun arteko finalak**

Lagun arteko giroan igaro zuten goiza txapelketan parte hartu zutenek. Joko oso polita eskaini zuten jokalariek, eta tanto ikusgarri asko egon ziren. Azpimarratzekoa da aurreko koadroetako jokoa nabarmendu zela gehien bat. Sari banaketa eta gero, luncha izan zuten guztiek, antolakuntzakoek, parte-hartzaileek eta ikusleek.

**DIEGO GALAN** | FRONTENIS TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

### "Datorren urtean berriro ere txapelketa antolatzeko gogoarekin gaude"



I.S.

AKEko Frontenis saileko Diego Galan arrasatearra ibili da aurten lehen aldiz txapelketa hau antolatzen. Eta adierazi duenez oso esperientzia ona izan da.

**Nola ikusi dituzu gaurko partiduak?**

Orokorrean, goiz oso entretenigarria izan da. Partidu oso onak eta mamitsuak izan dira eta giro paregabea izan dugu hemen, Musakolan. Joko nahiko berdindua egin dute bikote guztiek eta lehiak oso politak izan dira ikusteko. Honez gain, hasiera batean espero ez nuen arren, aurreko jokoa gailendu da.

**Nolakoa izan da antolakuntza?**

Gure lehenengo aldia da antolakuntzan, pasa den urtean beste batzuek antolatu zuten-eta. Hasiera batean, jendeak izena ez emateak kezkatzen gintuen; gainera, presa apur batekin ere egin dugu lan. Jendea animatu behar izan dugu mezu elektronikoen bidez, publizitate apur bat eginez. Azkenean, parte-hartzaile nahikotxo egon dira; 15 bikotek eman dute izena. Lan aldetik ez da zaila izan; denbora apur bat eskaini behar zaio soilik. Txapelketa antolatzen lagun izan ditudanen babesa eta inplikazioa jaso ditut. AKEk ere asko lagundu digu; kirol hau apur bat bultzatzea garrantzitsua da. Badago frontenisa asko gustatzen zaion jendea, baina, gero, antolatzera ez da inor animatzen.

**Errepikatzeko asmorik?**

Bai, noski, dena oso ondo irten da. Oso txapelketa ona eta polita da. Jendea oso ongi portatu da, ez da inongo haserrerik egon. Datorren urtean berriro ere txapelketa antolatzeko animoso gaude. Izan ere, beste zerbait egiteko edo antolatzeko aukerarik badago ere, gustura egingo genuke. Oso balorazio positiboa egin dugu antolakuntzatik. Gainera, txapelketan parte hartu dutenak ere oso pertsona onak dira guztiak.

TENISA

# Magallanes, San Migeletako Tenis Txapelketako irabazlea

## Lesio bategatik erretiratu zen Roberto Irizar eta horrek eman zion Magallanesi lehen postua

**ANDER LARRAÑAGA** | OÑATI

Giro bikainean amaitu zen aurtengo San Migeletako Tenis Txapelketa Oñatin. Finalerdietan galdu eta gero, azkenean Eneko Fernandez geratu zen laugarren eta Eneko Ugalde hirugarren. Finalean, AKEko Aitor Magallanesek eraman zuen txapela eta Roberto Irizarrek eskuratu zuen bigarren postua. Izan ere, finalerdietan Irizarrek garaipena lortu zuen Fernandezen aurka, baina lesionatu eta ezin izan zuen Magallanesen aurkako finala jokatu.

**Bi bikote arrasatearrak buru**

Bikoteen arteko finalean AKEko bi bikote lehiatu ziren: Magallanesek eta Fernandezek osatutako bikoteak garaipena lortu zuen Jose eta Julen Etxabe aita-semeen aurka. Ondorioz, arrasatearrak jaun eta jabe Oñatin.



San Migeletako Tenis Txapelketako sarituak. | JESUS KORTABARRIA

**Itxaso Egaña** | Eskubaloi jokalari ohia

# "Momentuz itxi dut eskubaloiaren bidea eta gauzak asko aldatu beharko dira itzultzeko"

- Eskubaloia utzi ostean atletismoari heldu dio, eta triatloi bat egitea du hurrengo erronka
- Bere ibilbidearen errepasoa egin du eta gogo onez oroitzen ditu Aloña Mendi zein Bera Bera

IURE EIZAGIRRE | OÑATI

Duela urtebete utzi zuen eskubaloia Itxaso Egañak (Oñati, 1982), halabeharrak eraginda. Oraingoz itzultzeko asmorik ez badu ere, ez dizkio eskubaloiari ateak guztiz itxi. Gainera Bartzelonako bere egunerokotasuna kirolari lotuta dago eta gaur egun, atletismoarekin eta lasterketa herrikoiekin disfrutatzen du.

**Aurreko urteko azaroan utzi zenuen eskubaloia. Zertan ari zara orain?**
Eskubaloia utzi dut baina korrika egiten hasi naiz berriro, eta lanean ere banabil. Atletismoan hasi naiz baina modu lasaian.

**Zein asmorekin hasi zara berriz atletismoan?**
Beti gustatu izan zait korrika egitea eta nire helburuetako bat hemendik urte batzuetara, edo agian aurten, triatloi bat egitea da. Lasterketa herrikoi dezentetan hartzen dut parte eta kirola alde batera utzi beharrean horretan nabil, baina ez maila profesionalean; orain kirola disfrutatzen dut baina beste era batean.

**Zure eguneroko lana ere kirolarekin lotuta dago, ezta?**
Kiroldegi batean egiten dut lan, monitore moduan. Klaseak ematen dizkiet ume, gazte eta jende nagusiari.

Molins de Rei-ra heldu aurretik kobratu egiten nuen eskubaloian jokatzeagatik, azken hiru urteetan kobratu beharrean lana eman zidaten eta eskubaloia utzi ostean mantendu egin dut lana.

**Jarraitzeko aukera izan arren, iaz utzi egin zenuen eskubaloia. Zergatik utzi zenuen?**
Aurreko urtea nahiko txarra izan zen eta familiarekin egotea lehenetsi nuen. Eskubaloian gustura nenbilen baina konturatu nintzen gauza asko ari nintzela galtzen eta buruak zerbait aldatzeko eskatu zidan. Beste gauza batzuekin ere disfrutatzen hasi behar nuela erabaki nuen.

**Betiko itxi duzu ate hori?**
Oraindik ez dut esaten nire bukaera denik, aurten geldialdi bat egin dut nire lehentasunei eusteko baina ez dakit. Momentuz bide hori itxi dut eta gauzak asko aldatu behar dira itzultzeko. Adibidez, Molinsen bi aldiz igo gara kategoriaz baina diruagatik ezin izan gara mantendu eta ilusioa galtzen zoaz. Beste talde batera joatea izan daiteke bidea baina uste dut gozatu dudala eskubaloian gozatu beharreko dena. Izan daiteke baina oso gauza zaila da.

Jokatzen ez bada, entrenatzen itzul naiteke. Ni kirolari lotuta nago oraindik eta eskubaloian ez den beste zerbaitetan ibil naiteke, gustatuko litzaidake.

**Zure ibilbideari helduta, Oñatiko Aloña Mendin hasi eta Bera Berara joan zinen.**
Bai, jubeniletako azken urtean, senior mailara pasa behar nuenean, fitxatu ninduten Donostiara joateko, 18 urterekin.

**Han hasi zinen profesionaletan.**
Nesken eskubaloia ez da inoiz izan guztiz profesionala -oraindik ere ez da- baina dirua, pisua eta ikasteko aukera eman zizkidaten. Horri esker, nire gurasoek ez zuten dirurik jarri behar eta independentzia apur bat nuen, hortik bizi nintzen.

Momentu hartan 18 urteko bospasei neska joan ginen Bera Berara. Lehen urtean ez ginen goiko taldera igo, hurrengo urterako prestatzen aritu ginen. Hasiera ez zen oso profesionala izan baina urteekin soldatak igotzen joaten dira eta orain arte horretatik bizi ahal izan dut.

**Talde donostiarra izan zen Europan jokatzeko aukera eman zizun bakarra, ezta?**
Bai, EHF Kopan jokatu genuen. Ni egon nintzen urte guztietan sailkatu ginen eta final zortzirenetara heldu ginen. Oso esperientzia polita izan zen, jokalariek beti amesten duten zerbait da: horrelako pista batera joan, hainbeste jenderen aurrean jokatu… Oso giro polita egoten da.

Zirrara sortu zidan esperientzia hark, bizi beharra dago.

**Beste talde batzuetan ere jokatu zenuen Granadan, Santanderren, Tarragonan eta Bartzelonan. Non ibili zinen gusturen?**
Talde bakoitzean gauza ezberdinak egon dira baina ni gusturen Donostian ibili nintzen: ezagutzen nuen hiri batean bizi nintzen, familiaren ondoan, Europan jolastu ahal izan nuen, oso maila altuan eta jende onarekin entrenatuta. Gauza asko ikasi nituen.

Molins de Rein ere gustura ibili nintzen, beste maila batean zegoen taldea eta beti esaten dut igoerako partiduak sekula jokatu gabe nengoela eta gauza horiek ere politak direla. Igoera faseko garai hartan oso ondo nengoen eta asetasun handia izan nuen. Goiko mailan zaudenean ez dituzu gauza horiek baloratzen.

**Une gogorrak ere biziko zenituen hainbeste urteko ibilbidean.**
Adibidez, Iznallozen zazpi hilabete egon ginen kobratu barik eta hori oso gogorra izan zen. Gureak ez dira futbolarien moduko soldatak, jan eta noizbehinka gutiziaren bat edukitzeko moduko soldata irabazten genuen. Ez kobratzeaz gain, baldintzak txarrak ziren, ez genuen zuzendaritzako laguntzarik...

Nik familia gertu nuen eta bidal zezaketen dirua baina kanpoko jende asko zegoen (errumaniarrak, senegaldarrak...) eta ez zuten baliabiderik. Elkarri laguntzu genion eta horrek asko batu gintuen talde modura.



Itxaso Egaña, Bartzelonan. | ITXASO EGAÑA

> **"EHF Kopan jokatzeak zirrara sortu zidan, bizi beharra dago hori"**

> **"Nesken eskubaloia ez da inoiz izan guztiz profesionala, ezta orain ere"**

**Jokalari asko kanpora joaten dira. Zuk aukerarik izan zenuen?**
Ez, pentsatu izan nuen beste liga batzuk probatzea baina ez nuen deirik jaso. Badakit, adibidez, Frantzian eta Norvegian oso ondo zaintzen dituztela jokalariak eta oso baliabide onak dituztela.

Ezberdintasuna nabaria da herrialdeen artean, batez ere profesionaltasunagatik: jokalariek gizarte-segurantza dute, kotizatu egiten dute… Ni 10-11 urtez ibili naiz eskubaloian profesional moduan eta ez dut kotizatu.

**Ibilbide luzea egin duzu baina zure hastapenak Aloña Mendin daude. Zer oroitzen duzu?**
Oso oroitzapen onak ditut. Nire lagunak dira gehienak eta asko nire koadrilako jendea da. Espainiako Txapelketara joan ginen eta hirugarren postua lortu genuen; Oñatitik irteteko lehen aukeretako bat izan zen hura.

Oñati moduko herri bateko taldea hor izatea lana oso ondo egin izanaren seinale da. Aipagarria da Iñaki Cantero entrenatzaileak nesken eskubaloia bultzatu eta maila on batean aritzeko egindako lana. Horregatik izango ez balitz, ni ez nintzateke egun nagoen lekuan egongo.

**Taldek orain ere badu harrobia: egun dituen hamabi taldeetatik zazpi neskenak dira.**
Bai, eskubaloia beti praktikatu izan da asko Oñatin eta ikusten den moduan zaletasunak hor jarraitzen du. Uste dut hori garrantzitsua dela ze hor ikusten da lana eta azpitik datozenak ere kirola egiteko gogoz datozela.

Baina gero eta diru gutxiago dago leku guztietan eta hori mantentzea ere zaila izaten da.

**Egunotan hasi da Eskubaloiko Emakumeen Munduko Txapelketa. Nola ikusten duzu lehia?**
Beti daude talde faboritoak: Norvegia, Danimarka, Espainia, Serbia eta Brasil. Nahiko berdinduta egongo dira partidu denak, maila nahiko parekoa da: goikoak oso berdinak dira eta behekoak ere bai. Beti jarraitzen ditut mundialak eta jokatzeko eran Serbia asko gustatzen zait, baita Espainiako defentsa ere. Brasilek potentzia du baina buruz ez dituzte ongi kontrolatzen partiduak. Teknikoki Norvegia asko gustatzen zait.

**Espainiako selekzioko hainbat jokalari ezagutzen dituzu.**
Bai, Marta Mangue eta Eli Pinedo eta besteen kontra jokatu izan dut. Esperientziadun taldea da eta hainbeste partidu garrantzitsuren ostean, talde moduan jokatzen dute. Jendea ezagutzen duzunean gehiago bizitzen duzu, ez dituzu koloreak begiratzen, ezagutzen dituzula baizik.

# Lorea Agirre: "Hizkuntza bat bizitzeko, arnastu egin behar duzu"

## Arnasguneak sortu behar direla dio, gazteen intereseko gaiak ardatz hartuz

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Huheziko Sorguneak ikerguneko kidea da Lorea Agirre. *Guraso.com* atarira ekarri dugu Argia astekarian egindako elkarrizketa. Euskararen eta euskal kulturaren biziberritzean dihardu Agirrek, euskararentzat arnasguneak pentsatzen eta sortzen. Argi dauka hizkuntza bat ez dela gela barruan ikasten. "Hizkuntza bat bizi egiten da. Baina hizkuntza bat bizitzeko, lehenik eta behin, hizkuntza hori arnastu egin behar duzu, eta, are gehiago, ume eta gazte arteko giro batean. Ez baduzu arnasten, zaila da euskalduntzea. Euskara eskolan obligaziozkoa den gune batean transmitititzen den hizkuntza bihurtu da, edo erabiltzera behartzen den hizkuntza; baina benetako oxigeno beste hizkuntza bat da".

Euskara erabiltzeko guneak sortu behar direla uste du Agirre: "Jarrera sinpleena, begi-bistakoena, zera da: ez maitatu hainbeste, eta erabili (...) Gerta liteke gurasoek edo helduek euskaraz ez jakitea, baina hizkuntzarekiko jarrera lagungarria izatea, transmititu bailiteke hizkuntzaren aldeko jarrera; "garrantzitsua da, ikas ezazu" dioen jarrera". Aldi berean, guraso edo heldu euskaldunen jarreran ñabardura bat egin behar dela dio: "Euskaraz egiteak ez baitu esan nahi aldeko jarrera dutenik. Euskaraz funtziona dezakezu erabat, baina seme-alabei hizkuntza horri buruzko benetako gogoetarik transmititu gabe".

### Interesguneak sortu

Umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko beraiei interesatzen zaizkien gaiei buruz hitz egiteko guneak sortzea proposatzen du Agirrek. Ikastetxean zein aisialdian, bazterrekoa ez den ordu bat eskaini non ikasleek interesatzen zaizkien gaiak jorratuko dituzten. Baldintza bakarra euskaraz egitea izango da. Kontua da: Prest gaude umeak entzun eta diotena kontuan hartzeko?



Umeak, marrazten. | OIHANA ELORTZA

# Koldo Gilsanz psikologoak azaldu digu banaketa prozesuek sortzen dituzten zailtasunei nola aurre egin

## Banaketa eskura ditugun errekurtso guztiak garatzeko eskatuko digun erronka da, eta aldaketa handia ekarriko du familiako kide guztiendako

L.Z. | ARRASATE

Koldo Gilsanz psikologoak banaketa prozesua hartu du oraingo honetan hizpide *Guraso.com* atarirako egindako kolaborazioan. Aurreko urtean, Hego Euskal Herrian mila biztanleko 1,95 bikote banandu ziren.

Banaketa prozesuak luzeak eta konplexuak direla aurreratzen du Gilsanzek, baita arreta handia behar duen prozesua dela ere, batez ere tartean seme-alabak daudenean.

Prebentzioa, komunikazioa, metakomunikazioa —komunikatzeko dugun moduari buruz ere komunikatzea—, pazientzia eta barkatzeko prestutasuna eskatzen ditu banaketa prozesu batek.



Familia bat parkean jolasean. | RYYTA

### Guraso-taldeak jarraitzen du

"Bikotea banatzen denean bikote -taldea —lagun hurko, maitale, elkarren babes...— desegin egiten dugu, baina guraso-taldeak segitu egiten du, eta talde bezala funtzionatu behar du; gauza asko negoziatu beharko ditugu".

Tartean seme-alabak daudenean Gilsanzek gomendatzen du erabakia hartuta eta martxan egon arte ezer ez komentatzeko. "Seme-alabek zer edo zer sumatu eta galdetu egin dezakete. Harremanen gorabeherei buruz hitz egin ahal diegu orduan, baina erabakia hartuta dagoen arte ez diegu aukera hori zabalduko, batez ere haurtzaroan daudenean ziurgabetasunak asko nahas ditzakeelako", azaltzen du.

Beste gomendio bat da semearengan edo alabarengan laguntzarik ez bilatzea. "Batzuetan badirudi semea edo alaba oso heldua dela, erraz harrapatzen gaituela kopetilun gaudenean eta gai dela gure burutazioak eta sentimenduak ulertzeko. Agian, hala da, baina horrek harengan eragin negatiboa izan dezake —euskarri izateko erantzukizuna, beste gurasoarekiko harremanaren urratzea...—, eta, horregatik, komenigarria da laguntza beste norbaitengan bilatzea", dio psikologoak. "Arrazoi horiengatik, garrantzitsua da seme-alaben aurrean ez eztabaidatzea".

Behin prozesua martxan egonda eta banaketa gauzatzear dagoela, Gilsanzen ustez bi gurasoek elkarrekin azaldu beharko lukete hartu duten erabakia. "Batez ere, 7 urtetik beherakoendako oso garrantzitsua da haien errua ez dela izan argitzea, haien pentsamendu egozentrikoagatik horretarako joera izango dute -eta: 'Aurrekoan ni musika klasera zeinek eraman ari ziren eztabaidatzen eta horregatik banatu dira. Nire errua da".

Lehen bilera hori bake giroan gauzatzen bada prozesuak daukan mina emateko aukerak asko txikitzen dira. Baina ezin dugu pentsatu behin aipatzearekin nahikoa denik. Garrantzitsua da haurrak ez sentitzea gaia tabua dela, eta horren inguruan normal eta naturaltasunez galdetzeko baimena duela sentitzea.

# Hamar gaztetatik lauk kirola egiten dute hiru aldiz edo gehiagotan astean

## Mutilek taldeko kirolak nahiago dituzte; emakumezkoek, ordea, banakako kirolak

L.Z. | ARRASATE

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek egiten duten kirolari buruzko datuak aurkeztu ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

Euskadiko gazteen %8k kirola egiten dute astean behin, %17k astean bitan eta %40k astean hiru aldiz edo gehiagotan. Hau da, gazte gehienek kirola egiten dute, gutxienez, astean behin (%65).

Mutilek neskek baino neurri handiagoan egin ohi dute kirola —%73k eta %57k, hurrenez hurren—. Zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da proportzio hori. Sexuaren eta adinaren araberako aldeak, funtsean, kirola astean gutxienez hiru aldiz egiten dutela diotenen ehunekoan antzeman daitezke.

Sexuari eta adinari dagozkion datuak konbinatuta ikus daiteke mutilen artean kirolpraktika beherantz doala adinean gora egin ahala. Nesken artean, aldiz, kirola alde batera uzten da 20 urtera iritsi aurretik.

EAEko mutilen artean futbola da jaun eta jabe. Mutilen %44k praktikatzen dute, eta nesken %6k. Ez dago futbolak mutilak elkartzen dituen moduan neskak batzen dituen kirol-diziplinarik. Emakumeek gehien egiten duten kirolen artean daude: korrika (%18), ibiltzea (%16), igeriketa (%16), eta aerobika edo antzekoak (%15).



Takarraran lasterketa Arrasaten. | GOIENA

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

# KULTURA



Josip Nemet kroaziarra, atzo arratsaldeko saioan. | JOSETXO ARANTZABAL



Narciso Jimenez, Gipuzkoako lehiaketa barruko egubakoitzeko saioan. | J.A.



Zapatuko jaialdiko une bat: 295 akordeoilarik hartu dute parte aurten. | I. SORIANO

# Inoiz iritsi gabeko lurretara akordeoi lehiaketako txapela

▸ Hanzhi Wang txinatarrak irabazi du aurten Arrasate Hiria txapelketa

▸ Lehiaketetakoak eta jaialdikoak batuz, 343 musikarik hartu dute parte

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasateren nazioarteko enbaxadore bihurtu da akordeoia beste behin, Arrasate Hiria Akordeoi Lehiaketa –aurtengoa 21. edizioa– erreferente da-eta han eta hemen. Hauspoz elkarteak antolatzen dituen lehiaketek eta jaialdiak babes handia dute erakundeen partetik; Jaurlaritzak, Gipuzkoako Aldundiak eta Arrasateko Udalak diruz laguntzen dute. Eta maila apalago baten bada ere, SUDC elkartea ere laguntzaile leiala da urtero.

Mundu osoko akordeoilariendako eta bertakoendako ere erakusleiho garrantzitsua dira Arrasateko lehiaketak. Gipuzkoako Lehiaketaren 34. edizioa izan dute aurten: "Gipuzkoako izena izan arren Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako akordeoilariak etortzen dira. Aurten autobus bete bat etorri zaigu Galiziatik eta Ipar Euskal Herritik ere izan dugu bisita lehen aldiz", esan digu Hauspoz elkarteko presidente Aitor Furundarenak. Parte hartzea azken urteetako zabalena izan da aurtengoa, Furundarenaren arabera. Horri maila altua gehitu behar zaio, izan ere, mundu zabalean ospe handia duten akordeoilariak izan ditugu gurean; atzoko azken fasea ikustea besterik ez dago lehiaketa honek duen mailaz ohartzeko. Beraz, antolatzaileak "oso pozik" daude aurtengoak eman duenarekin.

Egubakoitzetik domekara Arizmendi Ikastola, Kulturate eta Amaia antzokia izan ziren saioen guneak, baina aurten, iazko esperientzia errepikatuz, kalejira ere egin zuten zapatu goizean, kaleak girotzeko.

### Lehia bai, pedagogia ere bai

Lehiakortasuna bultzatzeaz gain, Hauspoz elkarteak badu helburu pedagogikoa ere: "Txapelketa hau oso handia da, jende askok hartzen du parte. Saiatzen gara guztia helburu pedagogikotik lantzen, baina jaialdia da erabat pedagogikoa dena. Ez dago lehen posturik; dominak ematen dira eta sailkapen txiki bat ere badago, baina saiatzen gara lehiakortasun guztia kentzen. Oso polita da, haurrek zein gurasoek ilusio handiz hartzen dute, eta oso giro polita egoten da", adierazi digu Furundarenak zapatuko jaialdiaren gainean. Atzo iluntzeko gala eta sari banaketarekin borobildu zuten aste bukaera. Datorren urtera arte!

## Kalejira, "ghetto" ez izateko asmoz

Iaz kalejiran irten ziren lehen aldiz –udaletxeko arkupeetan egin zuten, euriagatik– eta aurten errepikatu egin dute, eguraldia lagun: "Polita da. Sinbolikoa da akaso, baina ghetto garen sentsazio horri ihes egiteko balio dezake. Izan ere, gure helburua akordeoia ahalik eta gehien zabaltzea da", dio Aitor Furundarenak.



Zapatu goizean kalejiran irten ziren, eguraldia lagun. | JOKIN BEREZIARTUA



J.B.

**AITOR FURUNDARENA**
HAUSPOZ ELKARTEA

## "Nazioartean hiru dira izen handiena duten lehiaketak; hau da bat"

Hauspoz elkarteko presidenteak beti bezain adeitsu erantzun zituen gure galderak atzo, Herri-Gain elkartean egindako bazkariaren ostean.

**Nolako parte-hartzea izan du aurten Arrasate Hiria Akordeoi Lehiaketak?**

Azkenaldiko parte-hartze zabalena izan dugu aurten. 11 herrialdetatik etorri dira akordeoilariak; Txinatik aurrekoetan baino gehiago etorri dira, Kazakhstanetik ere etorri dira lehen aldiz, Portugaldik... oso pozik gaude. Maila mantendu egin da, eta horretarako ezinbestekoa da kontuan hartzea oinarriak eta epaimahaia mantendu egin direla. Hau da, lehiaketa baten maila oinarriek eta epaimahaiak zehazten dute hein handi baten; antolakuntzak maila altua jartzen badu, jotzera doanak badaki ze maila exijituko dioten.

**Lehiaketa erreferente dela erakusten du horrek, ala?**

Bai, izen eta prestigio handia dauka Arrasateko lehiaketak, parte-hartzea ikustea besterik ez dago. Nazioartean hiru lehiaketa dira izen handiena dutenak; hau da horietako bat.

## 2013KO EDIZIOKO IRABAZLEAK

**ARRASATE HIRIA**

1. **Hanzhi Wang (Txina)**
2. **Xiao Nan Xu (Txina)**
3. **Marco Sevarlic (Serbia)**

**GIPUZKOAKOA**

1. **Narciso Jimenez (Senior)**
1. **Amaia Zubimendi (Junior)**
1. **Marta Cubas (Infantil)**

# Kulturaren plaza orain hirira zabalduta, arnas berria hartu du Azokak aurten

## Bisitari, sortzaile eta salmentek aurten ere babesa eman diote kulturaren plaza nagusiari

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Kopuruak eskatu ohi zaizkio Azokari arrakastaren berme bezala, eta, bai, 48garrenean ere bisitari eta salmenten zenbatekoei dagokienez "oso pozik" daudela adierazi dute Gerediaga Elkarteko kideek aurtengo balantzean. Gozamenezko bermea, baina, jendeak guneei emandako berotasunak ekarri zuen. Trenbidearen lurperatzeak Azoka Durangora zabaltzea ahalbidetu du lehen urtez eta horrek arnas berria eman dio Landakoko azoka-guneari. Baina ohi bezala, arnasa eta hauspoa sortzaileek eman diote aurten ere euskal kulturaren urteroko plaza nagusiari eta hor ere urtero doa Debagoienetik sorta ederra. Iazkoarekin konparatuta Debagoieneko nobedade kopurua txikiagoa izan da aurten baina, edozelan ere, bertako sortzaileek ez diote hutsik egin hitzorduari eta lanak sinatzen, aurkezpenetan edo bisitari modura, Debagoienetik joandako ehunka lagunekin egin dute bat sortzaileek ere aurtengo Azokan. Elgetako ibilaldi gidatuen berri ere eman zen *stand*-etan. Horrela, Areto Nagusian Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, Manex Agirrek Bonberenearekin eta Jon Ander Ramosek egin zituzten aurkezpenak, besteak beste. Ahotsenean ere presentzia txikia baina dotorea izan da Malenkonia, Emon eta Los Galerna taldeen eskutik. Zuzenekoetan baina, Arkada Social arrasatearrek eman zuten danbatekoa, Plateruena osoa bariku gauez izerditan lagata. Ikus-entzunezkoei dagokienez, Irudienean Belcebluesekoek *Road to Memphis* dokumentala aurkeztu zuten Durangoko zinema aretoan. Goiena Komunikazio Taldea Azokaren kide izan da aurten ere Azoka Telebista ekoiztu eta telebistaz zein *streaming* bidez Euskal Herri osora zuzen-zuzeneko seinalea zabalduta.




Elkarteko kideak, liburuko parte-hartzaileekin. | JUAN RAMON GARAI

### Apaizen memoria zapalduari gorazarre

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen presentzia handia izan da aurtengo Azokan ere. Urtero jartzen dute saltokia eta egiten duten lan zabalaren erakusleiho handi horrek jada egin du bere txokoa. Aurtengo erreferentzia nagusia *Consejos de Guerra contra el Clero Vasco. 1936-1944* liburua izan da. Areto Nagusian aurkeztu zuten kolpe militarrak jazarritako euskal apaizen memoria aldarrikatzen duen lana. Elkarteko kideek Xabier Amuritza, Anxo Ferreiro idazlea eta Martin Orbe izan zituzten lagun.



ENEKO AZKARATE

**EMON** Zapatu eguerdian egokitu zitzaion taldeari Ahotsenean urte hasieran kaleratu duten *Konfeti kolore* disko argitsu eta jaizalea aurkeztea. Alaitasuna eta kolore biziko erritmoak zabaldu zituzten kontzertuen karpan eta Azokan bertan ere diskoak sinatzen jardun zuten kideetako batzuk.




ENEKO AZKARATE

**JON SARASUA** Azken liburuak izandako harrera "ona" dela-eta pozik zegoen Jon Sarasua. *Hiztunpolisa* da aurten kaleratutako erreferentzia eta "gogoeta probokatzeko" helburuarekin atera du aurtengo Topagunea Elkartearen Topaeguna egunean aurkeztutako liburua.



MIKEL GUTIERREZ

**ARKADA SOCIAL** Arrasatekoek luxuzko agertokian, Plateruenan, aurkeztu zuten barikuan *Hil orduko bizi* lan berria. Azokako egunik jendetsuenean, kontzertu jendetsuenetakoa izan zen laukotearena eta zuzenekoan ere ez zieten huts egin Arrasatekoek jarraitzaile andanari.



LARRAITZ ZEBERIO

**TXATXILIPURDI SAGUGANBARAN** Etxeko txikienei dedikatutako gunean ezin zen Txatxilipurdi elkartea falta eta ipuin kontaketa saio berezia egin zuen Ainara Kortabarriak Saguganbarara batutako neska-mutikoentzat.



IRATI GOITIA

**AZOKA TELEBISTA ETA GUNEAK, ARRAKASTATSU** Ahotsenea, Szenatokia, Saguganbara, Irudienea... bete egin dira aurten ere Durangoko Azokako guneak eta, tartean, Goiena Komunikazio Taldea izan da guneen artean Azoka Telebistarekin egunero zuzeneko hamar orduko emisioarekin.



LARRAITZ ZEBERIO

**EUSEBIO OSA, GOGOAN** Zapatuan egin zuten Areto Nagusian Eusebio Osa idazle bergararrari buruzko liburua. *Eusebio Oso: belaunaldi baten lekukoa* lanaren aurkezpenean Pako Sudupe, Xabier Etxanizek eta Txipi Ormaetxea aramaioarrek hartu zuten parte.


IRATI GOITIA

**LOS GALERNA** Mexikotik udan egindako biratik bueltan, indar betez itzuli dira arrasatearrak eta energia hori guztia eroan zuten Ahotseneara *Akelarre* diskoa aurkezteko. Ondoen egiten dakitena erakutsi zuten taldekoek, zuzenean guztia ematen duten horietakoak baitira.


LARRAITZ ZEBERIO

**MAITE TOLEDO** Ahotseneako liburu aurkezpenen barruan aurkeztu zuen Maite Toledo antzuolarrak poesia bilduma berria: *Hemen*. Glamourra hartu du ardatz moduan bigarren lanean eta horren inguruko azalpenak eman zituen Ahotsenean.


Keu Agirretxea. | J.B.


Keu, erdian, talde osoarekin. | J.B.

KRONIKA

# Zehaztasunez baina goxo

**FITXA**

KONTZERTUA

**KEU AGIRRETXEA ETA THE FIGNUH EXPERIENCE**

**Estiloa:** Pop-rocka, folka, gitarra akustikoa ardatz delarik.

**Non:** Zaraia aretoa.

**Eguna:** Eguena, abenduak 5.

**Iraupena:** Ordu eta erdi.

**J.B.** | ARETXABALETA

Kaleratu berri duen *Behe presioen erdigunean* lana aurkeztu zuen eguenean Keu Agirretxeak. Atzera ere bakarkako bideari helduta eta bakarka baina ez bakarrik, berekin du Fignuh Experience taldea, laukotea osatzen. Hala, Keuren zimendu akustiko sendoari eransten zaizkio betidanik kide izan duen Mikel Arakistainen baxua eta Isusko Ramonen saxoa eta Iñaki Jaio bateria jotzen. Hirurek Agirretxeak mimoz eta goxotasunez landutako doinuei gorputza eta kolorea ematen diete eta halaxe egin zuten eguenean Aretxabaletan *Behe presioen erdigunean*-en aurkezpenean. Emanaldiaren lehen zatia material berriaren aurkezpenari dedikatu zioten eta erditik aurrerakoan bakarka eta Uek taldearekin, besteak beste, ezagun egindako abestiak jo zituen ondarrutarrak taldearekin. Gutizia moduan edo, amaieran esperimentutarako tartetxoa ere hartu zuen *loop*-ekin ala progresiborago jotzen duten piezekin. Izan ere, Keuren egungo pop abestien azaleko soiltasuna gitarra-lan zehatza eta atzamar trebatuen bihurrikeria dago, blues ala jazz aldarte sakonagoetarako bide bezala erabiltzen dituenak. Gitarra akustikoak ez du barkatzen gainera, elektrikoak baino artifizio gutxiagorekin, zehaztasunak zirujauarena behar du, akatsak, osterantzean, akatsago bihurtzen baitira.

Eta horrela, ordu eta erdiko erakustaldiarekin nahikoa ez eta Zaraia erdi-bete zuten entzuleen txalo eta beste bat jotzeko ereguek aterarazi zuen laukotea, esker oneko, atzera agertokira. Disko berriko kantuak jotzeko gogoz etorri zirela aitortu zuen Keuk eta gustura jo zutela; entzundakoak ikusita, nabaria zena.



*Balitzen hioa* antzezlanaren hasierako uneetako bat. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

# Hitzen balioen dantza

JON BEREZIBAR | BERGARA

Hitzen balioari buruzko gomuta eskatu zieten Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariei eta, ezin bestela, berben, zentzuen eta pentsakizunen dantza saioa da *Balitzen hioa*. Antzezlanaren izenburua bera da froga, "hitzen balioa" berbetatik jota gauzatutako deformazioa; eta, hain zuzen, hitzen izate eraldatzailearekin egiten da jolas Begiradak taldearen antzezlanean.

Hiru antzezle –Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Untzueta– eta eszenatokia ia hutsik, marko baten osteko besaulki bat eta koadro zuri bat eskegita duen eskailera salbu. Elementu horiek eta ikusleek sarreran antzezleek eurek emandako oihal zati bat eskuan, horiexek tresna guztiak, antzezlana hitzez baitago josia ia osorik, ez beste ezerekin. Zapia da, hain zuzen, une baten begiak estali eta hitzak bakarrik entzuteko.

Ordu bete eskasean, konturatu orduko, amaitu da *Balitzen hioa*, eta formatu laburrak mesede egiten dio poesia errezitaldi antzeztutik antzezlanetik baino gehiago duen lan honi. Antza denez, bertsolariei independenteki eskatu zizkieten enkarguz puskak eta pasarteka antolatu dituzte antzezleek. Arintasun hori ere onuragarri zaio antzezlanari, ur sakonegietan sartzeke bilatzen den hausnarketa entretenigarri hori eskaintzeko. Une eder eta bereziki hunkigarriak ere baditu Begiradak-en lanak, gainera. Bereziki polita da minaren eta mapamundiaren pasartea ala, originala, hitzak desagartarazteko agindua duen polizia agentearena. Osotasunean, ordea, antzezlan bete baten borobiltasuna falta zaio planteamenduari, ez istorio baten beharra baina bai *sketch* sorta hutsetik aterako duen bildukin teatralago bat. Hala ere, emaitza atsegina da, polita eta, finean, bilatzen dena lortzen da erretorika hutsalean galdu barik.

**FITXA**

ANTZERKIA

**BALITZEN HIOA**

**Taldea:** Begiradak.

**Antzezleak:** Esti Curiel, Leire Ugarte, Hodei Untzueta.

**Non:** Zabalotegi aretoa.

**Eguna:** Barikua, abenduak 6.

**Iraupena:** Ordu bat.

# Erakustaldi errimatu eta bortitza Antixeneko hip-hop gauean

Urola Garaiko Agresión Verbal, Throw Rap eta Artillería Pesada & Kartalek jo zuten

J.B. | ARRASATE

Txikia bada ere, lekutxoa badute hip-hopak eta rapak, rocka jaun eta jabe den Debagoienean. Eszenarik ez dago gurean, baina bai Urola Garaia aldean, eta, hain zuzen, bertatik etorrita, rap kontzertu hirukoitza egin zuten taldeek barikuan Antixenan.

Erantzun ona izan zuen DJ Kirrin oñatiarrak ekarritako proposamenak eta Agresión Verbal, Throw Rap eta Artillería Pesada & Kartal taldeen errima eta *sample*-atze gupidagabeek jende kopuru polita erakarri zuten Antixenera.

Ia talde bakar baten modura funtzionatzen du hirukoaren planteamenduak, elkarrekin jotzen baitute ia beti. Agresión Verbalen lana da zabalduena, hiruretatik. Antixenekoan ere ez zuten galdu, ez Agresión Verbalek ez besteek; errima zorrotz eta hitz garbiz, erakustaldia egin zuten harrera benetan beroa egin zieten oñatiarren aurrean.

**Ni Naiz Hip Hop**

Hiru taldeak Urola Garaia aldeko Ni Naiz Hip Hop mugimenduaren kide dira izatez, inguruetako hip-hop eszena dinamizatzen duen taldea, hain zuzen. Agresión Verbal, Throw Rap eta Artillería Pesada & Kartalek, normalean, batera jotzen dute eta ikuskizun bakar bat bezala planteatzen dute zuzenekoa. Kontzertu eta jaialdiak antolatzen dituzte, besteak beste, Ni Naiz Hip Hopekoek Urola aldean.



Hiru taldeetako kideak eta DJ Kirrin, erdian. | BINGEN GOMEZ



Artillería Pesada eta Kartal, mahaian. | BINGEN GOMEZ

GURE MUSIKA TALDEAK

# Screamers & Sinners eta Dirty Brothers Berlinera doaz

## Clash tabernaren 9. urteurrena girotuko dute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Berlinen dagoen Clash tabernako urteurrena ospatzeko, ibarreko bi taldek eskainiko dute kontzertua bertan, zapatuan.

Dirty Brothers eta Screamers and Sinners taldeak, Alemaniako hiriburura joango dira, Clash tabernako 9. urteurrena girotzeko asmoz. Taldeentzat, aukera paregabea da Berlinen lehenengoz jotzeko, "gainera tabernaren urteurrenetan jendez bete izan da azken urteotan" gaineratu du Salak, Dirty Brothers taldeko gitarra joleak.

Jada, hainbatetan bisitatu dute Clash taberna, eta duela bi urte, Des-Kontrol eta Never Surrender taldeak ere bertan jo zuten, 7.urteurreneko jaian.



Sala eta lago urteurrenaren kartelarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

### Dirty Kontrol Brothers

*Sala*-k esan duenez, jai giroko errepertorioa prestatzen dabiltza. Dirty Brothers-en kantu batzuk joko dituzten arren, Berlineko Oxymoron edota Frontkick taldeen bertsioak egingo dituzte.

Horrez gain baina, Arrasateko Elkartasun egunean egin zuten bezala, "Des-Kontrol taldearen abesti batzuk joko ditugu ere, *Pepin* eta *Magu* bertan izango direla aprobetxatuz", izan ere, "lagun giroan egingo dugu kontzertua, disfrutatzera goaz eta bertan Des-Kontrolen eta Arrasaten egiten den musikaren jarraitzaileak dira", horren erakusle da, Des-kontrol eta Never Surrenderrekoak duela bi urte egon izanaz gain, datorren urtean Arkada Social ere Clash-eko taulatik pasatuko dela.

ESANAK

> **"Clash-en urteurrenean jotzea aukera paregabea da"**
>
> ASIER SALA | DIRTY BROTHERS

### 'Demon tales' aurkeztera

Screamers and Sinners-ekoek ordea, *Demon Tales* diskoa esku artean dutela joango dira Berlinera. Diskoa gurean urtarril inguruan aurkeztuko dute, hala ere, taldekideek, Berlinera diskoa eramatea beharrezkotzat jotzen dute, "ez dugulako bertara astebururo joateko aukerarik".

Taldekideez gain, hainbat lagun joango dira Berlinera Clash -en urteurrena ospatzera, guztira 15 bat lagun joango dira.




IMANOL SORIANO

## Azkaiter Pelox Txatxilipurdiko neska-mutilekin

Duela bi aste Elorrioko Iheskide taldea egon bazen Txatxilipurdiko neska mutikoekin musikaren inguruan solasean, larunbatean Azkaiter Pelox bergarar nekaezinaren txanda izan zen. Bertan bateria elektronikoarekin, gazteak berarekin batera jotzera animatu zituen eta kontzertuak jotzera eta antolatzera ere animatu zituen; lotsa alde batera utzi eta taulara igotzeko mezua helarazi zien.

### 'Zuloan', Governors taldearen 'Morphinapolis' izeneko disko berriaren bideoklipa estreinatu zuten

Disko berri batek, bideoklip berri bat dakarren aro honetan, Governors boskoteak *Zuloan* kantuaren bideoklipa estreinatu zuen pasa den astea. David Zabala eta Paul Ukijok zuzendutako bideoklipa, Oñatiko Santa Ana aretoan eta Larraña institutuan grabatu zuten bi egunetan. Mariasun Pagoaga arrasatearrak aktore lanak egiten ditu eta istorioari indarra eta errealismoa ematea lortu du. Argazki zuzendaria Carlos Gil izan da, eta estilismo ardurduna Nerea Torrijos. Bideoklipa interneten dago ikusgai pasa den asteaz geroztik.

### Des-Kontrol talde arrasatearrak binilo formatuan bilduma berria kaleratu zuen pasa den astean

*Behin eta berriz jarraituko dugu duintasunez eutsiz aurrera begira* izenburupean, Des-Kontrolek disko berria kaleratu du. Binilo formatuan argitaratu duten diskoa, bilduma bat izan arren, *Haritzaren sustraiak* eta *Izarren azpian* kantu berriak eta *Burua hotz eta bihotza bero* kantuaren beste bertsio bat dakartza. Diskoa Durangoko Azokan salgai egon da, eta aurrerantzean, Dat tabernan egongo da salgai 15 euroren truke. Mauka musikagintza diskoetxearekin atera dute disko berria hau, eta 500 kopia egin dituzte. Biniloak, barruan, opari bezala cd-a dakar.

### 'Kopixau ta Rulau', lau abestiz osaturiko disko berria kaleratu du Hardflip laukote bergararrak

Duela urtebete inguru Hardflip bergararrek hiru kantuz osaturiko diskoa kaleratu zuten, eta antza, ez dute denbora galdu. Duela hiru aste lau kantuz osatutako disko berri bat kaleratu zuen hardcorea defendatzen duen laukoteak. Hau ere *Do it yourself* edo zuk zeuk egin filosofiaren arabera egin dute; hau da, eurek grabatu, kopiatu eta zabaldu dute. Bergarako Goikorock lokaletan, azaroan grabatu zituzten *Kopixau ta rulau*, *Hegazkinak*, *Cannival Kids* eta *No podemos escapar...* kantuak.



Bagauda oñatiarrak disko berria eskuetan dutela. | BAGAUDA

## Oñatiko Bagauda taldeak esku artean du lehenengo diskoa

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Bagauda oñatiarrek disko berria esku artean dute jada. Musikortan grabatu zuten udan diskoa, eta Durangoko Azokan, Musikazuzenean webguneko *stand*-ean egon ziren salgai.

Rock and roll eskandinaviarra eta stonerra defendatzen duen laukotearen lehenengo lana da hau, eta dagoeneko diskoa aurkezteko kontzertuak jotzeari ekin diote.

### Aurkezpena etxean

Pasa den egubakoitzean etxean aurkeztu zuten maketa, Ona tabernan; eta Gabonetara begira beste bi kontzertu eskainiko ditu laukoteak. Egubakoitz honetan, hilak 13, lehenengoa Soraluzeko gaztetxean eta abenduaren 20an bigarrena Antzuolako gaztetxean.

### Diskoak 5 euroren truke

Diskoak eskuratzeko, hainbat bide daudela esan dute taldekideek. Oñatin bertan, Ona eta Aker tabernetan dago salgai bost euroren truke, eta Euskontu webgunean ere maketa formatu digitalean zein fisikoan erosteko aukera egongo da.

Horrez gain baina, eurekin facebook bidez edo emailera idatziz gero, salduko dituztela ere argitu dute.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trastelekua. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. Deitu telefono honetara: 630 70 81 23

**Bergara.** Matxiategi 10ean, 115 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua eta oso argitsua. Deitu telefono honetara: 650 60 26 55

**Duplexa salgai Oñatin.** 88 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalean. Sukaldea, egongela, bi komun, estudioa, hi logela eta gela txiki bat dauzka. Igogailudun eraikuntza berriko etxea. 625 70 54 44 edo 607 58 00 99

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Jantzita. Trasteleku eta igogailuarekin. Berokuntzarekin. Etxe berria da. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 653 70 84 09

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Jantzia. Oso argitsua.Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 690 12 06 00

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bainugela bat eta sukade-egongela. Igogailuarekin. Merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 69 23 36

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. Dietu 669 30 16 89 telefonora

**Baserria.** Baserria hartuko nuke errentan Bergara, Soraluze edo Eibar inguruan. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:680 36 22 41

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Gehienez, 400 euro ordaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 36 17 62

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Gutxienez bi logelakoa. Terraza badauka, hobeto. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 77 58 82

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:638 62 85 02

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logelak behar dira atzerritik etorriko diren ikasle batzuentzako. Otsailaren haiseratik ekainaren amaiera arte.Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:656 77 66 32

**Arrasate.** Erdigunean logela ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Logelak emango nituzke errentan Zubiaurre inguruan. Emakumeentzat nahiago.Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:637 18 07 23

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. Interesatuok deitu telefono hauetara: 943 76 06 60 edo 689 36 86 42

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 31 42 97

**Bergara.** Garajea errentan hartuko nuke Artzamendi kalean. IInteresa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 658 74 73 23

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Haur Hezkuntzan graduatua den gazte euskalduna prest haurrak zaintzeko: eskolara eramateko, gaixorik jarriz gero beraiekin egoteko... Esperientzia haurrekin. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 618 87 12 97

**Arrasate edo Bergara.** Laguntza behar duten nagusien zaintzarako formazioa dut eta lan bila nabil. Zaintzan, garbitasunean zein etxeko lanak egiten jardun naiteke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

**Arrasate.** 50 urteko emakumea haurren zaintzan zein etxeko lanetan jarduteko prest eskaintzen da. Esperientzia handia. 617 67 97 84

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Sukaldelaguntzaile gisa lan egingo nuke: pintxoak, platerak eta abar. Zazpi urteko esperientzia daukat sukaldean. Garbiketak ere egingo nituzke taberna, elkarte eta abarretan. Deitu telefono honetara: 722 45 33 59

**Bergara, Antzuola eta Zumarraga.** Esperientzia eta erreferentziadun bikotea garbitasunean lan egiteko gertu: etxeak, atariak, elkarteak, bulegoak eta abar. Langileak gara. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 91 81 73

**Bergara.** 49 urteko emakume arduratsua lan bila dabil. Edozein lan mota egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 52 39

**Bergara.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko, orduka. Maite. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 17 74 87

**Bergaran, Arrasate edo Oñati.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko.Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** 24 urteko neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Eritzaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia dauzkat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 20 59 43


Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.


**Debagoiena.** Asteburuetan orduka edo gauetan lan egingo nuke. Legezko paperak, gidabaimena eta autoa dauzkat. 632 83 32 68

**Debagoiena.** Emakume bergararra, zazpi urteko esperientziaduna, emakumeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 626 86 35 92

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanetan, tabernan, sukaldean zein nagusiak eta umeak zaintzen lan egiteko. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu, nagusiak zaintzen, garbitasunean. Etxean bizi izaten, egunez, orduka zein gauetan. 638 59 04 71

**Debagoiena.** Emakumea nagusiak zaintzeko gertu, etxean bizi izaten edo bestela. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:632 84 02 30

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanak egiten edo mekanikari laguntzaile jardungo nintzateke. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 06 66 71

**Debagoiena.** Lan behar dut, urgentziaz. Edozetan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 24 79 09

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta erreferentziaduna lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, ospital zein egoitzatan eta abar. Egun osoz, orduka edota asteburuetan. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaindu eta sukaldeko laguntzaile lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 04 46 37 edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: garbiketak, sukalde laguntzaile, gidari, eraikuntzan eta abar. Ez deitu sexu proposamenak egiteko, mesedez. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edota garbitasunean lan egingo nuke. Esperientzia dut geriatrian eta erizainlaguntzaile moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta atari, taberna, elkarte eta abarretan garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu telefono honetara: 625 86 99 51

**Debagoiena.** Neska arduratsaua, oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, nagusiak zaindu edo garbitasun lanetan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Deitu 615 06 28 04 telefonoa.

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketak orduka egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska espainiarra lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. Asteburuetan edo gauetan ere bai. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, baita gauak ospitalean pasatzeko ere. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Disponibilitatea. Kotxea daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, zein etxeko lanak egin eta garbitasun lanetan jarduteko. Ospitaletan gauak ere egingo nituzke. Autoa daukat eta erabateko prestutasuna. Esperientzia eta informeak. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen, tabernan, garbiketan eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 40 64 65

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen, tabernan, garbiketan eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa dauzkat. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Garbitasun lanetan ere bai.Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 602 64 68 17

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Orduka, nagusiak zaintzen. 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: tabernatan, etxean eta abar. Neska arduratsua, langilea eta euskalerritarra. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 53 28 45 edo 659 34 31 43

**Debagoiena.** Orduka, egun erdiz edo osoz lan egingo nuke. Nagusiak zaintzen, garbitasunean, tabernan eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 671 18 50 83 edo 943 10 96 89

**Emakumea lan bila.** Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena daukat. Euskal Herri guztian lan egiteko gertu. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 696 32 13 69

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** "Ordenagailu bidezko diseinua" goi mailako zikloa ikasten ari den gazteak laguntza eta orientazio eskola jasoko litzuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 21:00etatik aurrera. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 76 03 75

**Fisika eta kimika.** Batxilergoa ikasten diharduen mutiko bati fisika eta kimika eskola partikularrak emateko norbait behar dugu, Aretxabalaetan. 649 55 48 10

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskola partikularrak ematen ditut. Kanada eta Erresuma Batuan esperientziaduna prest ingeleseko partikularrak emateko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta gaztei. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 699 01 85 84

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Hamsterrak.** Hamsterrak ematen dira opari. Kaiola ekarri behar da. Amaia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 90 78 17

### 704. BESTELAKOAK

**Katua galdu Arrasaten.** Musakolan katu emea galdu da. Bularraldea eta hankak zuriak dauzka eta bizkarraldea marroixka. Buztana beltza eta ezkerreko belarri erdi, kolore bakoa. ikusi edo aurkitu baduzu deitu mesedez zenbaki hauetara: 943 79 59 34 edo 677 69 15 26

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Motozerra.** Stihl etxeko motozerra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98

### 805. TRUKATU

**Korrika egiteko zinta.** gimnasia egiteko beste aparatu bategatik aldatuko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 79 51 89

### 806. GALDU

**Landarea.** "Diru landarea" galdu dut Bergaran, Ninika lora denda eta Artzamendi artean. Aurkitu duenak dei dezala zenbaki honetara: 943 76 52 39

### 807. AURKITU

**Kandatauk.** Kandatu sorta bat aurkitu nuen Ibargarai kalean azaro hasiera aldera. Galdu duenak dei dezala zenbaki honetara: 656 76 67 70

### 808. BESTELAKOAK

**Informatikaria.** Nire webgunean 103 orriko poesia lana jarriko didan informatikaria behar dut. Prezioa adosteko. Manu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 77 86 38

**Lursaila.** Lursaila behar dut, Bergara edo Soraluze inguruan, bi zaldi denboraldi batez edukitzeko. Deitu 639 09 95 22 edo 680 36 22 41

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arabiera-Euskara.** Hizkuntza trukea egiteko gertu: nik arabiera erakutsi eta trukean euskara jasoko nuke. Debagoienean. Deitu 631465698 telefonora.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## NAGUSIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

**SAROAN**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 19 – 8. bulegoa
Tel.: 943 10 90 80 - www.saroan.com

## NUTRIZIOA

**LOREA ARANBURU (MEDIKU NUTRIZIONISTA)**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 72 16
Bergara / Ramon M. Lili 2, behea / 943 76 59 39

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE**
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Sare sozial "fantasma" bide da Google Plus oraindik

Azken ikerketa batek berretsi egin du erabiltzaileen aktibitate urria

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Auzitan segitzen du Google-en sare sozialaren arrakastak bi urte eta gero ere. Sare sozial "fantasma" deitzen dionik badago jada baina horren aurrean hazkunde etengabean dagoen erabiltzaile kopurua kontrajartzen dute beste hainbatek. Bat ala beste, adituak bat datoz sare sozialak erabiltzaileen parte-hartze aktiboa sustatzeko dituen zailtasunak nabarmentzerako orduan.

Argi apur bat aurkitu guran, ikerketa egin du Madrilgo Carlos III Unibertsitateak Oregon eta Parisko unibertsitate banarekin. Erabiltzaile berri eta aktiboen arteko jardueraren proportzioa atera dute eta, haien arabera, 60 aldiz da handiagoa erregistratu berrien kopururen hazkundea, erabiltzaile aktiboen hazkundearekiko. Horrek agerian uzten du, zalantza barik, Google-en sare sozialaren jarduerarik eza eta zelan, era berean, erabiltzaileen parte-hartzea sustatzeko dauzkaten zailtasun itzelak. Parte hartzen duten erabiltzaileak gutxi dire eta egiten dutenak erabiltzaile oso ezagunak dira. Azterketa honekin argitu gura izan dutena da benetan Google Plus sareak duen harrera eta arrakasta erabiltzaileen artean, Google-ek erabiltzaile kopurua soilik jakinarazi ohi baitu eta zentzu horretan, datua oso potoloa da, nagusiki, Google-en edozein zerbitzutan alta emandakoan, sarean ere sortzen delako profila. Google Plus-ek 190.000 milioi erabiltzaile ditu elkarren artean konektatuta eta partekatutako esteka kopurua 3.800 milioikoa da.




Facebook eta Google-en konparaketarekin, umore komikia. | ZINKMARKETING

### Historian zeharreko ikerketa

Google Plus-en hasieratik egin dute azterketa eta lehen hilabeteetan izan zuen harrera ikusi eta Facebook ala Twitter bezalako sareen arrakastarekin alderatu dute Google-enaren lehen hilabeteetako bizitza. 2011 hartatik erabiltzaileen konektibitatea aztertu dute ikertzaileek eta bestelako erabiltzaileekin ezelako konexiorik ez duten profilen jarraipena ere egin dute. Azkenik erabiltzaileen jarduera publikoa ere hartu da kontuan, Google Plusen mota publiko zein pribatuko talde eta argitalpenak egitea ahalbidetzen baitu eta biak ala biak dira, batetik, kontuan hartzekoak, eta bestetik sare horren ezaugarri bereizgarriak. Google Plus-en hasieratik, 540 miloi post izan dira publikoak. Konparazioa eginda, hortaz, erabiltzaile asko baina jarduera gutxi dagoela erakusten du beste behin ere ikerketa batek eta datu bidez berresten da berez sareak ematen duen inpresioa. Google-en datu ofizialen arabera, 540 miloi dira erabiltzaileak eta astero-astero bilioi eta erdi argazki igotzen dira sare horretara iturri ofizialen arabera. Hori da Google Plusen indarguneetako bat, hain zuzen.

# Pantaila biko YotaPhone mugikorra salgai dago

Aurrean eta atzean pantaila bana du YotaPhone berriak, autonomiaren mesedetan

**J.B.** | ARRASATE

Alde bietan pantaila duen esku-ko telefonoa salgai dago Espainian. YotaPhone delakoak LDC pantaila du aurrealdean eta atzeko aldean tinta elektronikoduna. Pantaila bi izateak berez dituen abantailez gain, bateria aurrezteko modua ere badela diote sortzaileek, errusiarrak izatez, eta tintadun pantaila testuak irakurtzerakoan ala, esate baterako, mapak erakustean aktibatuko litzateke.

### Autonomian, txapeldun

Bitxienetakoa izateaz gain, eskaintzen duen autonomiarengatik ere bereizten da YotaPhone telefonoa. Izan ere, erabiltzaileak gura duen neurrian, tintadun pantaila erabil dezake eta *e-Reader*-etan ikusten den moduan, tinta elektronikoa erabiltzen duten pantailen kontsumoa benetan da urria. Hala, erabiltzaileak nahieran alda dezake pantailaz. Horrez gain, tinta elektronikoa bereizmen handikoa da eta ikuserraza, baita eguzki argitan ere. Sistema eragileari dagokionez, Android darabil YotaPhone-ak, nukleo bikoitzeko 1 GHz-eko prozesatzailea eta 12 megapixeleko kamera dauzka, ezaugarrien artean. 499 eurokoa da prezioa.

### Mugikor bitxien sasoia

YotaPhone azken boladan merkatuan agertu diren mugikor ez-tradizionalen joeraren barruan koka daiteke. Adibidez, pantaila kurbatudun mugikorrak, tamaina oso handikoak ala karkaxa bere kabuz konpontzeko gauza diren terminalak merkaturatu dituzte azken hilabeteetan.



YotaPhone-a, aurretik eta atzetik. | CNET FRANCE



Sansumg-en Galaxy Gear erlojuak. | SAMSUNG

# Erloju inteligenteek interes urria piztu dute, oraingoz, erosleengan

**J.B.** | ARRASATE

Merkatura aurten iritsi dira baina kontsumitzaileek ez dituzte erloju inteligenteak interes bereziarekin hartu. Itzelezko itxaropenekin ere ez omen zituzten merkaturatu, fabrikatzaileen arabera, eta, hala, Samsungek dio 800.000 Galaxy Gear saldu ditu aurten, aurreikuspenak gaindituta, halere. Merkatuan dagoen produktu nagusia da hori baina aitzindaria Pebble etxearen erlojua izan zen. 190.000 ale saldu ditu modelo horrek. Merkatuan egongo da hurrengo astean bien lehiakide nagusia, Toq, baina ez dituzte asko ekoiztuko. Merkatuak, itxura denez, Apple eta Google-en zain jarraitzen du. 2013an, zifrak ikusita, oso erantzun hotza izan dute erloju inteligenteek.

# Apple-ek iPhone-ekin gutxiago irabazten du Europan, alor finantzieroari dagokionez

**J.B.** | ARRASATE

Kantar Wordpanel-ek urteko azken hiruhilekoaren emaitza finantzieroak aztertuta egin du konparaketa eta haien arabera Apple -en telefonoekin azken modeloek irabazietan %5eko beherakada izan dute. Europari dagokio beherakada hori eta epe berean Windowsek gora egin duela esaten omen dute datu berrienek. iPhone 5aren merkaturatzearen lehen hilabeteetan bere garaian lortutako irabazien azpitik legoke gaur egun Apple, iPhone 5s eta 5c modeloekin. Ikerketan diote modelo berriei egin zaien harrera hotzepelagoa izan dela, normalean erantzun ona produktu erabat berriek izan ohi dutelako, nahiz eta software eta hardware aldetik iPhone berriak nabarmenki hobeak izan.

Azken datuen arabera, irabazietan Android sistemadun mugikorrak dira emaitzarik onenak eman dituztena eta horren atzetik etorriko litzateke Apple. Hirugarrena zerrendan Blackberry da. Joera aldaketarik handiena Europan dabil gertatzen, poliki -poliki, iPhone-a indarra galtzen dabilelako, Android-ek eutsi dio eta Windows Phone igo delako.

# Toymail, jostailuak posta jasotzeko

E-posta mezuak jaso eta idatzitakoa irakurri eta wi-fi bidez deiak jasotzeko gauza dira Toymail-en panpina txiki berriak. Proiektu kolaboratiboa da eta panpina bakoitza 40-50 eurotan ipini dute salgai.



TOYMAIL

## TELE-BEGI

**OIHAN VEGA**



# Sukaldari gehiegi

Karlos Argiñano izan zen lehen sukaldari famatu ezaguna. Atzetik etorri ziren Subijana, Arzak eta Berasategi telebistara. Geroago, Karlos beraren arreba postreak prestatzen. Urteen poderioz, gainera, telebista batetik bestera egin dute jauzi, Karlos Argiñano TVEn hasi zen, Telecincotik pasa eta Antena 3n amaitu arte. Egurra gorputzari! Gainontzekoak ere dantzan aritu dira, ETBk David de Jorgeren 280 kilogramoak publikoaren mutur aurrean jarri arte. Ustezko umore jator batekin sukalde apurtzailea egin nahirik edo.

Horrek ere nekatu egin gaitu, eta beste sukaldari batzuek inbaditu dute telebista: amateurrak direnak. Aitzindaria TVEko *Master Chef* izan zen; urtebete geroago, ordea, Antena 3ko zuzendariek ordenagailuko Word programaren *copy/paste* tresna erabiliz saio hori kopiatu zuten, baita izena ere: *Top Chef*. Alberto Chicote, sukaldarien Risto Mejiden bilakatua. Saio geldo eta astuna, nire ustetan. Hori gutxi balitz, ETB agertu zaigu berriz ideia hori euskaldundu nahirik *Sukaldari* saioarekin. Ez ote dira sukaldari gehiegi izango mundu honetarako? Gero, esango dute McDonald's gehiegi dagoela gure inguruan...

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

**ASTELEHENA, 9**



**'Harmailatik'**

Aloñak eta Antzuolak jokatutako futbol partidua ikusi ahal izango duzue saioan, besteak beste. | **21:25**

**12:00** Magazinea
**13:00** Erreportajea
**13:15** Ikusmira
**13:43** Ekogune
**14:12** Onein
**14:42** Zorion Agurrak
**14:46** Berriak
**15:16** Eguraldia
**15:19** Zorion Agurrak
**15:24** Ur eta lur
**16:02** Onein
**16:27** Zorion Agurrak
**16:32** Berriak
**17:02** Eguraldia
**17:05** Zorion Agurrak
**17:10** Bideo klipak
**17:46** Klaketa
**18:23** Ekogune
**18:53** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Ekogune
**20:03** Zorion Agurrak
**20:10** Magazinea
**20:55** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:25** Harmailatik
**22:10** Berriak
**22:35** Eguraldia
**22:38** Magazinea
**23:23** Gurean gaur

**MARTITZENA, 10**



**'Berriak'**

Egunean zehar Debagoieneko albiste garrantzitsuenak izan direnak ikusgai izango dituzue. | **14:45**

**12:00** Magazinea
**12:45** Harmailatik
**13:25** Aizank!
**14:10** Aniztasunean bizi
**14:30** Ikusmira
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:53** Onein
**16:23** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:50** Eguraldia
**16:53** Zorion Agurrak
**16:58** Klaketa
**17:35** Harmailatik
**18:20** Klaketa
**18:59** Berriak
**19:24** Eguraldia
**19:27** Zorion Agurrak
**19:32** Kantari
**20:02** Zorion Agurrak
**20:10** Magazinea
**20:55** Berriak
**21:20** Eguraldia
**21:23** Durangoko azoka
**22:08** Berriak
**22:33** Eguraldia
**22:36** Magazinea
**23:21** Gurean gaur

**EGUAZTENA, 11**



**'Asmatu baietz!'**

Deitu 943 25 05 03 telefonora, hartu parte Goiena telebistaren lehiaketan eta irabazi sariak. | **19:42**

**12:00** Magazinea
**12:45** Onein
**13:21** Kantari
**13:51** Aniztasunean bizi
**14:11** Ekogune
**14:41** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Aizank!
**15:58** Ikusmira
**16:26** Zorion Agurrak
**16:31** Berriak
**16:56** Eguraldia
**16:59** Harmailatik
**17:39** Ur eta lur
**18:17** Durangoko azoka
**19:02** Berriak
**19:22** Eguraldia
**19:25** Bideo klipak
**19:42** Asmatu baietz!
**20:12** Magazinea
**20:57** Berriak
**21:22** Eguraldia
**21:24** Ekogune
**21:54** Magazinea
**22:39** Berriak
**23:24** Eguraldia
**23:54** Gurean gaur

**EGUENA, 12**



**'Planik bai?'**

Asteburura begira jarriko gara eta Debagoieneko kultura emanaldien berri emango dizuegu. | **16:58**

**12:00** Magazinea
**12:50** Onein
**13:28** Ikusi irratia
**14:09** Ekogune
**14:39** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Ikusmira
**15:31** Bideo klipak
**15:43** Ikusmira
**16:11** Zorion Agurrak
**16:20** Ikusmira
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Planik bai?
**17:18** Aniztasunean bizi
**17:38** Ekogune
**18:08** Durangoko azoka
**18:53** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:20** Eguraldia
**19:23** Planik bai?
**19:43** Kantari
**20:11** Magazinea
**20:56** Berriak
**21:21** Eguraldia
**21:24** Planik bai?
**21:44** Berriak
**22:14** Eguraldia
**22:17** Magazinea
**23:02** Gurean gaur
**23:32** Planik bai?
**00:13** Planik bai?

**EGUBAKOITZA, 13**



**'AsteOn'**

Astean zehar gure bailaran izan diren albiste esanguratsuenen errepasoa egingo dugu saioan. | **21:40**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Kantari
**13:30** Bideo klipak
**13:40** Durangoko azoka
**14:25** Planik bai?
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Ikusi irratia
**15:54** Zorion Agurrak
**16:04** Planik bai?
**16:28** Berriak
**16:53** Eguraldia
**16:56** Ekogune
**17:26** Bideo klipak
**17:37** Aniztasunean bizi
**17:57** Klaketa
**18:34** Planik bai?
**18:54** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:30** Eguraldia
**19:35** Bideo klipak
**19:45** Klaketa
**20:22** Planik bai?
**20:47** Zorion Agurrak
**20:52** Berriak
**21:17** Eguraldia
**21:20** Planik bai?
**21:40** AsteON
**22:10** Durangoko azoka
**22:55** Planik bai?
**23:15** Berriak
**23:40** Eguraldia
**23:43** AsteON

### ARRASATE IRRATIA

#### Dead Bronco musika taldearen saiorako sarrerak ditugu

*Kooltur Ostegunak* egitasmoaren barruan, Getxoko Dead Bronco taldeak eskainiko du eguenean kontzertua gaztetxean. Bertara joan nahi duzuenok sarrerak lortu nahi baldin badituzue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera eta hartu parte zozketan.

#### Arrasateko Akordeoi Lehiaketak hizpide gaurko irratsaioan

Akordeoien asteburua izan da pasa dena Arrasaten eta horri buruz hitz egingo dugu gaur, astelehena, *Igo autobusera!* irratsaioan. Hauspoz elkarteko Aitor Furundarena izango dugu gurean, joan den asteburuak eman duena kontatzen. Orain artekoaren balorazioa egingo digu.

#### 'Ganorazko keinuak' ekimenaren berri jaso ahal izango duzue

Bizitzeko beste filosofia bat edo eredu bat lortze aldera, *Ganorazko keinuak* eguna antolatu dute Arrasaten zapaturako, hilak 14. Udalak, Emausek eta Gureztatuk elkarlanean eraman dute aurrera ekimena, eta horri buruzko informazioa jaso ahal izango duzue *Igo autobusera!* irratsaioan, 107.7an.

## TELE-ALBISTEAK

# Gai ugari landuko ditugu Gabon aurreko azken saioetan

'Magazinea' saioa Gabon ostera arte agurtuko da astelehenetik eguenera egindako saioen ostean, makina bat gai jorratu eta gero, hori bai

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Aste honetan ere gai ugari landuko ditugu Txomin Madina aurkezleak gidatutako *Magazinea* saioan, Goiena telebistan.

**Gaurko saioa**

Gaur, astelehena, Bagarak antolatutako hirugarren tobera izango dugu berbagai saioaren lehenengo zatian. Bergaran izango da aurtengoa eta horri buruz hitz egitera etorriko dira Bagarako kide Iraitz Agirre eta antzerki satirikoan fiskal papera egingo duen Jon Olivares.

Saioaren bigarren tartean, berriz, tertulia izango dugu.

**Hurrengo egunetako saioak**

Bihar, martitzena, Oñatiko Ingurumen zinegotzi Leire Egaña etorriko da, Oñatiko Udalaren Mugikortasun Planari buruz hitz egitera. Eta ekonomiaren tartean, berriz, Ikerlan IK4ko Igor Villareal ikertzailea izango dugu, *Batteries 2020* izeneko proiektuari buruz berbetan. Baterien bizitza luzeari buruzko proiektua da, eta, hain zuzen ere, horixe izango dugu berbagai.

Eguaztenean, Debagoieneko atariak 10 urte bete dituen honetan, *Goiena.net*-ek aurkeztuko duen atari berriari buruz hitz egingo dugu. Osasun tartean, ostera, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak Gabonetarako menu osasungarriak proposatuko dizkigu.

Eguenean, *Aulki hutsak* doluari buruzko ikus-entzunezkoa izango dugu berbagai Iñaki Peña medikuaren eskutik, eta ondoren, gazteen tertulia izango dugu.

**Astelehenetik eguenera 20:10ean eskainiko dizuegu 'Magazinea' saioa**




Txomin Madina, *Magazinea* saioko aurkezle eta gidaria. | GOIENA

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Leire Guridi Agirre**
Abenduaren 15ean, 6 urte. Zorionak, polittori! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta mila muxu maite zaitugun guztion partetik.



BERGARA
**Ane Ibarra Eguren**
Abenduaren 14an, 3 urte. Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu zure egunian eta patxo potoloak Leireren, Joneren, Mikelen, Gorkaren eta Ikerren partetik.



BERGARA
**Paco Moreno**
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, aitxitxa Paco! Egun politxa pasatzia espero dugu! Muxu eta besarkada handi bat etxekoen, Uxueren eta bereziki Kenarren partetik.



ARRASATE
**Paulo Atxa Bastida**
Abenduaren 11n, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat danon partetik!



ARETXABALETA
**Josu Hernando Gutierrez**
Abenduaren 8an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Aurten zazpigarren kandela. Primeran pasatu eguna!



ARRASATE
**Luken eta Uxue Urrutia Abarrategi**
Abenduaren 8an, 7 urte. Zorionak, txapeldunak! Zorionak zuen familiaren eta lagun guztien partetik! Desiratzen gaude zuen txokolatadara joateko!



ESKORIATZA
**Aner Ortiz Esnaola**
Abenduaren 7an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Merendola ona prestatu. Amatxoren, aitatxoren eta, bereziki, Aimarren partetik. Asko-asko maite zaitugu! Bi muxu potolo.



ARAMAIO
**Eñaut Garai Gutierrez**
Abenduaren 7an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Oier Madinabeitia Martelo**
Abenduaren 7an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako! Jarraitu 12 urte hauetan bezain jator. Besarkada haundi bat etxeko guztion partetik. Athletic! Ieuuuupppp!



OÑATI
**Izaro Telleria Gardoki**
Abenduaren 7an, 3 urte. Hiru kandelatxo! Patxo handi bat.



ARETXABALETA
**Aiur Mtz. Lizarduikoa Jainaga**
Abenduaren 6an, urtebete. Kaixo, kaixo... gure altxorrak urtebete egiten du. Eskerrik asko!



OÑATI
**Elene Gabiola Igartua**
Abenduaren 6an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna, familixa danaren partetik! Patxo handi bat!



ARRASATE
**Oxel Azurmendi Casas**
Abenduaren 6an, 3 urte. Zorionak, Oxel! Jada hiru urte bete dituzu eta gizontxo bat eginda zaude. Oso-oso ondo pasatu eguna zure aiton-amona, osaba-izeba, lehengusu eta laguntxoekin. Muxu handi bat amatxoren eta aitatxoren partetik.



ARRASATE
**Aitor Ibarrondo**
Abenduaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, tio Aitor... Patxo eta besarkada potolo bat Elaiaren eta Iraiaren partetik; baita familia guztiaren partetik ere. Pa!



BERGARA
**Aimar Anakabe Iturbe**
Abenduaren 6an, 4 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta lau muxu handi etxekoen eta lagunen partetik.



ARETXABALETA
**Aner eta Unax Maria Tercero**
Abenduaren 5ean, 3 urte. Zorionak, maitiak! Hiru urte pasatu dira gure txikiak jaio zirenetik, ordutik bizitakoak ez genituzke inondik inora aldatuko! Ondo-ondo pasatu zuen eguna. Asko maite zaituztegu. Zuen gurasoak, familia eta lagunak!



ARRASATE
**Anastasi Ibabe**
Abenduaren 5ean, 94 urte. Zorionak, amama! Ostiralian ederto ospatuko dou danok batera. Patxo handi bat familixa danaren partetik!



ANTZUOLA
**Niko Goikoetxea Agirre**
Abenduaren 4an, urtebete. Urtebete egin du dagoeneko gure txikiak! Zorionak!



OÑATI
**Olaia Urzelai Fernandez**
Abenduaren 4an gure etxeko printzesak bost urte beteten dau! Zorionak eta urte askotarako, potxola! Familixa danaren partetik, patxo asko.



OÑATI
**Maren Arenaza Altube**
Abenduaren 3an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu eta besarkada handi-handi bat etxekuen partetik.



OÑATI
**Unax Vieira Mujika**
Abenduaren 3an, 4 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna!



ARRASATE
**Ilia Madina Otzerinjauregi**
Abenduaren 2an, 4 urte. Zorionak, Lilitxo! Azkenien lau urtetzar! Ondo pasatu urtebetetze eguna! Besarkada estu-estu, etxoen partetik!



ARRASATE
**Jose Gardoki**
Abenduaren 3an, urtebetetzea. Animo, aitaita!



ARRASATE
**Naroa Fernandez**
Azaroaren 29an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat etxeko partetik.



BERGARA
**Oier Lete Davila**
Azaroaren 28an, 6 urte. Zorionak, Oiertxo, familia guztiaren partetik. Txoko-marrubizko musu bat.



OÑATI
**Manex Axpe Intza**
Azaroaren 20an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Belarritik tira egiteko gertu gauz! Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

OROIGARRIA

## Valentin Mondragon Oñate



Agurtzane Mondragon lankidearen aita

Donostian hil zen 2013ko abenduaren 4an, 84 urte zituela.

Bat egiten dugu sendiaren saminarekin.

Kurtzebarri BHI.
Aretxabaletan, 2013ko abenduaren 9an.

ESKER ONA

## Valentin Mondragon Oñate



Donostian hil zen 2013ko abenduaren 4an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2013ko abenduaren 9an.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

# JAIOTAKOAK



**Maddi Iñarra Agirre**

Bergara. 3,120 Kilo. Abenduaren 2a. Gurasoak: Iratxe eta Josu. Argazkian, Maddi sehaskan lo.



**Peru Larrañaga Barrenetxea**

Bergara. 3,880 Kilo. Abenduaren 2a. Gurasoak: Ainhoa eta Ander. Argazkian, Peru jaioberria amarekin.



**Eneko Larrabaster Bilbao**

Bermeo. 4,300 Kilo. Abenduaren 1a. Gurasoak: Leire eta Gaizka. Argazkian, Eneko jaioberria gurasoekin.



**Alain Otxandiano Rocha**

Arrasate. 3,500 Kilo. Abenduaren 4a. Gurasoak: Marian eta Mikel. Argazkian, Alain bi amamekin: Benita eta Santa.



**Scarlett Ghorbanpour-Namini Arabaolaza**

Glasgow. 3,328 Kilo. Abenduaren 4a. Gurasoak: Iraia eta Farshid. Argazkian, amarekin.

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Eroski hipermerkatuaren partetik,
**zorionak**
jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
**10 euroko bonua*** egingo dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

# DENBORA-PASA

## HITZ GEZIDUNAK



Eraikuntzak
Igaro, pasa
Donostiako auzoa
* Aretxabaletako elizatea
fruitu mota
Aberea
Pisu txikikoa
Gora!
Altzoa
Bizkaiko herria
Ezin hobe
Karta iragarle
Masurioa
Iodoa
Gipuzkoako herria
Arabako herria
Sobera
Kontso. bikoitza
Tona, labur-labur
Lotan
Janari
Igarlea
Bokala
Ez eme

LUMA

## BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





## SOLUZIOAK

### HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | E | ■ | E | ■ | A |
| | | | I | R | A | G | A | N |
| | | | ■ | A | R | I | N | A |
| ■ | M | ■ | B | I | K | A | I | N |
| G | A | T | I | K | A | ■ | M | A |
| ■ | G | A | B | I | R | I | A | ■ |
| H | A | R | A | N | A | ■ | L | L |
| ■ | L | O | ■ | A | Z | T | I | A |
| J | A | T | E | K | O | ■ | A | R |

### BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Gerturatzen direnak argi ibil daitezela!



Garraio publikoan ohikoa da nahi barik ezezagunak ukitzea (edo haiek zu). Horrekin, ederki babestuko duzu zure eremua.
**www.nopuedocreer.com**

## AHOBERO

### "Ustelkeria gizakiaren baitakoa da ia; eten egin behar da, eta ustelak zigortu"

M. DOLORES DE COSPEDAL | ALDERDI POPULARRA

Ustelkeriaren inguruan PPko idazkari orokorrak esandakoek bi galdera eragin dizkigute: ustelkeria gizakiaren baitakoa dela esatea nork bere burua zuritzeko modua da? Eta gauzak hain argi badituzte, zergatik kostatzen da hainbeste bigarren zatia betetzea?
**COPE**

## EGURALDIA

| | |
|---|---|
| Max. | 15º |
| Min. | 2º |

Giro eguzkitsuarekin jarraituko dugu eta hegoaldeko haizea ibiliko da.
**euskalmet.net**


ASTELEHENEKOA

goiena"

2013-12-09


## HAMARREKOA

**Alaia Martin** Oiartzuarra Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean sartzear egon da; Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Bilbon, eta 'Martin' telesaileko gidoilaria izan zen | TXOMIN MADINA

# "Lehen, bertsoak aspergarriak iruditzen zitzaizkidan"



AGM

**1. Barakaldoko finala hortxe izan duzu, baina, azkenean, ezin...**
Gozokia gertu izan eta ahotik kentzea bezala izan da; baina bestetik, berez zaila ikusten nuen, eta ez da horrenbesteko galera izan. Sekula izan ez dudan zerbaiten galera izan da.

**2. Eta domekarako kinielarik?**
Uste dut momentuak, egunak baldintzatuko duela finala. Ez dut faboritorik, baina Beñat Gaztelumendi oso gertukoa dut, eta uste dut berak adina tentsio pasatuko dugula gertukook.

**3. Zortzi finalisten artean bakarra izango da emakumea. Gauzak ez dira horrenbeste aldatu?**
Aldatze bidean doazela esango nuke. Gustatuko litzaidake emakume gehiago egotea; leiala izanda, ni neu uste dut prest nagoela paper hori betetzeko. [Barre].

**4. Agertokietako adrenalina edo bertso-paperen lasaitasuna, zer nahiago?**
Adrenalina, zalantza barik. Garai baten, bertso paperak idazten nituen; orain, tarteka ere bai. Baina askoz beteagoa egiten zait bat-bateko jarduna, gehiago ematen didala sentitzen dut.

**5. Bertsoaren zuzentasunak zenbateraino baldintzatzen du mezuaren edukia?**
Bolada eta estilo kontuak dira. Nahiko maniatikoa izan naiz formarekin, baina azken boladan mezuari eman diot lehentasuna.

**6. Anaia eta biok bertsolariak: puntuka eztabaidatzen duzue?**
Normalean, bakarka. Familian ez dugu bertsozalerik, baina ikastolan bertsolaritza genuen, eta bertso eskolara bideratu gintuzten. Anaia bertsotan gustura ikusteak ere eragingo zuen: lehen, bertsoak aspergarriak iruditzen zitzaizkidan.

**7. Bertso eskoletako irakasle zara. Etorkizuna bermatuta dago?**
Bai: batetik, sormena ez delako galtzen, eta, zentzu horretan, umeak sormen zaku txikiak direlako; bestetik, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak egiten duen lanagatik.

**8. Zein izan da bertsotan esan dizuten gauzarik politena?**
Pentsatu nahi dut hainbeste lotsatu nintzenez, ez dudala gogoratzen. Ez da ohikoa bertsotan gauza politak entzutea: sarri zirikatzeko jarduna da; bestetan, esajerazioagatik, gozoegia. Gauza politenak oholtzatik kanpo entzun ditut.

**9. Egun, ikus-entzunezkoen mundua gertu edo urrun duzu?**
Urrun samar, dedikazio handia eskatzen du-eta. Garbi dut gehien gustatzen zaidan gauzetako bat gidoiak idaztea dela; tartea dudanean hasiko naiz proiektu berrietan pentsatzen.

**10. Bertso derbian Realean jokatuko duzun jakingo da gaur. Ilusioa egiten dizu txuri-urdin janzteak?**
Bai; ez bereziki Realzalea naizelako, baizik eta oso aldian bizi dudan giro hori gustuko dudalako.

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

## "Kartzeletako barroteak puskatu"

"Aukeratzeko dauden hainbat gauzaren artean, makila horren magiarekin kartzeletako barroteak puskatuko nituzke".

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



## Gazi-gozo

Durangoko Azokatik pasatua izango zara, hau irakurtzen hasi orduko, ni ez bezala hau idazten ari naizen artean. Bertsolari txapelketako finala heldu den igandean, lan edota jaiegun batzu eta urte berria aurrez aurre. Eta denboraren joanean, betikoak gure herrian, jira eta buelta. Nafarroako Aurrezki Kutxaren *desagerpena*-ren misterioa ulertzeko, *El banquete* liburu argitaratu berria irakur ezazu; Estatu espainola omen Europako ustelena, baina hemengo Kutxa batzuk arakatzea ere...; eta nola lortu duten Nafarroan, ETAkoak omen diren 441 irakasle "asaldatzaile" horiek, (batetik enplegua eta bestetik) Europako bataz bestekoa baino emaitza hobeak ateratzea beraien ikasleek, irakurgaitasunean, matematiketan eta abar? Oraindik LOMCE legea indarrean ez delako!? Irakaskuntzarekin jarraituz, oso interesgarriak, Arrasaten eta beste hainbat herritan, bertako ondarearen bilketaz osatutako ale didaktikoak.

Pozgarria ere, zabor bilketaren inguruan, Arrasaten lortu den gehiengo zabaleko adostasuna; desberdinen artean hitz egiteak askotarako balio duela berriro ere demostratuz. Hemendik aurrerakoa, ordea, denoi, herritarroi diot, dagokigu.

Sevilla IIko preso grebalariak ezin ahaztu; animoak hemendik; eta nola ez, hiretzat Garratz, ongietorririk beroena.


iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

